


11
10

ABE





A.T.V.
1943

SAN IÑAZIO'REN EJERTZIOETAKO GOGARTEAK

M-5588
R-1872

A.T.V.
1943

SAN IÑAZIO'ren



Ejertzioetako Gogarteak

A. KANDIDO BASABE

JESUS'EN LAGUNDIKOAK, EUSKERAZ AZALDU DITU.


BIGAÑEN IRARKINTZA



JESUS'EN BIOTZAREN Zuzenbidea:

Apartado 73. — BILBAO

— 1926.



Imprimi potest:

SEVERIANUS AZCONA, S. J.

Praep. Prov. Cast.


Nihil obstat:

JULIANUS EGUIA, S. J.

Imprimatur:

FR. ZACHARIAS, Episcopus Victoriensis.

1 Septemb. 1925.



JAUBEDUNA DA.



Berbaurea

Bitarikoak dira San Iñazio'k bere Ejerzioetako liburutxoan emoten dabezan irakaskizunak: Gogarte edo meditaziñoak, beroni yagokazan geyakaz; eta enparauak arimea santutasunik andienera jasoteko jakin bea' diran beste guztiak. Bitzuok dakaz tarteka, batzuk bestien artean sartuta.

Baña, gogartekuez-ostean, beste guztiak batera ipiñi doguzan ezkerro «ONDO KONFESA ETA KOMULGATEKO IRAKASKIZUNAK» deitu deusagun liburuan: (1) ondo izango dala dirudi, gogartekoak be, gogarteari yagokezan geyakaz ipintea; Ejertzioetara datozenak, etxeratuta be, emen gogoratu dabezan egi andiak gomutau ta ba'iztu dagiezan. Bardin diñot Misiño Santuakaitik be.

Ganera, a'riga'ria da ze gitxi diran Euskaldun - artean, gogarteari (meditazi-

(1) Salgei, Durango'n, Elosu'renean.

noari) yarduten deutesnak: ¿oregaitik-edo izango ete-da, gure artean ain santu gitxi aurkitzea? Egia esan, libururik be ez dauka-gu oretarako, kaska batzuk baño-ta.

Gogartera zaletu zaitezán, ba, emoten deutzugu liburu au, Euskaldun kristiñau maite oñi.

Artu, irakuñi, erabili, sartu, buruan baño be biotzean geyago, gure Erlijiño Santuko egi mamintsuen onek, eta laster zeurofegan ikusiko dozu ze onuratsuak diran.


Gogarteok luzeak dira, egunean bakotxa egiteko; baña geyenean euren atal bategaz naikoa izango dozu. Baita lengo gogarteri osterá yardutea be, ona baño ohea da, ta San Inazio'k agintzen dabena. Eta one-lantxe zure gogo edo arimeak eukiko dau ia urte guztirako jakia.

Asi egizu, ba, mardo, sendo, loratsu; eta bere ekañiz bete dagizula ez bakañik zeure burua, baita zeuen etxeko ta beste inguruetako guztiak be.

Auxe da biotz - biotzetik opa deutzuna

EGILĒAK.

DURANGO'n, Ejertzioetako Etxean, gure Aita San Prantzisko Borja-taren egunean.



Gogartea (meditaziñoa)

Gogartea zer dan. — Iru arimako almenak erabiliagaz egiten da, San Iñazio'k erakusten dabenez: 1.^{go} *Gomutaménagaz* edo memoriagaz, gomutau, nai irakurri gure Erlijioñoeko egiren bat, berbarako, inpernua dagola. 2.^{en} *Adiménagaz* (entendimentuagaz), ikusi zer dan inpernua, ze bildurgaia, ta olan. Gero norberaganatu egi ori, egiñagaz ¿eta ni ara joan neike? ¿Zegaitik? Eta oñen antzera igitu guramena (borondatea); ba guramenak, itsua izanik, itsu-mutila, au da, adimena, bea dau, argitu ta zuzentzeko. 3.^{en} *Guramenagaz*, bein oretara igituta egon ezkerro, au edo bestea egitea, edo ez egitea erabagi.

Ez da, ba, orduan, askok uste dabene baxen arazo gatxa ta Erlijioso ta Santuen-

tzakoa bakarrik: edonok, beste edozein gauzetan egiten dau.

Gogartea ze beaŕekoa dan.—Gogartean egiten dana da, ikusi dan lez, Jaungoikoagan eta norberagan gogoratu. Baŕiz Jaungoikoa, beragan gogoratu ezkerro, ezagutzen da; ta ezagutu ezkerro, ¿nok maitetu ez? Baita norberen burua be ezagutzen da; ta beren burua ezagutzen dabena, egon ziur, goŕotauko da. Ba Jaungoikoa ezagutu ta maitetzea, ta norbera ezagutu ta goŕotatzeta, ara or santutasun guztia. ¡Ze zuzen, ze eŕez garoazan, ba, gogarteak santutasunera! ¿Zegaitik askok Jaungoikoa ain gitxi maitetzen ete-dabe, euren buruak baŕiz alagiña? ¿Zegaitik ete-dira ain motelak euren eskariak? Zegaitik ain eroapen gitxikoak euren atsekabeetan? ¿Zegaitik (lotsaŕen eta biotza saminduta diñot), zegaitik dagoz ain santu gitxi Euskaldunen artean, izanik santutasunerako ain egokiak eta ain Erlijijño-zaleak? ¡Gogarterik ezagaitik! Gogarte barik, mirariz baño ez da jaritsiko santutasunik. ¡A! ain aldi luzeak ototzetan (eŕezoetan) emoten dabezanak, ordu erditxo edo lauren bat gogarteari emongo baleuskioe. ¡Arima-zuzentzaleak aleginduko

balira, al - dabezan guztiak gogartean ipinteko, jamaika santu sortuko litzakez gure mendi-tarteetan!

Batzuok eta besteok ořetara zaletu dagizala, Euskaldunak ain maite dabezan Andra Mariak.

Betoř, ordu-laurentxo bateko gogartea egunero daukana, ziņoan Santa Teresa'k, eta neuk ziurpetuten dot bere salbaziņoa. (1)

Gogarterako iru eragozpen: 1.º Eragozpena: gogakizunik-eza. — Asko ikusten dira laři, baita guztia bertan-bera izten be, gogartean gogakizunik (zer pentzaurik) eztaukela-ta. Ziņistu dagiela onek, eztala gogakizuna gogartearen ekaři edo frutoa; gogartearen ekařia guramena (borondatea) berotzea da; edo, obeto, guramena indartu ta gauza txarřetatik alde-erazo, ta onetara makurtzea. Eta gogakizunak ořetara zuzendu beaři dira.

Orduan, Jesus kurutzean zugaitik il zala gogoratu, ta beste barik zure guramena igituten bada bera maitetzeko, ta ezetara be ez atsekabetuteko, zure gogartea ona baņo obea da.

(1) Mezea entzuten danean, egin leike meza-erdiraņo gogartea, geyagorik ezin dabenak.

Eta ara or zegaitik esan daroen, ez-jakiñak, jakitunak eurak baño obeto, daukela sañitan gogartea; jakitunak, arduraz ezpadabiltz, gogakizunetan (pentsamentuetan) gogartaldi guztia emoten dabelako, guramena gozatu ta bigundu barik. Ez-jakiñak, bañiz, gauza ezez-ak apurtxo bat gogoratuta, enparaua guramenari emoten deutse, gogo guztia samurtu ta gauza onetarako zaleturik geratzen yakela.

2.^{en} Eragozpena: gozatasunik - eza. — Beste ez gitxik, leor, gozatasun barik aurkitzen diralako, gogarteari izten deutse. ¡Txarto egiña! Ezkara joan bear gogartera atsegin-bila; umeak gozo jaten lez, Jaungoikoak emoten daben samurtasuna mizkaten egoteko. Gogartera joan bear gara, geure pekatu, utsegite ta ekandu txarrik kentzeko; Jaungoikoak madarikaturiko geure biotzeko lur onetan, geratu barik urteten diran be-
dar txar guztiak aterateko; geure gorputza arimearen mendean, eta arimea Jaungoikoarenean, Adan Paradisoan lez, geratzeko, onetantxe dago santutasuna - ta. Eta olan, zegaitik obeak ezkarean, zelako utsegite ta eragozpenak daukaguzan ondo ikusita, eragozpen eta uts orek kentzeko gogorik bizi-

enagaz sartu bear' gara gogartean, eta orixe da bertatik atara bear' doguna.

Ba'riz eka'ri (fruto) au beti atara leike, naita gogoa a'ria ba'ño gogo'ago ta makilea ba'ño leo'ago egon; ba, beti artu leike erabagia, egun aretan beintzat olako utsegiteetan ez jausteko. ¡Mila bida' au esatea, ez da naikoa!

Ezti'not eztala ona, beste gogakizun nai biozketetan (afectos) geratzea. Gogartean zagozala, emoten deutzu Jaungoikoak, berbarako, zeure pekatuen go'oto andia: ¡geratu zeure pekatuak go'otutzen! Beste bein sartzen yatzu Jaungoikoari eske'ak egiteko, nai Bera maitetzeko gurari bizia; ¡egin atsenden! Ba'ña ez urten gogartetik, zeure utsegite nagosian gaur ez jaustea erabagi barik. Doa bat zelaira, aurkitzen dau lora polit bat, artzen dau. Ikusten dau beste bat, luzatzen dautso eskua. Ba'ña loraren bategana zaletuta ba-dago, lora ori, al-badau, artu barik, ez da urtengo: beste ainbeste egin bear' da gogartean be.

3.^{en} Eragozpena: Gogo - banataldiak (distracciones).— Iru jato'ri daukez: Batzuk *deabroagandik* datoz. Erlijioso batek, gabaz,

gogarterako txiliña jotorduan, geñako tronpeta - soñoak entzuk ebazan bakartadean; eta Jaungoikoak adierazo eutsan, erlijiosoak otoitz (erreguetara) deitzen ebenean; baita deabroak be, erlijiosoak zirikatzen joateko, ots-egiten ebela.

Emendik atera daike, ze goñoto andia deutsan deabroak otoitzari, ta ze ona izan bea' dan Jaungoikoaren añaan.

Deabroaren aldetik datozen banataldi edo distraziño onek kentzeko, eskatu Jaungoikoari, esanaz: DEUS, IN ADJUTORIUM MEUM INTENDE: *Jauna, lagundu niri; oñetarako esaten dau Eleiz-Amak-eta.*

Beste banataldi batzuk, geure *makaltasunetik* datoz. Santu bat bidean batu zan nekezari bategaz; eta gure makaltasun au adierazoteko, esan eutsan ezin esan leikela, gogoa banatu barik, ezta *Aita-gure* bat be. —«¿Esan ez?»—erantzun eutsan nekezariak, Eta santuak: —«Zaldi auxe emongo deutzut, esaten ba-deustazu». — Asi zan nekezaria: —*Aita - gurea, zeruetan zagozana...* Baña etenda, dirautso santuari: «Zaldiagaz ganera lokañiak be emongo deustazuz, ¿ezta?»

Onelako banataldiakaitik, ezta asarätzen

Jaungoikoa, bai erukitu; erukitzen dan lez aita bat, bere semea, burutik eginda, ganorabakokeri bat orain, eta geroago beste bat esaten ikusita. Kontuan jausitakoan, ez kentzea, pekatu arina da. Kendu, ba; baina bake-bakean, Abraham'ek opari edo sakrifizioa jatera etorren yakozan egaztiak, bake-bakean ixotuten ebazan lez.

Azkenez *geure eruz* yatorkuz banataldirik asko, sentzunak egun-bitartean, ora ta ona darabilguzalako, ikus-gurak, entzungurak garealako, ta ezer ez yoakun gauzetan, batez be emakumeak, sartuagaitik. ¿Onelangoak zelan batu gogoa euren gogartean? Gure adimena erotea lakoa da, emoten yakona eyoten dabena; ¿gogakizun onak darabiltzuz egun bitartean? Onak eukiko dozuz gogartean be. Edozein ganorabakokeri gogoan eukiten ba-dozu, urtengo deutzue, ta indar geyagogaz, gogartean bertan.

Zeruko gauzak bakarik maite izan egizuz, eta gozaro gogoratuko dozuz gogartean be. Oregaitik gogarterako gertuera edo presterarik onena, arimea garbi eukitea da.

San Iñazio'k ipinten dabezan uringo geigarriak be, banataldi oniek gitxitzera datoz.

Gogartea zelan egin bear dan: Geigariak.— San Inazio'k berarizko marka bat ezari eutsan gogartea egiteko ererari be, *geigari* batzuk ipiñiaz. Geigari onek bere-bizikoak, eta Aita Santuak saritan ontzat emon eta goraturikoak dira.

1.^{go} **Geigaria.**— Oeratuta, lo asi nai dodanean, gomutauko dot, *Agur - Maria* bat esateko bitartean, ze ordutan jagiko nazan, eta zetarako; euki bear dodan gogarteari begirakunetxo bat egin-da.

2.^{en} **Geigaria.** — Itxartutakoan gogapen (pentsamentu) batzuei ta besteai tokirik emon barik, euki bear dodan gogarteari begiratu; berbarako, *Iru Pekatuena* ba-da, lotsatu ainbeste pekatu egin dodazalako, agerpi-deak ekañita: «¡Zelako lotsariagaz agertuko ete-litzake zaldun bat, Erege ta bere inguruko guztien auñera, ainbeste mezede ta doe egin deutzazan Eregea irainduta gero!» Baita norberaren pekatuak gogoratu bear ba-dira be, pekatari andi, katez estutua egiten nazala; au da: agertzen nazala katez lotuta Betiko Auzi-epale (Juez) andiaren auñean; iruditzen dodala zelan agertzen diran erio-tzara epaituta dagozanak, munduko euren

auzi-epailearen aurrean. Eta jantzi gogapen onekaz, nai egitera noan gogarteari ondo yatorkazan beste batzuekaz.

Ez dago esan bearik, lenengo geigañi bi onek gaberdiko gogarterako, edo goizeko lenengorako dirala. Baña, San Iñazio'k oartzten daben lez, beste edozein gogarterako be bigañen geigañi onen antzeko bat artuko da, onetara: gogarte-ordua dala gogoratzen nazaneko, asi-orduko, begiratu nora noan eta noren aurrea, egingo dodan gogarte-geya apur bat batuaz; eta olan sartu gogartean, urengo geigaña egiten dala.

3.^{en} Geigaña.— Gogarte eukiteko tokia baño pauso bat edo bi lenago, zutunik geratuko naz *Aita-gurea* bat esateko beste denporan, adimena gora jasota, gogoratzen dodala, zelan Jaungoiko gure Jaunak nakusan; eta egin gurkera (reverencia) edo apalkera bat (humillación).

San Iñazio'k azaldu deuskuzan lenengo iru geigañi onek, banataldiak gitxitzeko dira.

Baita beste oarketa bi be, gogarte bakoitzean egin bear diranak, egiñagaz erakusten deuskuz, esan dabezan geigañien ostean, eta dira:

Gertuteko Otoya (Oración preparatoria):

— Beragaz zuzentzen yako Jaungoikoari euki bea' dan gogartea, gogoratuaz ez garala joan bea' besteen ede'ragaitik, ez norberen atsegiña bilatzen, ez beste munduko ezergaitik; eta bai baka'rik Jaungoikoaren guraria ezagutu ta betetako.

Toki-iruditzea (Composición del lugar).

— Gogarteko jazopena gertaten dan tokia iruditzea da. Esaterako: Jesukristo'ren jayotzako gogartea egin nai ba-dot, irudituko dot Belen'go estalpea, askatxoa, Andra - Maria ta beste aurkituko ziran gauzak, bertantxe ba-nengo lez. Au, gogarte-geya ikusi leikena danean. Ezin ba-da, bakotxak al-daben eran ipiñi bea' dau, irudimena batzeko egokien eto'riko yakona.

4.^{en} Geigaría.— Sartu gogartean, batzuetan belauniko (zagozala), beste batzuetan auspaz; noiz gora begira, noiz ja'rita, noiz zutunik, nai dodana bilatzen, (gogartetik atara nai dodana).

Gauza bi gogoratu bea' doguz: lenen-go, belauniko nagoala aurkitzen ba-dot nai dodana, ez dot beste egon-erarik artuko; bardin auspaz (egon - ezindakoa ezpada).

Bigarrena, bilatzen dodana aurkitzen dodan tokian, bertan geratuko naz, aufera igaroteko estutu barik, arik-eta asetu arte; ba asko jakiteak ez dau arimea asetu ta beteten, ta bai gauzak barutik asmau (sentidu) ta eurakin gozatzeak; (asko jateak gorputza sendatzen ez daben lez, jaten dana ondo egosteak baño).

5.^{en} Geigarria.—Gogartea amaituta, begiratuko dot ordu-lauren baten, jarita nai nabilela, zelan joan yatan egin dodan gogartean; eta txarto egin ba-dot, begiratuko dot zegaitik izan dan, damutu ta auferantzean zuzentzeko; ta ondo euki ba-dot, eskerak Jaungoikoari emon, eta urengoan be, olantxe egingo dot.

Gogartea ondo egiteko beste era batzuk.

1.^o — Egin gogartean, beste edozein arazotan egiten dozuna.—Arazo bat eskuartean darabiltzunean, esaten dozu zeure barurako: arazo au, ¿zelan ete-doa? ¿obetoago zelan egin neike? Eta orrelako ardura eta lan-bideak artzen dozuz. Ba gogartean be, itandu bake - bakean zeure gogoari: ¿zelan yoat neure arimearen salbaziñoko arazo andian? ¿Zelan obetoago yoango

yat? ¿Zelan zuzentzen dot neure etxea?
 ¿Zelan daroadaz neure bizi - bideak daka-
 dazan atsekabeak? Eta aurkituko dozu zer
 ikusi, zeri negar egin, eta zer arteztu asko.

2.^a *Agertu Jaungoikoaren aurrean ezeu-
 ki edo txiro (pobre) bat lez.* — ¿Ez dozuz
 ikusten ze adi (atento), ze apal (humilde),
 ze alegin eta iraupen andiagaz dagozan
 aberatsen aurrean, ze barutik eskatzen deu-
 tsen? Juan Gerson'ek diño Jaungoiko-zale
 batek esan oi-ebala: «Berogei urtean nabil
 gogaketan ardurarik andienagaz, eta ez dot
 aurkitu, Jaungoikoaren aurrean ezeuki nai
 itsua lez, agertzea lakorik».


3.^a *Gure eskari motelak Jesu-Kristo ta
 Andra - Maria'renakaz bat egitea.* — Olan
 diño Blosio jakitunak, agertu eutsala Jaun-
 goikoak Berak santu bati.



Asierea ta Zimendoa

Asierea deitzen deutso San Iñazio'k egi sakon oni, ez. lenengoa dalako; ta bai gero azaldu bea' dabezan egi guztiak bere ba'uan daukazalako, aziak zugatz edo arbola osoa daukan antzera. Baita *zimendoaren* izena be emoten deutso, eregi bea' daben santutasuneko etxearen zimendo benetako ta sakona dalako. Ikusi, ba, ze ardura andiagaz gogoratu bea' dozun.

Ez dau ipinten San Iñazio'k gogarte-antzera; baña egin leike, ta egin oi-da.



Asien et la Zamboua

Les relations commerciales entre l'Asie et la Zamboua ont toujours été très actives. Les produits de l'Asie, tels que le riz, le sucre, les épices, etc., sont très appréciés en Zamboua. En retour, la Zamboua exporte vers l'Asie des produits locaux tels que le bois, les produits de la mer, etc. Cette situation a permis à la Zamboua de prospérer et de devenir une puissance régionale importante.





Lenengo Gogartea

GIZONAREN JATORIA TA AZKENA.

JAUNARI AURKEZTUTEA:

Bene-benetan ziñesten dot, Jauna, neuri begira zaukadazala. Gurtuten zaitut neure biotz guztiaz.

GERTUTEKO OTOYA:

Eskintzen deutzudaz, Jauna, gogarte one-tako neure asmo ta egikizun guztiak, zeure aintza edo gloriarik andienerako zuzendu dagizudazan.

TOKI - IRUDITZEA:

Iruditu Jaungoiko andia, Aita, Semea ta Espiritu Santua, bere jarleku itzaltsuan giz-

onak eta beste izaki edo kriatura guztiak beragandik urten eta beragana doazela, ibayak itxasotik urten eta itxasora doazen antzera.

ESKAKIZUNA:

Emoidazu, Jauna, argia barutik ezagutzeko, nundik etorri nazan mundu onetara, ta zetarako.

Gizona Jaungoiko gure Jaunak sorturikoa da, berau goretsi (alabau), gurtu edo adorau ta otseinduteko (serbiduteko); ta onen bidez bere arimea salbateko. (1).

LENENGO ATALA

**Gizona Jaungoiko gure Jaunak
sorturikoa da.**

Orain dirala ogei, berogei, irurogei urte ¿nun nintzan ni? ¿Neure erian? ¡Ez! ¿Erbesteetan? ¡Gitxiago! Inun be ez nintzan. Ez nintzan ezer. Nire etxe-ondoan ebilen txoritxoa,

(1). *Esku-letraz ipinten diran berbak beti izango dira San Inazio'renak.*

ni baño geyago zan; a bizi zan, ni ez. Nire etxearen sañerako ari-malea, ni baño geyago zan; a bazan, ni ez nintzan ezertxo be.

Orain arima edeñ daukat, Jaungoikoaren beraren antzera egiña; gorputza bere begi, belafi, min, esku, oin eta beste zati ain edeñ, bakotxa bere tokian ain egoki iratzitakoakaz.

¿Nok emon deustaz? ¿Gurasoak? Gauza bat egiteko, zenbat zati daukazan jakin bea da. ¿Ete-dago munduan jakitunik gizonaren gorputzeko zati guztien bañi dakianik?

Guraso bakotxak esan leikio bere seme-ari, Makabeo'en amak bere zazpi semeai, Jaungoikoagandik arturiko bizia Jaungoikoari emon egioen, esan eutsezan berba edeñ onek: «Ez dakit nik zelan agertu ziñen nire sabelean; ba nik ez neutzuen emon arima ez bizirik; ez zuen gorputzeko zatirik ipiñi dot bakotxa bere tokian. Baña munduaren Egileak, gauza guztiei asierea emon deutesenak...» (1).

¡Bai! Jaungoiko andiak egin nau, beste zenbatu ezin-ala ezer-ezeko ilunbe itzaltsuan

(1) Nescio qualiter in utero meo apparuistis; neque enim ego spiritum et animam donavi vobis et vitam, et singulorum membra non ego ipsa compegi. Sed enim mundi Creator... quique omnium invenit originem. (II MACHAB. 7, 22-23).

itxita. Jaungoikoak bere eskuz, mundua egi-
ten erabili ebazan eskuz, egin nau. Guztiok
esan giñei, Job Santuak Jaungoikoari zirau-
tsana: «Zeure eskuak egin nabe, ta nire in-
guru guztiak tayatu deustez. ¿Gaztaya lez ez
ninduzun gogoñtu? Azal eta aragiz jantzi nin-
duzun, azuñ eta zanez ornidu ninduzun; bizia
ta erukia emon zeustazan». (1).

Jaungoikoa da, ba, nire Aita. ¡Au poza!
Orduan, berez, bere izatearen indañez, aitak
semea lez, maite nau, etxeko aitak baño
neuñi barik geyago. Berak eukiko dau nire
gorputz eta arimako beañ-izanen ardurea,
Bere amaibako ondasunak be neuretzat.

¿Begiratzen deusat Jaungoikoari, aita
bati lez? ¿Maitetu, goretsi, gurtuten dot, aita
bati yagokan lez? ¿Esanekoa nayako?

Damutu, parka-eskatu, ta erabagi aufer-
antzerako.

Jaungoikoa da nire aita, urlia ta beren-
diarena be bai, baita guztiena be. Orduan,
gizon guztiok Aita bat daukagu; orduan,

(1) Manus tuæ fecerunt me, et plasmaverunt me totum
in circuitu... ¿Nonne... sicut caseum me coagulasti? Pelle et
carnibus vestisti me; ossibus et nervis compegisti me; vitam
et misericordiam tribuisti mihi. (JOB. 1, 8-12).

guztiok anayak gara. ¿Olan begiratzen deutset? ¿Olan maitatu ta laguntzen deutset?..

Jaungoikoak egin ba-nau, ¿norena izango naz? Ikusi dagigun. Etxea, maya, edozer, ¿norenak izan oi-dira? Egiten dabezanenak. Gizon batek soloan ipiñiriko sagañ-zugatz (arbolearen) ekañiak, ¿norenak izango dira? Bereak. ¿Jaungoikoak egin nau? Orduan, Jaungoikoarena naz. ¿Jaungoikoak bakañik egin nau? Jaungoikoarena naz bakañik, ez gurasoena, ez lagunena, ez besterena. ¿Jaungoikoak emon bako zatirik ez daukat? Orduan, gorputzeko nai arimako zatiren bat artuta, ezin esan neike: «Au neurea dot; onegaz nai dodana egin neike».

Sartu, ba, ondo, ene arimea, zeure bañuan egi andi ta on-egile au: «Ni Jaungoikoarena naz, eta bakañik Jaungoikoarena, oso-osorik Jaungoikoarena, betiko Jaungoikoarena. Jaungoikoa edo bere ordekoa ez danak ez dauko nigan aginpiderik. Nire sentzun eta almenen ekañiak (frutoak) Jaungoikoarenak dira. Ezin euki neike gogapenik (pentsamenturik) txikienik be, Jaungoikoaren gogozkoa ez danik.

Ez dot nai, Jauna, orain artean lez, lapuñá

izan, zeuk zeure eskuz ipiñi dozun zugatz (arbola) onen ekañiak neuretzat artuta.

Goñotauko dot liberalkeri guztia, liberal-keria dalako norberak nai dabena egiteko eskubidea, nai-ta Zeuk, Jauna, edo Zeure ordekoak bestera agindu.

Emon egidazu argia Zeure guraria eza-gutzeko, ta indaia neure bizitza guztian beteteko. Lotu nagizu guztiau zeure gurari santuaren kateakaz, kate oñek baño biguna-go, ongileago, ta azkatzaleagorik ez dago-ta.

BIGAREN ATALA

**Gizona Jaungoikoa goretsi, gurtu ta
otseinduteko sortua da.**

Jaungoikoak, ikusi dogun lez, egin badau gizona, zer-edo-zetako egin dau; ba, zoroa ez danak, beti dauko asmoren bat, gauzak egiten dabezanean.

¿Zetako egin ete-nau, ba? Jaungoikoak ezin egin leike ezer, al-dan lez zorioneko izateko ezpada. Ikusi daigun, ba, zetan dagon gizonaren zorientasuna; ta atarakoxe egin

dabela gizona Jaungoikoak, erabagiko dogu.

¿*Aberatsa izatean ete-dago, ba, zoriontasuna?* Olan uste izaten dabe askok, batez be ezeuki edo pobreak; eta ikusirik aberatsen bat ondo jantzita, esaten dabe euren bañurako: ja, bai, zorionekoa!

¿*Baña aberatsak benetan ete-dira zorionekoak?* Zorionekoa bere beañ-izan guztiak betetan dabezana da, zer nai ta aixe daukana, asetuta dagona. Eta aberats guztiak olan aurkitzen ez dirala, ¿*nok ez daki?* Gaisoa, bakerik-eza ta beste mila beañ-izan dagoz diroagaz bete ezin leikezanak. ¡*Amaika bidar, munduak ain zorioneko daukezan oren artean, aurkitzen dira, sedazko jantzi bañoan atsekabez mila zati egiñiko biotzak!*

Ez dago, ba, aberastasun utsetan benetakozoriontasunik: ez dau, orduan, Jaungoikoak oretarako bakañik gizona egin.

¿*Aragiaren atsegiñetan egongo ete-dagizonaren zoriontasuna?* Jaungoikoari ta gizonari zor yakon izen onagaitik, ¡ez! Oretan ba-lego gizonaren zoriontasuna, mila bidar oba litzake abere edo alemali izan: abereak geyago atsegintzen dira; ta atsegintzen dira dirurik, ez osasunik, ez bakerik

ez entzuterik galdu barik, orrelako atsegiñetara etzaten diran gizonai gertaten yaken lez.

Beste gauza guztiak banan ikusita be, beste ainbeste esan beaiko genduke. Eta naita diranak batu, ta gorde, ta estutu, Salomon'ek lez, bañuan dauken zoriontasunaren ezti guztia aterateko, guzuñtauak erazotako inkesa luze bat emonda, berak lez esan beaiko genduke: ET VIDI QUOD HOC QUOQUE ESSET VANITAS. *Ikusi neban gauza bakotxa arokeria ta uskeria baño ezdala. Guztia uskeria ta arimako samintasuna. (1).*

¿Ez al-da au egia, neure arima maitea? Zenbat bidar uste izan dozu gauza a edo bestea ba-neuko, zorioneko izango nintzake. Alegin askoren-ostean jaritsi zenduan. ¿Bete eutzun zeure bioztxo ori? ¿Eta ondiño ez zara aspertu, umeak mitxelet (mariposa) atzean lez, mundu onetako gauzen bila ibilteko? ¿Ez dozu ondiñokañen ikasi munduko aberastasan, atsegin eta beste gauza guztiak, gatzak egañi danari egiten deutsana baño ez deutzuela egiten, eurakanako egañia geitu?

(1) Ecce universa vanitas et afflictio spiritus. (ECCLESIASTICO. 1, 14).

¿Ez dakizu, Jaungoikoak Beretzat egin daben biotz ori, ez da mundu biribil osoagaz be, ez dala asetuko? ¿Ainbeste alegiñegaz bilaturiko gauzea jaritsita, bañuan aurkitzen dozun utsune ta biotzeko samintasunak, ¿ez ete-dakizu zer esan nai daben? Ain maite izan dozuzan gauzak, biotza ezpata bategaz zulaturik igarota, eskuartetik iges-eran, ¿ez dozu entzuten zelan bañez eta destañez dirautzuen: «¡A, zoroa! ¡a, burubakoa! ¿zetan zatoz gugana? ¿Noiz ikasiko dozu ez zareala guretzat egiña? ¡Tira, tira Jaungoikogana, Beragan aurkituko dozu, gugan alpeñik bilatzen dozun zoriontasuna!»

¡A, Jauna, egia da; neure adimenak, neure biotzak, bestien jazokunak, maite izan dodazan gauzak, eta batez be utsik ezin emon leiken Zeure berbeak, sañi-askotan esan deuste ez izateko zoroa, neure buruaren arerioa; bilatzeko Zeugan, eta ez bestegan, neure zoriontasuna. Baña guztien didañetara gortuta, neure griña zitalai jaramon eginda, gauzarik-gauza ibili naz neure zoriontasunaren egaña nun asetuko.

¡Zer izan da nire itsukeria, nire eskeñtxaña! Zeuk ni goratu nozu, izentaurik Zeure

aingeruai emon zeuntzen azkena, Zeuk, Zerórek, daukazuna berbera, Zeu ezagutu ta Zeu maitetzeko arazo andi, eztitsua. ¿Eta nik beeratu neure burua, aberien azkena neure azkentzat artuta, eurak baño be betañago, aragikoyago egiten nazala?

Ikusten dot uts egin dodala, artzañagan-dik aldendurik sasirik-sasi galduta dabilen ardiaren antzekoa izan nazala; ta banatuta, biotza atsekabez zatituta, Zeugana natoí, Jesus, Artzain On ori; artu nagizu, lotu nagizu, beste bein Zeugandik aldendu ez nadin; neure adimen, biotz eta izate guztia Zeugan ipiñita, Zeugan aurkitu dagidan, orain-arte alpeñik bilatu dodan zorientasuna.



Bigarren Gogartea

SALBAZIÑOIA.

Gizonaren azkena *mundu onetan* Jaungoikoa onetsi (alabau), gurtu edo adorau ta otseindutea da, ikusi dogunez; baña onen bidez *beste munduan* salbaziñoia jaristea da bere azkenik azkenena.

JAUNARI AURKEZTUTEA. — GERT - OTOITZA ta
TOKI - IRUDITZEA, lengoak.

ESKAKIZUNA:

Jauna, salbau dagidala neure arimea.

LENENGO ATALA

Salbaziñoa beař-beařekoa da.

Beařekoa da urarentzat bustitea, suarentzat eřetea, matsarentzat mats-mordoak emotea; euren azkena ori da; ořetarako Jaungoikoak egin dauz. Ba ain beařekoa da gizonarentzat salbatea; ořetarako egin dabelako Jaungoikoak, ura bustiteko, sua eřeteko ta matsa mats-mordoak emoteko lez. Bustiten ez daben ura, ez da ura be, salbaten ez dan gizona, esate baterako, gizona be ez da (1). Mats-mordorik ez dakafen matsa, alpeřikoa da, sutarako baño ez da. Salbaten ez danak, nai-ta munduko aberatsena, jakitunena, entzutetsuena izan, alpeřik emon dau bere bizitzea, inpernuko sutarako baño ez da, oba izango eban jayo ez-bazan. (2).

Isabel, Ingalateřa'ko Eřegiņa deungea, munduko aukera guztien artean ebilen; baņa ezin bere bařuko ařa ito, ta deadař egiten

(1) Deum time, et mandata ejus observa; hoc est enim omnis homo. (ECCL. 12, 13).

(2) Melius illi erat, si natus non fuisset homo ille.

eutsan: «Ondo zabilzaz orain, ¿baña gero?»
 Deadaí onek ixiltzeko, esan eban bere ar-
 tean: «Éregiña izan nadiña be'ogeí urtean;
 eta gero beto' inpernua, nai ba-dau. Igaro
 ziran be'ogeta bi urte, il zan; eta Londres'-
 tik igaroten dan Tamesis'ko ibayan, entzun
 ei-ziran berba onek: «Be'ogeta bi urteko
 éregetzea ta betiko inpernua». ¿Zer dautso
 orain Éregiña érukaí o'eri munduko bere
 aberastasun, entzute, agintza, atsegin eta
 euki eban beste guztiagaitik?

Baita neu be aurkituko naz, urte gitxi
 ba'ru, oe baten etzunda, arnasa-oska, mun-
 du ta betikotasunaren erdian. ¿Zer uste izan-
 go dot orduan, euki dodazan aberastasun,
 atsegin eta beste munduko palagu guztia-
 kaitik? Eta olan da guzti be, euren atzean
 nabil, gau ta egun geratu barik, ainbeste
 alegiñegaz, beste zeregiñik ezpa-neuko lez,
 neure arimatxo au zokondo baten, mantaí
 zata'ra lez baste'iturik itxita?

¡A, ze negarga'ia olakoen egoerea!
 ¡Zelan samintzen daben Jesus'en Biotza!
 Begiratu Jesus'ek mundu zabal guztira, ta
 ikusirik Berak egin daben gizona, Bere
 Odolagaz erosi dabena, Bera'gandik al-

dentuta, Bera baño mundua maiteago dabela; abere bat lupetzan lez, mundu onetako atsegiñetan sartuta, Bere biotz samur guztia atsekabeturik, diño: ¿QUID PRODEST HOMINI, SI MUNDUM UNIVERSUM LUCRETUR, ANIMÆ VERO SUÆ DETRIMENTUM PATIATUR? ¿Zer deutso gizonari, mundu guztia irabazi aŕen, bere arimea galtzen ba-dau? Da esatea: Gizonitsuak, lurkoyak, ¿zek zarabiltzez ain zoratirik lur onetako gauzen atzean? ¿Batuko al-dozuez munduko aberastasun eta atsegin guztiak? Eta guztiak batuta be, izango al-dira betiraunekoak, zure arimea lez? Eta betikoak ba-lira be, beteko ete-leuskizue zeuen biotzean Neuretzako daukazu- en utsunea? Ba, jakiñik ez dozuezala batuko ondasun eta atsegin guzti oŕek; jakiñik guztiak batu aŕen, ez direala izango betikoak; jakiñik betikoak ba-lira be, eleuskizuela beteko biotzik, ¿zegaitik zabilte ain alegin andiakaz euren atzean, Ni, zeuen eskuetan naukazuen benetako ta betirauneko zoriona basteŕ baten laga-ta?

Eta zuk, ene arima maitea, ¿zetara zuzentzen dozuz zeure alegiñak? Zeren atzean zabiltezaz? Luŕeko gauzen ostean ibili za-

rien aldi guztia, alpeñik galdu dozu; zeure arimea salbaten emon dozuna, axe bakañik ondo emon dozu. ¡Ia, ba, emendik auñera zetan darabiltzun!

¡Arimea salbatea! ¡Auxe bai-dala zure benetako arazoa, arazo nagozia, bakaña! Beste arazo guztiak txarño urtenda be, onek ondo urteten ba-deutzu, guztia irabazi dozu; ostera, beste guztiak ondo urten añen, onetxek bakañik txarño urteten ba-deutzu, guztia galdu dozu.

Begoz nai dabezanarentzat ondasunak, atsegiñak, baita osasuna bera be: niri ez ukatu, Jauna, neure salbaziñoa. ¡Andra-Mari deun - deuna, Zeu zara salbauko diranen itxaropena-ta, salbau nagizu!

BIGAÑEN ATALA

Salbateko arima bat baño eztaukat.

Osasuna nai ondasuna galduañen, itxaron neike nundik edo andik bañiro etoñi leikedazala. Baña arimea, bein galtzen ba-dot,

betiko galdu dot. ¡A, salbaziñoa bein bakañik jokutzen da!

Ganera, esku bat nai oin bat ebagiten ba-deuste, beste bategaz geratzen naz; begi bat galdu añen, beste bat daukat: baña ¿zenbat arima daukadaz? Bat bakaña. ¿Eta arima bat bakañik euki, ta bera bein galtzen badot, betiko galduta egon, eta bera galtzea, guztia galtzea izan; eta alan da guzti be ain ardura gitxikoa naz? ¿Ain gitxi estutzen nau gogakizun (pentsamentu) onek?

Aita Santu Benito XII-gañenari eskatu eutsan Alemaniako Agintariaren zaldun bateg, pekatu barik emon ezin eutsan gauza bat; eta Aita Santuak erantzun eutsan: «Esa-yozu Agintariari, arima bi baneukaz, bata emongo neuskiola berari, ta besteagaz neu geratuko nitzakela; baña bat bakañik daukadan-ezkero, neutzat gorde beañ dodala».

Auxe berau erantzun beañ deusat, ba, neuk be, norbaitek, nai dala adizkidea, nai ongilea, aita, zein ama, pekatu barik ezin emon neikioen gauzaren bat, eskatzen deustenean.

IRUGARĒN ATALA

Salbatea gauza gatxa.

Arimea salbatea, arazorik andiena izan aġen, eġeza balitz, elitzake ain aġigaġia izango, gizonak alagiġa aztuta eukitea. ĶBaġa eġeza ala gatxa da arimea salbatea? Esan daigula Jesu-Kristo gure Jaunak. Itandurik ikasleak: «Jauna, Ķgitxi al-dira salbaten diranak?» erantzun eutsen: «Alegindu zaiteze, *ate estutik* igaroteko». (1). Estua deitzen deutso Jesu-Kristo'k zeruko ateari; munduak zabala dala diġo: Ķnori ziġistu beaġ dešsagu?

Eta beste bein: «Ate zabala ta bide nasaya da galdumendirakoa, ta asko dira, bertatik sartzen diranak. ĶZein ate estua ta bide bedaġa bizitzara daroana, ta gitxi dira, aurkitzen dabenak!» (2).

ĶEstutu egiten zaitu egi gaġatz onek? Azkoġtu ta poztu be egin beaġ zaitu: ĶEzteutzue esaten mundu-zaleak, zegaitik yoaten zaran ain saġi jaunartzera? ĶZegaitik alde egiten

(1) Contendite intrare per angustam portam. (LUC. 13, 24).

(2) Lata porta, et spatiosa via est, quæ ducit ad vitam; et pauci sunt, qui inveniunt eam. (MATTH. 7, 13. 14).

dozun besteak doazan ariskuzko tokitik? Eta ez tirautzue oretxegaitik *raro* bat zarala, beste guztiakandik igesi zabiltzala? ¡Poztu zaitetz! Gitxi doazan bidetik zabiltz, salbaziñoako bidetik zabiltz. Beste batzuk, konfesoreak nai gurasoak esandakoan zegaitik soaz oñako edo alako batzañ nai bidetara, erantzuten deutse: «Beste guztiak be an izaten dira». ¿Bai? ¿Asko dabiltzan tokitik zabiltz? Bide zabaletik zabiltz, inpernuko bidetik.

Lenengo kristařak egunero jaunartzen eben; guztiak arima bat baño ezpa-euken lez, alkař-maite ziran; eukezan solo, etxe ta enparauak saldu, ta euren dirua Apostoluen oñetara, gauza uts bat lez, jaurtiten eben. ¡Onek bai eskuan eukiko ebela euren salbaziñoa! ¿Bai? ¿Zer zirautsen San Paulo'k? «Bilduř-ikaraz alegindu zeuen arimea salbateko». (1).

Olako santuak bilduřtu beař ba-ziran, ¿zer egin beařko ete-dogu guk, pekatariok?

¿Eta Eleizako Guraso Santuak zer dirauskue? San Jeronimo bere arimea salba-

(1) Cum metu et tremore vestram salutem operamini. (PHILIPP. 2, 12).

tearen, joan zan bakartegira; an gitxi jan, gitxi lo, gorputza azala azuren ganean ebala euki-aren, arimearen kontra jagi etzeitean, ari andi bategaz jo ta menderatzen eban. Gero, Eleizearen arerioei gogor eutsiteko, irakuri orduan ezagutzen ziran libururik geyenak, berak be egin beste bari asko, asmau Anaidi (Ordena) bat, Eleizeari ainbeste lagundu deusana ta zartzaroan ¿zer ziñoan? ¿Eskuan eukala zerua? ¡Ez, ez! «Ni, diño, pekatari erukaia au, bildur-ikaraz nago, noiz etoriko ete yatan neure gogakizun (pentsamentu), gurari, berba ta egikizun guztien kontu estua emon beako dodan ordua. Durundi egiten deust neure belarrietan jui-zioko turuta (tronpeta) ikaragaiaik».

¡Ai, nire erukaia! ¿Santuak bildur dira, ta ni, pekatariau, ez? Mundutik urun bizi diranak bildur; ¿eta ni, pekatua baño ez ikusi, ez entzun egiten eztan lekuan, aixea bera pekatuz atsituta dagon munduan, bildur ez? Zarak, odola ilda daukenak, bildur; eta ni, pekatuaren berotasunaz odola irakiten daukadan au, bildur ez? ¿Nundik yatorit, pekataria izanda, santuak ezeuken ziurtasun au? ¿Zenbat bidaia, ene arimea, daia - daia ipiñi

zaitu gomuta onek *salbauko ete-naz?* ¿Zenbat bidaí loa galdu erazo deutzu? ¡A, ezagun da, motela dala nire ziñismena!

Auzi bat daukagunean, beti gagoz estu, lorik be askotan egin ezinda. Ba geure salbaziñoko auzia daukagu, guztiok betiko zori-
oneko, ala zorigaiztoko izango ete-garan; eta ¿zelan bizi gara zabal-zabal, zelan egiten dogu lo bake-bakean, pekatuan egon da?

LAUGAÑEN ATALA

Nai ba-dot, salbauko naz.

¡Arima estua! ¡zabaldu, poztu zaitez! Arimearen salbaziñua gatxa da, ¡egia! Baña Jaungoikoaren laguntasunaz, nai ba-dot, eskuan daukat. Aberatsa izan nai añen, askotan ezin izan; osasuna nai bakea opa izan añen, ezin euki. ¿Baña salbau nai dozu? Salbauko zara. Eskeñak, Jauna, beañen doguna, zeure laguntasunaz, geure eskuan itxi deuskuzulako. Akiño'taí Santo Tomas'i itandu eutsan bere añebeak: «Jakituna zara-

ta, esaidazu, ¿salbateko, zer egin bea' dot?»
«Nai izan», erantzun eutsan.

¡Bai! ¡Baña benetan nai izan! Eta nik benetan nai dot salbau? Ezteyala erantzun miñak; egikunak erantzun dagiela. ¿Zer egiten dot, salbateko? Pekatu aztunean jausten naz? ¿Eztot a'izkuetatik igesten? Sakramentuetan emoten diran inda'rbideak, eztoz artzen? ¡Eztot nai salbau! Egiten dozuz, ene arimea, gauza onek? ¡Poztu zaitez! Gatxa da salbatea, baña o'etara bazoaz, zeure ba'ruak berak, edo, obeto esateko, zeure ba'ruan daukazun Espiritu Santuak, emongo deutzu ziurtasuna, onako gauzetan euki leikeanez, bakean biziteko bestekoa. ¡A, eztago ziurtasun ori lako estegurik! Munduko jolas eta atsegin guztiak baño gozoago ta ezitsuagoa da.

Izan dedila, ba, auxe neure gogapen (pentsamentu) nagosia: «Salbau neure arimea». Galdu dedila, bea' bada, osasuna, ondasuna, etxea, baña neure arimea ez. Burdiña gori bategaz idatzi (eskribidu) bea' geunke guztion bekokietan: «Salbau zaitez». Etxeko ormetan be letra andiakaz ipiñi bea' geunke: «Salbau zaitez». Oerakoan auxe izan dedila gure gogaketea; oetik jagitaldian,

ekari ostera be gogora; euki egi andi au buru-biotzetan ondo josita; ba, azkenez, salbaten bagara, guztia irabazi dogu; kondenaten bagara, guztia galdu dogu.

¡Jesus, ene Salbatzaile maite ori, salbau nagizu! ¡Ni salbatearen, zerutik luera etorri zinan; ni salbatearen, igaro zenduzan ainbeste zigorikada, arantzazko koro gogofa, kurutzea bera! Ez deitezala, ba, ainbeste neke alpeirik galdu. Lapurari entzun zeuntsan, baita Maria Madalatarari parkatu be: parkatu niri be, ta salbau nagizu. ¡Andra Maria! salbaten diranak, Zeuk lagunduta salbaten dira; Zeure guraririk biziena Zeure semeok salbatea da; salbau nagizu, ba, mesede andi onen eskerak emoten, Zeure ondoan egon nadin betiraun guztian.

Salbaziñoko lenengo jazo.

San Felipe Neri'tarak, bea baño geyago mundua maite eban abadegei bat, Pranzisko Zazzora, Erroma'n ikusita, esan eutsan: — ¿Zer uste dozu gero egitea? — Ordendu. — ¿Eta gero? — Al dot-eta, kanonigo edo izan. — ¿Eta gero? — Urean obispo be. — ¿Eta

gero? —Nok daki Kardenal izango banaz be? —¿Eta gero? — Etzan azartu gaztea gorago igoten; eta orduan dirautso santuak: «eta gero, edo salbaziñoa, edo kondenaziñoa; edo betiko zerua, edo betiko inpernua.» Sartu yakazan gazteari berba onek biotzaren bañu-bañura, ta andik añera, San Felipe beraren Eleiz-batzañean sartuta, santutasun andian bizi izan zan.

¡Beste amaikarentzat be izanda “gero” au santutasunerako zimendoa!

Bigařena. Gure Aita San Inazio'k, gero Jabieř'ko San Prantzisko izan beař zan mutil gazte mundu-zaletxoagaz ostatu baten bizi zala, bakañean artuta, zirautsan sařitan: «¡Jabieř! mutil gazte, zolia, jakituna, entzuteduna, etořkizun andikoa zakustaz. Zabalzabal daukazu zeure añera mundu guztia. Baña zer deutzu mundu guztia irabazi ařen, zeure arimea galtzen badozu?» Prantzisko'k entzun, bai; jaramon, ez. Baña bein Jesu-Kristo'ren berba esakuratsu onek bere belarrietatik bañura sartzen yakazan bitartean, sartu yakan bere arimara be argi baři bat, iñoiz, ain bizi beintzat, ikusi ez ebana, zeruko argia. Argi edeř onegaz ikusten dau, egia

zala Loyola'ko semeak zirautsana, aldatzen dau bere bizikerea, ilabete osoan egiten ditu Ejertzioak, lenengo iru egunak baru-barurik; lotuten ditu sokaz iztañak, ilteko arian geratu arte, dantza-zalea izan zalako; ta azkenez, India ta beste Ereiñu askotako apostolu egin-da, bere arimeaz ganera, beste iru miloi inguru salbau ebazan.

Egin dagidan neuk be sañitan: ¿QUID PRODEST? ¿*Zer daust niri?* au edo bestea euki añen, neure arimeā azkenean galtzen badot? Eta ¡ziuñ! salbauko naz.



Irugarren Gogartea

BESTE IZAKI (CRIATURA) GUZTIEN
AZKENA.

JAUNGOIKOARI AURKEZTUTEA. — GERT - OTOITZA
ta TOKI-IRUDITZEA, lengoak.

ESKAKIZUNA:

Ezagutu dagidala, Jauna, bañu - bañutik,
gauza guztien azkena, ta oñetarako bakañ-
bakañik artu dagidazala.

*Luñaren ganeko beste izaki guztiak
gizonarentzat (Jaungoikoak) sortuak dira,
izendauriko azkena yadisten lagundu da-
gioen.*

LENENGO ATALA

Izaki guztiak Jaungoikoak sortuak dira.

Izakiak eurenez eztauke izaterik. Oin badauke. Besteren batek emon deutse; orixe da, ba, Jaungoikoa: *Ziñisten dot Jaungoiko Aita, zeru-luñen Egile...*

Guztiak egin ditu Jaungoikoak, baita eurenez txarrik diranak be, barbarako, itsutasuna, gaizoa, eriotzea (1). Okererik ezin egin lei; baña egiten itxi bai. (2).

BIGAREN ATALA

Gizonarentzat egin ditu.

¿Zetako egingo ebazan Jaungoikoak ainbeste izaki? Ez beretzat, eztaukan gauzarik emoteko, guztia dauko-ta. Aingeruentzat bez; ba gotuts, gogo edo espiritu utsak izanik, ezin bete leikioez euren beañizanak gorputza baño

(1) Creans malum ego Dominus. (ISAÍ. 45, 7).

(2) Si erit malum in civitate quod Dominus non fecerit. (AMOS. 3, 6).

ezi-auken munduko gauzak. Gizonarentzat bakarrik, orduan, egin ditu. Eta alan ikusten dira zein egoki yatorikazan: batzuk yatekoa, zein edatekoa emoten deutse; soñekoa, besteak; onek arerioakandik bere burua zaintzeko ditu; arek jolastuteko, ta alan. Oretxegaitik mundua gertuta gero, sortu eban gizona Jaungoikoak; eta azken-juizioan, gizona mundutik atera dagianean, mundua be ezerbeztuko dau. Mundua gizon barik, jaube bako jauregi eder bat baño ez da.

Begiratu, ba, zein maite izan zaituzan Jaungoikoak, eta zein anditzat zaukazan, jauregi ain andi, eder, apaindua, zeutzat egin daben ezkerro. ¿Zer dauke zer ikusi munduko Erege ta agintari guztiak eurentzat egin daban jauregiak, Jaungoikoak zutzat egin daben onen ondoan?

Jauregi ain eder au eginda, ba, artu Jaungoikoak Adan, erakutsi bere anditasun eta edertasun guztia; ta gero, soldauak Eregen aurretik igaroten diran lez, abere guztiei banan-banan bere aurretik igaro eraginda, esan eutsan, ipinteko bakotxari bere izena, izena ipinteaz eurakan eukan jaubetasuna adierazoteko.

Jaso, ba, ene arimea, zeure begiak zeruruntz; eta ainbeste izañ edeñ ikusten dozuzanean, gogoratu euren kiñoakaz esaten deutzuela: «¡Urlia! zeureak gara, zeure ta gure Jaunak zeutzat emonikoak». Luzatu gero zeure ikusmena inguru guztietara; ta ikusirik aizea egaztiz orniduta, luña patari, zugatz, lora ta añi edeñez apainduta, itxasoa ainbeste ur eta bertan dabiltzan arañez beteta, edeñtuta, entzun zelan dirautzuen San Agustin'i lez: «Begiratu zenbat, zein desbardiñak, zein edeñak egin gaituzan Jaungoikoak; baña guztiok zeutzat».

IRUGAÑEN ATALA

Luñaren ganeko izaki guztiak gizonarentzat sortuak dira, izendauta daukan azkena yaristen lagundu dagioen.

Ikusi dogunez, Jaungoikoak gizonari izendau deutso azkentzat bera goretsi, jau-
retsi ta otseindutea. Oretarakoxe, zelanbait,
zuzentzeko emon izango deutzaz, ba, izaki
guztiak; bestela alpeñikoak izango litzakioz;

geyago ondio, kaltegarñiak, euretariko askok aldendu baño eztabe egiten eurenez-da.

Guztiak, orduan, zelan-alan, lagundu alizango deutse gizonari bere azken au lortuten: zeruak euren izañakaz; aizeak, bere otz-bero ta egaztiakaz; itxasuak, bere añañakaz; gizonak, euren al-izate, nai ezer-ezagaz, edertasun eta itxusitasunagaz; gurasoak, senideak, lagunak, auzokoak; eria bizibidea, aberastasuna, ezeukia, osasungaizo, atsegiñ-atsekabe, bestien ezin-ikusi, gauzen okeñ-etoñte ta bizitzako beste gorabera guztiakaz; baita neure izakera (genio) txañ eta neure etxekoena be. Eztago iñor, ez ezer, azken goratu onetara zuzendu ezin leikeanik, ez Jaungoikoak onetarako egin eztabenik.

LAUGAÑEN ATALA

**Azken au yaristen, zelan laguntzen
deutsen.**

Iru eratara laguntzen deuskue izaki guztiak gure azken onetarako.

Lenengo. — *Jaungoikoagana gogoa jasota.* Eztago ezer luzean, dan txikien eta itxusienik be, edertasun geyago edo gitxiago Jaunagandik artu eztabenik. Ederitasun ori, orduan, Jaungoikoagan zelanbait egon bea da. Eta olan, gauza orek euren edertasun ori erakustaldean, deada egiten deuskue, San Inazio'ri lorak egiten eutsen lez: «Ara zein ederak egin gaituzan Jaungoikoak; ikusi zein ohea izango dan Bera». Olan, ba, gauza guztiak laguntzen deuskue Jaungoikoa ezagatu, goretsi ta jauresten.

Bigaren. — Gauza guztiak laguntzen deuskue geure azken onetarako, *neuriz artuaz.* Berbarako; artzen dot jatekoa, nai loa, zein jolastutea, Jaungoikoak nai daben lez, au da, bizi, osasun eta indarai iraun eragiteko; ta jatekoak, loak eta jolasak Jaungoikoa otseinduteko, bere gogoa beteteko, laguntzen deuste.

Au gauzak atsegingariak diranean. Mingariak badira bari, eutsiaz, igaroaz, laguntzen deuskue. ¡Gaizo bat yator? ¡Eutsi! eta Jaungoikoagana naroa. ¿Otz nai bero naz? ¿Eztaukat nai neukeanik? ¿Txarto egin deuste? ¡Eutsi! ta ezek baño obeto Jaungoikoagana eroango nau.

¿Baña eztagoz gauza asko, Jaungoikoa-gandik aldenduteko, biotzetik tira egiten deuskuenak, ofetarakoxe egiñak balira lez? ¿Onek be Jaungoikoaganako laguntzale doguz? ¡Baita! ¿Zelan? *Eurakandik geu urunduaz.* ¿Lagun txar bat daukazu? Urundu beragandik, eta Jaungoikoagana ureratuko zaitu. Ikusten dozu zerbait biotzean su txara ixiotuten deutzuna? ¡Urundu!, berak zeu Jaungoikoagandik aldendu baño lenago; ta Jaungoikoagana igoteko maladia (eskilerea) izango dozu.

¡A! ¡Jauna! ¡Ondo gogo biziz nai dozu gure salbaziñoa, bera yarizteko ainbeste gauza, ta ain edeñak eta ain andiak sortu deuskuzuzanean! Eta zelako eskeñak ezteutzudaz zoñ izango, Zeugana igoteko ainbeste bide ipiñi deustazuzan ezkeror? Eta ainbeste emon, eta zerbait geyago emon ezteustazulako, Zeurre kontra, ta, onenean, birauka abiauko nayatzu? —Alpeñikoak dira nire akiakula ta atxakiak, ona enazalako erua ezartzen deutsedanean ezeukiari, gaizoari, etxekoai, auzokoai, izakera (genio) txarari, nai beste edozeri. Guztiak, okeñik geyen dakañden gauzak, aize gogoña poparian daroan ontzientzat lez,

zeure kai gozatsura ariñago eroateko baño eztira. Laguntzen ezpadeuste, eragozten badeuste, neurea da eñua, bea' diran lez, Jaungoikoak nai daben lez, artzen eztodazalako.

B O S K A Ñ E N A T A L A

Emendik ateraten da, diño San Inazio'k, gizonak artu bea' dabezala izaki guzti onek, zelan bere azkenerako laguntzen deutsen, alan; eta eurakandik aldendu bea' dala, zelan azken ori galerazoten deutsen, alan.

Ikusi dogu, luñaren ganeko izaki guztiak geure azken onerako bitartekoak baño eztirala. Bitartekoa bañiz **zelan** azkenerako lagundu, **alan** artzen da. Aizkorea, berbarako, ebagiteko izanik, zelan ebagiteko laguntzen daben, alan artzen da; baita jostotatza ta beste gauza guztiak be, zer egin nai dogun begiratu, ta oñetarako egokienak artzen dira; laguntzen eztabena itxi, ta ondoen laguntzen dabena artu. Izanik, ba, izaki

guztiak gure azken onetarako bitartekoak, ederito erabagiten dau San Iñazio'k, **zelan** geure azken onetarako laguntzen deuskuen, **alan** artu bea' doguzala.

Oregaitik, gañeratzen dau San Iñazio'k, bea'-bea'ekoa da, geure aukeran, au da gebendu edo prohibidu barik, daukaguzan izaki guztietan, batera ez bestera egin barik, erdian egoteko alegin egitea; osasuna, gaizoa baño geyago, nai izan barik; ez aberastasuna, ezeukiaren aldean; ez izen ona, izen txara baño geyago; ez bizitza luzea, laburaren ganetik; eta alan beste gauza guztietan; bakarik nai izan eta aututen dogula, izendaurik daukagun azkenera ondoen zuzentzen gaituzana.

Argi ipiñi deusku San Iñazio'k, luraren ganeko izaki guztiak, geure azkenetako bitartekoak baño izan ezik, *zelan* onetarako lagundu, *alan* artu bea' dirala.

Ba'iz, len ikusi dogunez, *artuagaz* laguntzen deuskue batzuetan; beste batzuetan, *itxiagaz*. Gauza bat yatoit, eta eztaikit artuagaz, ala itxiagaz, lagunduko deustan. ¿Gauza onetarako, zelan egon bea' naz? Eta diño San Iñazio'k; *ez artu ez itxi barik;*

azta (pixu) bat lez, *erdian* ez batera ez bestera egin barik, arik-eta artuagaz, ala itxia-gaz, laguntzen deustan ikusi arte. Doa bat Bilbo'ra, aurkitzen ditu bide bi, eztaki zeñek eroango daben obeto. ¿Zer egiten dau? Ez bata, ez bestea, artu; uts egin eztagian; Bilbo'ra joateko, zeñek obeto laguntzen deustan, agertu arte. Salbaziñorako bidean be beste oñen beste egin bea' dogu.

Gauza argia ta bidezkoa izanik San Iñazio'k diñoana, e'ez da esaten: ¡Bai! egia da; emendik au'era, *zelan* salbaziñorako lagundu, *alan* artuko dodaz gauza guztiak, ez bestela.

Baña gauza guztiak batean artuta, e'ez da esaten, erdiratuta gagozala; ta olako utsik emon barik, erdirapen (indiferencia) onetan zelan gagozan ikusteko, lau gauza, gogo'oenak, ipinten deuskuz San Iñazio'k, lengo berben ostean esanaz:

Ain ze, geure aldetik, eztogu nai izan bea' osasuna, gaizoa baño geyago; aber-astasuna, ezeukia baño; entzute ona, entzute txar'a baño; bizitza luzea, labu'ra baño; bakar'ik nai izan eta aututen dogu-la, izenda'urik daukagun azken'era ondoen garoazana.

Eztiño Santuak osasuna ez beste aitatu dabezan gauzak, eztoguzala zaindu bea; gitxiago ondiño, osasuna batetik eta gaizoa bestetik auez ipiñi-ta, ari bat lez geratu bea gareala, osasunaganako zaletasuna, ta gaizoganako iguiña asmau (sentidu barik). Diñoana da, begiratu geizoari, ta salbaziñorako ona dala ikusten ba-dogu, artu egin bea dogula, aragiaren iñintziaz, osagañi mingotza emoten yakan umearen gañaziaz baño geyago jaramon barik. Eta alan izendau diran gauzetan, eta beste guztietan; ezka gozalako munduan aragiak zer nai daben edo eztaben begira ibilteko, ta bai bakañ-bakañik geure arimea salbau, ta geroago ta obeago egiteko.

Egi onetantxe ipiñi eban San Iñazio'k bere santutasun ain itzalaren zimendoa. Egi au bañuan sartu yakonetik, ez eban aztu bere egikizun, asmo, atsekabe, ibilera, berba ta gogapenik (pentsamenturik) txikienetan be. Ormagiñak berunagaz lez, beronegaz neurtzen ebazan Jesus'en Lagundiko jauregi goratua egiteko ipinten ebazan añirik txikienak be. Guztia AD MAJOREM DEI GLORIAM: *Jaungoikoaren Goraltzerako*; au da, neure ari-

mea ta bestienak be salbau, ta santutasun andira eroateko. Egi edeñ, indaitsu onen bidez, lengo gizon zara ezerbeztu, ta bere tokian beste bari, zerutañ, Jaungoikozko bat ipiñi ebala esan lei. ¡A zelan onetsi (bedeinkatuko) daben zeruan, Jaungoikoak egi andi au agertu eutsan ordua!

Bai zeuk be, ene arimea, zure sentzunak zer nai daben begira, abereak lez, ibili barik; Jaungoikoagana zek zaroazan edo beragandik zek aldenduten zaituzan gauza bakotxean begiratuko bazeunke; ¡a zelako santutasuna, zelako bakea, zelako azkatasuna eukiko zeunken zeure baruan!

Jaungoikoak alan nai izan dau! ¡Zeberba edeña, ze gozatsua gure atsekabeetan! Ez beste gozagañirik bilatu; eztau Jaungoikoak ipiñi.

Egia da, Jauna. ¡Amaika bidar poztu nau neure estualdietan, neure gogoan idatzi deustazun egi maitegañi onek: ¡Jaungoikoaren guraria da!

Oñartekoaz damututa, erabagiten dot, Jauna, apuñka-apuñka asiko nazala, gauza bakotxean, nagosietan beintzat, ikusten, ez zer nai daben edo ez nire aragi zital, arerio

andi, pekatuaz okerturiko onek; Zeuk, zuzentasunaren jatorri orek, zer nai dozun baño.

¡Andra Maria, neure Ama laztana! Zeu izan zara bakar-bakarik, gauza guztietan, txikienik be itxi barik, **zelan-alan**'go neuri au bete-betean gorde dozuna. Egidazu itxirik neure belarriak griña txaren deadañai, edegi dagiodazala bakarik Jaungoikoaren deyari, neuri onegaz, San Iñazio'ren eta Zeure antzera, eregi dagidan neure santutasuneko etxetxo.

J A Z O A

Gure Jesus'en Lagundiko anai joskile bat egoan ilten, nagosi ta beste anai askogaz inguratuta. Eta orma-zulo bat izendauta, diño: — «Ekañi or daukadan jostoratza». Albokoak: — «Burutik egiten dau». — «Ez, Jaungoikoari eskerak, zur nago, ekañi jostoratzi ori». Eskuan artzen dau, ta: — «Jostoratzi au zeruko atea edegiteko giltza izango dot; ez tot joste bat egin, Jaungoikoa goraltzeko izan ezik».

Darabilguzan geuk be oretara izaki guztiak, eta zeruko giltz izango doguz.



Laugarren Gogartea

IRU PEKATUAK

JAUNGOIKOARI AURKEZTUTEA ta GERT - OTOITZA,
lengoa.

TOKI IRUDITZEA:

*Begiratu neure arimea, diño San Iñaziok,
gorputz onen baruan espetxe (presondegi)
baten lez, eta gorputz-arimak erbestetuta,
abere-artean.*

Gizon - gorputzak ez eban urten Jaun-
goikoaren eskuetatik oin dan lakoa, ustel-
koía, ilkoía, gose-egañi, otz-bero, ta beste

naibage guztiak beragan daukazana; pekatuak oretara ipiñi eban. Eta arima au gorputzean espetxe (presondegi) baten lez dago. Espetxean zer dago? 1.^o *Iluntasuna*. Bai neure ariman be, ja zelako iluntasuna, Jaungoikozko gauzak ezagutzeko! 2.^{en} *Aukerarik-eza*, gauza askotarako, eztaukan lez nire arimeak be saritan, gorputza menderatzeko, Jaungoikozko gauzai geyago emoteko, ta alan beste askotan. 3.^{en} *Atsa*, aurkitzen da espetxean. Eta nire ariman eztago atsik? ¿Zer dira gogapen (pentsamentu) ta gurari txarrik, nire arimako oxin zikiñetik urteten dan atsa baño?

Eta gorputz-arimak erbestetuta, abere-artean; atsegindegi (paraisoan) Jaungoikogaz bizi beari nitzan au, abere bat lez egin da, euren janaria neutzat nai dodala. Eta egoera erukañi au pekatu baten, Adan'en pekatuaren eru-saria (kastigua) da. ¿Zer ete da pekatua?

ESKAKIZUNA:

Eskatu, diño San Iñazio'k, neure buruaganako lotsea, ikusirik zenbat sulezaratu

(kondenau) *diran pekatu aztun bategaitik, eta zenbat bidar sulezaratu bear nitzan nire ainbeste pekatugaitik.*

LENENGO ATALA

Aingeruen pekatua.

Gomutau dagidan aingeruaren edertasuna. **Izatez** ezta gu lez aragi ta gogo edo espirituduna, gotuts, espiritu utsa da. Guk ariai ta gogorik eztauken beste gauzai egiten deusagun aldia, axe bera eurak guri egiten deuskue. Bere *adimena* zolia, aurian ipiñiaz beste barik gauzak ezagutzen dabezana, ta ori bat-batera, argi, ta neke barik; ez, guk lez, aldi asko emonda, ta neke andiaz eta ilun. Bere *naimena* (borondatea) sendoa, ez gurearen antzera, aixe-oratza lez, batera ta bestera dabilena. *Indaia* arigaria; aingeru batek artu ta jaurtiko leuke itxasora mendirik andiena. Au izatez.

Izatearen ganetik, grazia, birtute, eta Espiritu Santuaren doez bete ebazan Jaungoikoak: santu gitxi, neke ta laztasunezko bizitzan urte asko emon afen, eltzen dira

aingeruen mañara .Eta olan Ezekiel Igañla Santuak ari edereñ apainduta erakusten deuskuz aingeruak. San Juan Ebanjelariak aingeru bat ikusi eban; eta Jaungoikoa bera baliz lez, asi zan agurtuten: ¡ze edeña agertuko yakan!

Aingeru ain ederen artean egoan bat, Jaungoikoak berak *Luzifer*, au da, argitsua, izentzat emon eutsana, beste aingeru guztien artean, goizeko izañak beste izañen artean lez, argi egiten ebalako. Edozein aingeru ain edeña bada, ¿zelakoa izango ete-zan Luzifer? Ain ze edertasunetik galbidea sortu yakon. Begiratu bere buruari, ikusi ain edeña, ta egin eban beragan: ¿Zer? ¿Nazana izan, eta iñoren mendean egon? ¡Ez! Jagiko naz nagon tokitik, igaroko dodaz izañak, ipiñiko dot neure jañlekua Jaungoikoaren jañlekuaren ondoan, eta Gorena'ren antzekoa izango naz.

Gogapen (pentsamentu) txar bat; besterik ez eukan ondiok; baña naimenak (borondateak) ez eban kendu, leku emon eutsan: egin eban gogapenezko pekatu bat. ¡Pentsamentuzko pekatua! ¡Pentsamentua gauza ariña da! ¿Bai? ¿Gogapen (pentsamentu) oni

leku emonda batera, bakizu aingeru ain edeña zer biurtu zan? Inpernuko deabrurik baltz eta itxusiena. ¿Bakizu, orduan, zer dan inpernuko deabrurik baltzena? Zeruko aingerurik edeñena, gogapenezko pekatu bategaz. Kendu deabrurik itxusienari gogapenezko pekatu bakañ ori, zeruko aingerurik edeñenatarikoa eukikozu. Ezañi zeruko aingerurik edeñenari gogapenezko pekatu bat, eta deabrurik baltz eta ikaragañien biurtuta ikusikozu.

¿Eztakutzu, ba, argi-argi, ene arima maitea, eztala pekatua, naita gogopen (pentsamentu) utsezkoa izan, zuk uste dozun baizen ariña?

Naikoa ta lañegi be zeatu (kastigau) ebala Jaungoikoak, esan lei, lenengo egin zan pekatu au. Baña ez yakon berari ori eritxi. Ikusi ebanean aingeru deungen gaiztakeria, sortuten dau inpernua, lotzen ditu, San Pedro'k edeñto diñoanez, pekatuzko lokañiaz, eta artu ta jaurtiten ditu inpernura. An dagoz, an egongo dira Jaungoikoa Jaungoiko dan arte.

Eta eñusari (kastigu) benetan ariñagi au ez eutsen emon Jaungoikoak itsutasunez,

zer egiten eban ez ekiala; ezta asarez be, zoř eben baño andiagoa emonda. Pekatuaren gaiztakeria ondo neuftuta emon eutsen; eta zoř ebenetik be ondiok zerbait kenduta, jakitunak dirauskuenez: CITRA CONDIGNUM.

¿Nor ezta Jauna, Zure bildur izango? (1).

Sartu zaitez oin zeure baruan, eta zeure buruari itandu egiozu: Gogopen utsezko pekatu bategaitik ain baltz eta ikaragari geratu bazan aingeru ain edera, ¿zelan egongo ete-zara zu gogapenez, gurariz, berbaz eta egitez ainbeste pekatu egin dozuzan ezkeror? Eta arek erusari (kastigu) ain arigarria artu baeban, zeren zain ete-zagoz?

B I G A R E N A T A L A

Adan'en pekatua.

Bat-edo-batek uste izan lei, aingeruen pekatua beste era batekoa dala, ta gizonakin eztala Jaungoikoa ainbeste asaratuko. Dakusgun, ba.

(1) Quis non timebit te, Dómine? (Apoc. 15, 4).

Sorturik Jaungoikoak gure lenengo Gurasoak, ornidu ebazan, aingeruak lez, aberastasun eta apainduriarik edereenez, bai izatez, bai izatearen ganetik. **Izatez** emon eutsen *gorputz* eder bana, bear ebezan gauza gutietarako ain egokia; *arimea* Irubat (Trinidade) Santuaren antzera egiña. Eurakan batu ebazan, munduan zabalduko edertasun eta aberastasunak. **Izatearen ganetik**, bete ebazan *grazia*, *birtute* ta Espiritu Santuaren *doez*; Adan'en *jakituria* gizon-uts artean izandan eta izango dan andiena zan. Bere *naimena sendoa* ta *zuzena*, Jaungoikoari begira beti egoana. *Gorputza*, osoa au da, ezilkoña, ez gaxo, ez gose-egañi, ez otz-bero, ez beste naibage bakoa, arimearen mendean, apal-apal, ez oin lez berari ostikoka dabilena.

Luñak atera bere erayetatik, eta eskuz lez emoten eutsezan bere ekañi (fruturik) ederenak; abererik uxuenak eta gogoñenak euren mendean egozan. Jaungoikoak, etoñi eurak bizi ziran atsegiñezko baratz, paraisora, ta adizkide batak besteari lez, berba egiten eutsen. Onetara bizi Jaungoikoak nai eban artean, ta gero beragana zerura. Auxezan Adan'ek beretzat eta geutzat Jauna-

ren eskutik artu eban ondasuna (aziendia).

¡Baña ze arin galdu euskun! Deabruak iruzur eginda (engañauta), jaten dau Eba'k Jaungoikoak gebendu (prohibir) eutsan sagaña, geuk oin jaten dogunaren antzekoa; Adan'ek be jaten dau; ta agur' grazia, birtuteak (zinismen eta itxaromena itxita, beste guztiak) eta Espiritu Santuaren doyak; agur jakituririk geyena, ta naimenaren (borondatearen) zuzentasuna; agur gorputzeko osotasun eta bera ta arimearen arteko bakea. ¡Adan erukaña! Luñak itxiko deuz bere erayak, arantzak eta sasiak baño ezteuz emongo; euk eure bea' eta izerdiaz atara bea'ko deutzazak bere bañuan eskutau joazan ekañiak (frutuak). Abereak be, oñoika, eu iruntzi gurarik, ezteuek esanik egingo, euk be Jaungoikoarenik egin eztualako. Gañatza izan dok sagañ a, besterik iñoiz izan ba-dok.

Zelan bera geratu, ala gu mundura ekañi. ¿Nok zenbatu ordutik ona gure ganera jausi diran gatxak? ¿Ze itzala ez litzake izango zabalune baten munduko gaitz mueta guztiak ikustea? Ba ikuskizun añañi ori pekatu baten ekaña (fruta) da: FRUCTUS PECCATI. Batu gero munduan il diran eta azkenerarte ilgo

diran gizon guztien azuñak; Gorbeya'ko mendia baño andiagoa egingo genduke: ¡guztia pekatu baten ekaña: FRUCTUS PECCATI! Ez da ondio naikoa: iruditu zeure bañuan, lauko (kuadroan) lez, munduko guda (geña), asañe, naibage, alkañ-ezin-ikusi, añokeri, alpeñeri ta aragiaren ekandu atsituak. ¿Ur loi guzti onek nundik datoz? Adan'ek bere pekatuagaz loitu eban ituñi edeñetik: FRUCTUS PECCATI.

Geyago ondio: jañaitu bide estu, okeñ, ilun, atsitu bat (alan agertu yakan Santa Teresa'ri inpernuko bidea). Edegi ate goñia; ¿zer dakutzu? Laba gori, zabal, iluna, bertan suzko itxasoa, ta itxaso aren bañuan arimak gora-ta-bera, añañak uretan, babak lapikoan lez. ¿Bakizu zegaitik igaroten dabezan ainbeste oñaz eta atsekabe? Askok pekatu bategaitik. Esan dagigula, orduan, aldabenak, zer dan pekatua, zelan Jaungoikoak goñotatzen daben.

IRUGAÑEN ATALA

Gogoratu, diño San Iñazio'k, irugañen pekatua be, pekatu aztun bakañagaitik inpernura joan danarena, ta beste zenbatu ezin-ala, nik baño gitxiagogaitik.

San Gregorio Andiak diño (ta Eroma guztia dakañ lekuko (testigutzat). Ume batek amaren altzoan egoala, jaurti biraua, agertu deabrua, ta eroaten dau berakin.

Aratu zeuk be, zeure bizitzako liburua. Zortzi, amañ, amabi urte; ondiok ez zenduan loitu Jaungoikoak batio-aldian jantzi eutzun grazizko soñeko zuri edeña.

Baña eldu zan egun bat, egun baltza, benetan negañoña, jai uratuaz kendu albanei neure bizitzako liburutik! Asmau (senti-du) neban neure bañuan gauza bañi bat, ikaratu nitzan; odola, geroago ta beroago; burua, geroago ta ilunago; sartu yatan bañuan pekatuaren ur loi, baltz, atsitua. Orduantxe, begiratu len ain maite ninduan Jaungoikoak, eta bere arerio eginda ikusi ninduan. Asañatu yatan, umetxo aregaz asañatu zan lez. Baña zegaitik ez ninduan inpernura

jaurti? ¡A, ori egin baleu, ¡nire erukaña!
 ¡betiko galduta nengoan! Ez eban ori egin,
 mila eskeñ berari. ¿Baña zegaitik ez eban
 egin? ¿Nire pekatua txikiagoa zalako? ¡Ez!
 Ni maiteago nindualako.

Lagun bik, onenean, pekatu egin gen-
 duan; neu txarago; neuk eragin neutsan pe-
 katu: asaratu yakon Jaungoikoa, jaurti erio-
 tzea, gaur inpernuan dago. ¿Ni nun nago?
 Luñean, Jaungoikoaren añaan, neu besarka-
 tuteko besoak zabalik daukazala. ¡Jauna! au
 gogoratu, ta neure biotzeko indar guztiaz
 maitetzen ezpa-zaitut, ez inpernu bat, mila
 inpernu zor dodaz!

¿Zer egin dozu, Jauna, nire alde? diño
 San Iñazio'k esateko. Gizon egin, zerutik
 luñera etoñi, il neure pekatuakaitik. Eta nik
 Zure alde, Zugandik arturiko mezedekaitik
 eskeñak egiteko, ¿zer egin dot? ¡Pekatu!..
 ¿Zer egiten dot oin? ¿Zer egin beañ dot
 auñerantzean?..

Kurutzeko Jesus'en añaan geratu, ta
 egin berba Beragaz, agertu biotza, eskatu
 beañ dozuna, ta erabagi zer egin beañ dozun.



Boskañen Gogartea

BAKOTXA BEREN PEKATUAK

JAUNGOIKOARI AURKEZTUTEA, GERT - OTOITZA ta
TOKI IRUDITZEA, lengoa.

ESKAKIZUNA:

*Emoidazu, Jauna, damu asi ta bizia, ta
neure pekatuakaitik negar egitea.*

San Iñazio'k nai dabena da, len artu dan
damua geitu ta indartutea; biotzean barurago
sartuta, pekatutik aldendu gaizan; ba arin
artzen dan damua, arin aztu oi-da; ta auxe
da nagosiena gure bizitzan, pekatu aztunari
gofoto biziagaz begiratu, ta iñoiz ez egitea.

LENENGO ATALA

Neure bizitza guztiko pekatuak gogoratze-ko, diño San Inazio'k, auzitegi (tribunal) baten banengo lez, begiraturik urterik-urte nai beste aldiz-aldi. Iru gauzak oretarako laguntzen dabe: 1.^o Begiratu ze eri ta etxetan bizi izan nazan. 2.^{en} Zelako lagunakin ibili nazan. 3.^{en} Zelako bizibide (estadu) edo ogibide (ofizio) euki dodan.

Gauza bi gogoratu bea' dira: Azterketa au ez dala izan bea', autortzeko egiten dana baizen zeatza; andienak gogoratzea naikoa da. Eta bigarena: aragizko pekatuetan ez luzaroegi egon, euren atsak berak gaitz egiten dau-ta, baña bildurik be ez euki.

Sartu zaitez, ba, zeure ba'uan, Jaungoikoaren a'uan; eta biotzeko samintasunaz, asi zaitez zeure urteak gogoratzen. (1).

Txikitan, zer egin neban etxean, kalean, eskolan..? Zelakoa nitzan gurasoakin, lagunakin..? ¡Zenbat ez-esanekotasun (desobediencia), guzur, ezin-ikusi, alpekeri, gofo-

(1) *Recogitabo tibi omnes annos meos in amaritudine animæ meæ. (ISAÍ. 38, 15).*

to! Eta onenean, txikitatik pekatu andiren bat. ¡Zelan esan neiken neure buruagaitik, San Agustin'ek bereagaitik ziñoana: ¡TANTI-LLUS HOMO, ET TANTUS PECCATOR! ¡*Ain gizon txikia, ta ain pekatari andia!*

¿*Gaztetan?* Andiago ta txarago. Laster asi nitzan pekatu aztunak egiten. ¿Zer gogoratzen neban? ¿Zer nai izaten neban? ¿Zer esaten neban? ¿Zer egiten neban? ¡Esan dagiala etxe arek, plaza ta lagun arek! ¡A! Nire gogoa (arimea) ustelduta egoan, eta beragaz eroyan alde guztietara ustel-usaña. Ustel-usaṅak urteten eustan aotik, begietatik, alde guztietatik. Artu dagidazan Amañ Aginduak neure eskuetan; ia izendau neikien bat, sañi ausi ta ostikopetu ez dodanik...

Saspi pekatu erudunak, euren etxean lez bizi ziran nire bañuan... Pekatu egin dot gogutamēn (memoria), adimen (entendimentu), naimenagaz (borondateagaz); esku, oin, begi, belañi, min, gorputzeko zati ta arimako almen guztiakaz. Guztiok emon eustazuzan, Jauna, lenengo gogartean ikusi nebanez, Zeu goratu, ta zeure guraria beteteko, ta nik Zeu iraintzeko erabili dodaz guztiak, onetarakoxe bakañ-bakañik artu banebazan

lez. Esan neike, ba, neure buruagaitik, Isaias Igarleak Judea'ko erriagaitik ziñoana: «Burutik beatzera eztauka zati osorik, (1) Jaungoikoa irainduaz loitu eztanik». Eta Dabid'egaz: «Buruko uleak baño geyago dire nire gaiztakeriak. (2).

Orain, neure baruan sartuta, gogoratu dagidazan gauza bi, ziñismen apur bat daukanari odola zanetan leituta iztekoak: *Lenengoa*: Aingeru txarak, gogapen (pentsamentu) utsezko pekatu aztun bategaitik, deabru biurtuta geratu ba-ziran; ¿zer deabru izan bearko ete-dot nik gogapen, gurari, berba ta egitez ainbeste pekatu egin dodazan ezkerro? *Bigarrena*: Aingeru txarak gogapenezko pekatu bategaitik betiko inpernua euren buruai ekañi izan ba-eutsen, ¿zer etoñi bearko ete-da nire ganera?

¡A! Zer-edo-zer zareala uste izan dozu. ¿Bakizu zer zarean? Begiratu ispilu onetan. ¿Pekatu aztun bat baño eztozula egin zeure bizitzan? Ba deabruak be pekatu aztun bat

(1) A planta pedis usque ad verticem, non est in eo sanitas. (ISAI. 1, 6).

(2) Iniquitates meae multiplicatae sunt super capillos capitis mei. (PSAL. 39, 13).

baño ez dauko. ¿Ogei pekatu aztun egin dozuzala? Ipiñi nik zu albo baten, bestean ogei deabru: zeuk bakarrik ogei deabruk beste pekatu daukazuz.

¿Au jakin eta arrotu egiten zara? ¿Deabru guztien oiñpean egon bea; eta beste guztiak nai dozuz zeure azpian euki? ¿Zu munduko gauzarik loyena, ta guztiak txistu-urtika erabili bea zeunkezana izan; eta esaten deutzen berba gañaztxo bat ezin ondo eroan? Eta Jaungoiko Zuzenaren bildura nun dozu? Aingeruakaz gogapenezko pekatu bategaitik ain gogora izan bada, ¿ainbeste pekatu egin dozuzan ori, zeren begira ete-zagoz?

BIGAREN ATALA

Begiratu obeto egiten dan pekatu baten ezaintasun eta gaiztakeria, gebenduta (galerazota) ezpalego be.

Eztago begiratu baño ordi nai birautiari, ta zikiñari batezbe. Ez dirudi gizona; aberea da; ezañago ondiok.

IRUGAÑEN ATALA (1)

Begiratu zer nazan, gitxituaz; esaterako:
 1.^o ¿Zer naz ni gizon guztien ondoan? —
 2.^{en} ¿Zer dira gizonak aingeru guztien eta
 zeruko santuen aldean?— 3.^{en} ¿Zer da mun-
 du guztia Jaungoikoaz bardinduta? ¿Ba ni
 bakañik zer izan neike? — 4.^{en} Begiratu
 nire gorputzaren usteltasun eta ezainta-
 suna. — 5.^{en} Begiratu arima guztia zauri
 bat eginda.

Ez emen zauri bat, eta an beste bat;
 guztia burutik beatzera zauri bat eginda.
 ¿Eta zelako zauria? *Ainbeste pekatu, ainbes-
 te gaiztakeri, ainbeste eden (bereno) bota
 dabena*. Edena, neugaz batzen ziranak ilda
 izten ebazana.

(1) Iraña (ofensa) neurítuteko, eztaukagu ikustea baño
 zein dan irairduten dabena, ta zein iraindua; ta auxe egiten
 dau San Iñazio'k irugañen eta laugañen atalean.

LAUGARĒN ATALA

Begiratu zein dan iraindu dodan Jaungoikoa, bardindurik bere betetasuna neure ezer-eztasunagaz; bere jakituria, nire ez-jakiñagaz; bere guzti-ala, nire argaltasunagaz; bere zuzentasuna, nire okeferiaz; bere ontasuna, nire gaiztakeriaz.

Auxe baño ez diño San Inazio'k pekatuaren ezaintasuna agertzeko. Baña ori, jakitunak egikizun baten gaiztakeria erakusteko ipinten dabezan saspigauzetatik bata baño ezta, *QUIS, nor dan* egin dabena.

Orain ikusi dagigun *QUID, zer dan*, pekatu egitea. Pekatu egitea munduko gauzarik edereña ta argiena baño edereago ta argiago dan gogoa (arimea), ezin-esan-ala loitu ta ezaindutea da; geyago ondiok; gogoari graziazko bizitzea kentzea. ¿Nok egingo eteleuke pekatu, eginda batera, ikatza baño baltzago, korpu atsitu, geratuko balitzakio gorputza? Ba ez dago ikatzik, pekatuan dagon gogoa baño baltzagorik, ez dago gauza zikiñik ez atsiturik, pekatu aztun bat egin

dabenaren gogoagaz bardintzekorik. Zer ete-dauko pekatuak bere bañuan?

Pekatu egitea Jaungoikoari buruko koroya kentzea da, San Anselmo'ren eritxian; eta, San Bernardo'k dirauskunez, Jaungoikoa il nai izatea. Pekatu egiten dabena, Judea'ak eta Pilatos'ek Jesus'egaz egin ebena, egiten dau. Ipiñi Pilatos'ek Jesu-Kristo alde batean, eta bestean lapu' eriotza-gile, gora-beratzale (revoltoso) bat, Bañabas; eta dirautso enparantzako (plaza) gizon-aldreari: «¿Zein autu nai dozue, Jesus ala Bañabas?» Eta gizon, edo gizon-antzeko deabru arek, erantzuten deutse deada'rez: «¡Ez ori! (Jesus'egaitik); beto'kigu Bañabas». Eta Pilatos'ek: «Jesus'egaz zer egingo dot, ba?»—«Kurutzean josi».

Bai neuk be zenbat bidar ipiñi dodan neure eskuman Jaungoikoa, eske'etan diru apu' bat, atsegin apu' bat. Griña txar'ak deada' egin deust: bata edo bestea autu bea' da; ¿nor autu nai dozu? Eta nik jau lotsaria! «beto' dirua, beto' atsegiña», erantzun dot, pekatu egin dodan bakotxean—¿Jaungoikoa? bego nai dabena'entzat; naikoa Jaungoiko daukat diru onegaz, atsegin onegaz.

Pekatu egitea Jesu-Kristo'ren Odola os-

tikopetutea da, diño San Paulo'k. Nekaldi (Pasiño) Santuan ni aurkitu ta ikusi baneban boñeru gogoñak, euren oin zatañakaz Jesus'en Odol edeña ostikopetuten, egingo neban olakorik? Ba orixe berori egin dot, pekatu egin dodan bakotxean. Azketsi (par-katu), Jauna, nire lotsabagakeri au; betoñ Odol garbitzale ori, neure gogo loi au garbitzeko; pekatuak ekañi deutzazan kalteak osotuteko.

¡Pekatuaren kalteak osotu! Ekaitz edo tenpestaderik indañtsuenak, añaibañik gogoñ-enak solo laborez orituan egiten daben triskantzea, utsa da pekatu aztunak arimeari dakañkion ondamendiagaz bardindu ezkerro. Onoimen (birtute) guztiak, zinismena ta itxaromena geyenez oñean itxita, galtzen ditu; nekaldi, baru, ta beste on guztiakaz ainbeste urtetan batu ziran aberastasunak, guztia izten dau ondatuta, luñ-jota. Negañ egiten dogu añaibañ gogoñak egiñiko kalteak ikusita; ainbat negañ mingotxagoak egiten dabez gure aingeru-jagolak, pekatuak guban egiten dabezanak ikusieran.

¿Eta nok ordaindu kalte onek? Ezta munduan izan diran eta izango diran gizon

guztiak, Adan'en lenengo arnasatik, azkenengo gizonaren azkenengoraño, San Lorentzo'k bere ziñopaldian (martirio) igaro ebazan min eta oñazak igaroten egonda be, ez litzake naikoa izango pekatu batek, atsegiñez eukiten dan: gogapen (pentsamentu) txai' batek gogoari egiten deutzazan kalteak kentzeko, Jaungoikoaren Odola, bere bizitzea bera izan da beai-bea'ekoa. ¿Zek obeto adierazo lei pekatuaren gaiztakeri ta aztuntasuna?

Nun egin dot pekatua? ¡Eskutau al-izan banintz Jaungoikoaren begietatik! ¿Baña nora joanda? (1). «Zerura igoten banaz, diño Salmogiñaren agoz Espiritu Santuak, an zagoz; inpernura jatziten banaz, auñean zaukadaz; egoak artuta, itxasoaren andiko aldera igesten banaz, an be zeure eskumeak eutsiten deust». Gabak edo, orduan, estalduko nau Jaunaren begietatik. Orixe uste izaten dabe pekatariak, Espiritu Santuak an

(1) «Quo ibo a spiritu tuo? et quo a facie tua fugiam? Si ascendero in cœlum, tu illic es; si descendero in infernum, ades. Si sumpsero pennas meas diluculo, et habitavero in extremis maris; etenim illuc manus tua deducet me, et tenebit me dextera tua». (Ps. 138).

bertan diñoanez. (1). ¿Baña zer erantzuten deutse? «Jaungoikoarentzat gaba eguna bai-zen argia da».

¡Ez! ez dago Jaungoikoarentzat gaurik, ez dago toki ilunik, ez dago zokondorik, ez dago baka'rtagirik. Adimenaren ba'ruenean dagon gogapen txar'a; naimenaren azkenengo tolozean eskutaten dan gurari zitala, guztia dago argi-argi Jaungoikoaren begietan. ¿Eta au dakizula, azartu zara, zeure gurasuen au'rean, lagun-en au'rean, ez-ezagunen au'rean egingo ez zeukeana, Jaungoikoaren begi garbien au'rean egiten?

¿Zegaz egin dot pekatu? Jaungoikoak emoniko gorputz eta gogoaz. Jaungoikoak emon adimena, naimena, gomutamena; begi, belar'i, min, esku, oin eta beste zati guztiak, lenengo gogartean ikusi genduan lez, bera ezagutu ta maitatzeko; eta nik gogoko almen eta gorputzeko sentzumen guzti onek bera irainduten erabili, o'fretarakoxe baka'-baka'rik artu banituz lez ¿Zer da eske'rbagakeri au? Zer esango leukie, gizon

(1) Forsitan tenebræ conculcabunt me, et nox illuminatio mea in deliciis meis.

Quia tenebræ non obscurabuntur a te, et nox sicut dies illuminabitur. (Ibid).

bati osatu osatzaleak beso bat; eta gizon o'rek beso o'regaz artu kañibeta ta osatzaleari sartuko baleuskio? Ez dau au iñok, zoroa izanda be, gizartean egin. Ba gizon batak besteari, zoroa izan a'ren, egiten ez deustsana, auxe berau ziztrin onek Jaungoiko andi, ongileari egin deustsat.

¡A, esku onek, begi, belari, min eta beste zatiok berbetan balekie! zelan deada' egingo leuskiden, ¡gizon zoroa, munduan dan eske'txa'ekorik andiena! ¿Zetan garabiltzuz Jaungoiko andia irainduten, zeu ta geu bera eza-gutu ta otseinduteko egiñak izanda? Estu ta inkesaka garoazuz, geure ekanduaren kontra, Jaungoikoa iraindutera; baña berak aterako gaitu zure menpe gogo'etik; orduan ordaindukozuz gu ta gure Jaungoikoaren kaltez egin dozuzan bidebagekeri guztiak; orduan jausiko gara guztiok zure ganera, zu zapaldu ta banatuteko. (1).

¡Jauna! Noiz artean izango dira ni baño jakitunago adimen bako gauzak? ¿Noiz arte otseinduko zaitue naimen barik nik baño obeto? ¿Noiz arte izango dira Zure eskue-

(1) Rom. 8, 20-22.

tatik arturiko ondasuntxoakaitik, alagiña aberastu nozun au baño esker obakoagoak?

¿**Noiz** egin dot pekatu? Jaungoikoaren eskuetatik eskegita nagola. Egin daigun sokatik dingilizka dagola gizon bat; eta soka oren beste ertza tofe-ganean dagon beste gizon batek eskuetan daukala. ¿Sokratik dingilizka dagonak, tofe-ganean dagona irainduko leuke? Ezta zoroa izanda be, dakialako bestearen eskuetan daukala bere bizitzea; ta, izten badeutso, beko arietan zatituta geratuko dala. Ba neu nago une guztietan Jaungoikoaren eskutik dingilizka, tofe-ganean dagonaren eskuetatik bestea baño geyago; argi-ontzia (lampa) lotuta daukan katetik baño obeto. ¿Eta au jakin aren, ainbeste bidar iraindu dot, une bakotxean bere eskuetan naukan Jaungoiko, pekatuaren ain gorotatzale andia?

¿**Zegaitik** pekatu egin dot? ¿Zer egin deust niri Jaungoikoak, ni beragaz ain lotsabaga izateko? ¿**QUID FECI TIBI?** ¿Zer egin deutzut, diraust Jaungoikoak, beste aldian bere eñari lez. ¡**RESPONDE MIHI!** ¡erantzuidazu! ¿Ete-da gorputz-arima edeñ orek emon deutzudazalako? ¿Ala zerutik luñera zure maitetasunañen etoñi, ta ainbeste nekeren

ostean, Neure Odol guztia, Neure bizitzea bera, emon dodalako? ¿Zegaitik, ba, ene semeori, izan zatxataz ain biotz gogorëkoa? ¡Erantzuidazu! !RESPONDE MIHI!

¿Zer erantzun neikizu, Jauna, lotsearen-lotsaz, berbea eztañian itoten bayat? Begietatik dariadazan negar - malkoak dirautzue, ene Jaungoiko maiteori, nire berba guztiak baño obeto, Ebanjelio'ko Seme galduaren gizan: PECCAVI IN CÆLUM ET CORAM TE. Pekatu egin dot; eta Jaungoiko ain maitegarri oñen kaltez, eta Zeure aurrean egin dot. Zure semearen izenik be ez yagokat: NON SUM DIGNUS VOCARI FILIUS TUUS. *

B O S K A Ñ E N A T A L A

Deadañ dagidan, biotz guztia samindurik, diño San Iñazio'k, arituten nazala gauza guztiai begiratuta, zelan bizi izaten itxi deusten, eta zelan gorde izan naberen.

Jaungoikoak egin ditu gauza guztiak bera otseinduteko (serbiduteko); eta olan egiten dabe sortu ziranetik ona. Baña

ikusten dabenean gizona, Jaungoikoa ezagutzeko adimena, ta bera maitatzeko naimena artu dabena dala bakarik berari jarkiten yakana, jagiten dira eurak be gizonaren kaltez, eta alkar azkortuaz (animauaz) deadar egiten dabe, San Ambrosio'k diñoana: «Erdu ta banatu daigun gure Egilearen iraintzale au. Aizeak diño: ¿zetan bariztaten deusat odola? Suak: ¿zetan berotzen dot? Urak: ¿zetan otzitututen dot? Janariak: ¿zetan indartzen dot?»

Aingeruak, Jaungoikuaren Zuzentasunaren izkiñuak (kutxiñuak) *izanda*, diño San Iñazio'k, eta alan dira: Egipto'taŕen seme nagosiak nok il ebazan? Aingeruak. ¿Nok Senakerik'en gudarozteko edo ejerzitoko eun eta larogeta bost mila gudari (soldau)? Aingeruak. Eta olan agertzen dira aingeruak Apokalipsis'ko liburuan, Jaungoikoaren asarezko beaztuna gaiztuen ganera jaurtiten. ¿Zelan, ba, ebagi ta zuzitu bearean, *gorde ta zaindu nabe, ta nire aldez otoitz egin dabe?*

¡Bai! Itanduko baleuskit Jaunak, arako Ebanjelioko emakume galduari lez: *¿Iñok ez deutzu ezer egin?* (1). Ez neuke naikoa

(1) ¿Mulier, nemo te condemnavit?.. Nemo, Dómine. (JOAN. 8, 10-11).

izango, berak lez erantzutea: «Inok be ez, Jauna»; ba ez bakarik ez deuste gauza txarik egin, *gorde ta zaindu* egin nabe, betiko galdu nai ninduen inpernutaren erpeetatik; gorde ta zaindu batezbe nire aingeru zaintzaleak. ¡A, zenbat bidar neure pekatuakaitik negar eragingo neutsan!

¿Eta Santuak? ¿Ez dira eurak be pekatariaren kaltez berotzen? ¡Bai!; baña ez nire kaltez; nire aldez bai eskatu dabela, ta deadarik zolienaz, batezbe neure Ama maite, Andra Maria'k.

San Lukas'en Ebanjelioan gauza arigari bat irakurten da: Ugazabak eukan iko-zugatza (arbola) bere mastian. Etoñi iko-bila, ta ezeban ezer aurkitu. Eta dirautso masti-zanari asaratuta: «Iru urte dira iko-zugatz onetara iko-bila natoñela, ta ez dot ikorik aurkitu. ¡Ebagi! ¿Zetako dago luña jaten?» Baña arek erantzun eutsan, esanaz: «Itxiozu aurten be, Jauna, neuk atxuritu ta zimauritu dagidan, ia ezer dakañen; osterantzean gero ebagikozu».

Neu naz Jesus'ek bere Eleizako baratz (ortuan) ipiñi naberen zugatza (arbolea); ardurarik andienaz zaindu nau, ezkotu be bai bere odolagaz. Ainbeste alegiñen ekañi

(frutu) bila dator gero; ta oriak, au da, asmo onak baño ez ditu aurkitu. ¿Zelan ez da asaratuko? Eta ekañirik-ezaz alagiña asartzen bada, zer izango da ekañi txarrik, atsi-tuak, beste zugatzak usteltzekoak, nik lez, emonda? ¡A, zenbat bidar esango eutsen bere Eleiza Santuko masti edera zaintzen dagozan santuei: «Ekañi aizkorea, ebagi geñi-geñitik zugatz zatar ori, ta jaurti inpernuko sutara. ¿Zetako daukat luñ ain ona alpeñik galtzen?»

Baña Santuak, eta batez be neure Ama maite, Andra Maria'k, esango eutsan: «¡Ene Jauna ta Seme maitea! Egia da; zoñ dau; baño itxaron ondiok beste urte betean be; neuk atxuñtuko dot, au da, neuk egingo dot sakon gogoratu dagiala zein dan bere bizibidea; neuk zimauñtuko dot, esan nai dau, neuk ipiñiko deusadaz begien aurrean bere pekatu ta loikeriak; eta ori ta guztiaz be ontzen ez bada, orduantxe betoñ aizkorea, ebagi geñi-geñitik eta jaurti inpernuko sutara».

Eskeñak, Andrea, eñeten ez nagolako (1). Zugaitik izan ez bazan, zer izango zan gauñ

(1) Gratias tibi, Domina, quia non ardeo.

nigaz? ¿Nun egongo nitzan? Baña urte bete-ko epea (plazoa) yaritsi deustazu. ¡Nire eñukaña alegintzen ez banaz! Zeure laguntasunaz agintzen deutzut, al-dodan guztia egingo dodala. *Aita gurea... Agur Maria...*



Seigaren Gogartea

LENGO BIEN BAÑIZTETEA

Gure areriorik andiena, ta zuzen esateko, arerio bakara, pekatua dogu. Oregaitik naita-ezkoa da sustraiz ezagutu, ta biotz - biotzetik gorotatzea. Baña gure sentzunetatik urun dagon lez, uferatu egin bea dogu, ezagutzeko. ¿Zelan? Sari gogoan erabiliaz. Oregaitik ez da naikoa San Inazio'rentzat gogarte bi pekatuatzaz eukitea, ta agintzen dau *egiteko osterabe*, banan-banan, *igaro diran gogarte biak*, *atsegin nai atsekabe geyen euki dodan tokietan geratuta*; ta azkenean *iru berbaldi* (coloquio) egin, onetara:

Lenengoa.—*Andra Maria'ri, bere Seme ta Jaunagandik iru gauzatarako laguntasuna yaritsi daigun: 1.º Barú-barútik asmau (sentidu) dagidan neure pekatuen ezaguera ta gofotoa; 2.º Neure egikunen goibetasuna (desorden) asmau dagidan; gofortauta, zuzendu nadin. 3.º Eskatu munduaren ezaguera ta gofotoa, munduko ta uskerizko gauzak nigandik aldendu dagidazan. Eta esan Agur Maria... bat.*

Bigarrena.—*Eskatu beste ainbeste Semea'ri, Aita'gandik yaritsi dagidan, eta esan «Jesus'en Arimea», (deritxon otoitza).*

Irugarrena.—*Beste ainbeste (eskatu) Aitea'ri, betiko Jaun onek beronek emon dagidan; eta esan Aita gurea... (1).*

JAZOAK

1.ª ^{gua} San Prantzizko Borja'tar, Jesus'en Lagundiko Santu andiak, oeratueran, dea-

(1) Andra Maria'gandik Semea'gana, ta Semea'gandik Aitea'gana eldutea, guztiz izan eban gogozkoa San Inazio'k, Ejertzioetan ikusten dan lez. Eta «Jesus'en Lagundiko» arauak (*Constituciones*) egitaldean be, olantxe argia eskatzen eban, bere biozketak gomutateko egin eban paperean agertzen dan lez. Edonontzat da egokia.

brua ikusi eban oe-ganean, abere zatañen irudian. ¡Zelakoa izango ete - litzake gure ikarea ta deadañak, olakorik gertatuko babilitzakigu! Santua bañiz uferatzen da, ta apaltasunik andienaz dirautso deabruari: «Egon adi oe bigun oñetan; ni egongo nok luñaren ganean ire oñetan. Ik pekatu bakañ bat baño ez daukak; nik ainbeste». Eta ori beti garbia izan da gero.

2.^{na} Beste bein, Valladolid'ko kaleetan zeañ joala, asten da bere bizibide ta urteai yagoken baño ariñago ibilten. Lagunak iragarñen deutso; baña berak lagunari:—«¿Arin egingo eztot, ba? Zapatari, arotz eta beste beañoñak, bakotxa euren laneko eñemintakaz, neure atzean datozala begitanduten yat, deadañez: —«Oñi, oñi, inpernutik iges egiñiko oñi!»



Saspigaren Gogartea

PEKATU ARIÑARENA

JAUNARI AURKEZTUTEA ta GERT - OTOITZA
betikoak.

TOKI-IRUDITZEA:

Andra Sancha Kañilo agurgañiaren bizi-tzan irakurten da, Valladolid'en eleiza bateko orma-zuloan, otoitz, baru ta laztasun ari-gañiak egiten urte asko emonda, arokerizko gogapena etoñi yakola; bere gogoa (arimea) ze edera egongo ete-zan ikus-gurea. Eta ara nun iruditzen yakon gizon bat, gauza bat, estalduta, ekañela eskuetan. —¿Zer dozu ori?

— Uferatu zakidaz, eta esango deutzut. Uferatzen da, kentzen dau gizonak estalkia ta agertzen da ume bat txikia, itsusia, loya, erkiña, zauriz josita, ta dirautso ikuskizunak: — «Ara or ikusi nai zenduan zeure gogoaren irudia».

Iruditu dagidan, ba, neuk be neure gogoa gorputz-bañuan, txiki, ezain, loi, indarka ta zauriz beterik, Santu arena baño obeto ez da egongo-ta.

ESKAKIZUNA:

Ezagutu dagidala bañu-bañutik pekatu ariñaren gaiztakeria; biotzetik goñotau, ta aldodala, urundu dagidan.

LENENGO ATALA

Pekatu ariñaren gaiztakeria.

Pekatu ariña da esatea, egitea, gogortu nai gura izatea zerbait Jaungoikoaren legearen aurka, gauza ariñean. Jaungoikoaren benetako irain (ofentzea) da, ba;

ta bere aurrean egiten yakana, beragandik arturiko ondasunakaz, eta berak gordeten gaituzanean, pekatu aztunagaitik esan dan antzera. Ez da, pekatu aztuna lez, Jaungoikoa iltea; baña bai, esaterako, berari belar-ondokoak emotea.

Eruko gatxa da, ez atsekabezkoa; ta oretxegaitik, pekatu ariña egin baño lenago gaxo ta min guztiak autu bear geunkez, baita eriotzea bera be. Eta alan diño Eleizako Guraso Santuak, pekatu arin bat, barbarako, guzura, eztala egin bear, ezta garbileku (Purgatorioko) arima guztiak ateratearen be. Inperua bera baño be txarago da pekatu ariña: inperua Jaungoikoak egin dau; pekatu arin bat ez egin dau, ez egin lei.

Ez da, orduan, pekatu ariña nik uste izan dodan baizen gauza uts eta ezer-eza. Ariña deitzen yako pekatu aztunaren ondoan; baña, berau itxita, ez dago gauza txaragorik, ez kaltegarigorik lurrean.

B I G A Ñ E N A T A L A

Pekatu ariñaren kalteak bizitza onetan.

1.º *Arimako kalteak.*— Pekatu ariñak ez deusku kentzen Jaungoikoaren maitetasunik; baña bai asko otzitu. Pekatu ariñak, batezbe jakiñean egiten diranak, ostuten dabe otoitzak (e'reguak) egiteko, autortzeko, jaun-artzeko, Eleizara joateko ta beste gauza on guztietarako zaletasuna; edo egiten diranean be, gogo barik, epel; eta olan Jaungoikoaren grazia edo laguntasunik bapez edo gitxi baño ez dabe ateraten.

Pekatu ariñak, Jaungoikoaren ondasunak zerutik lu'era eka'rteko daukagun urbidea itsututa izten dau; arimako loya, uga'ra, zauria da, guztia argalduta, inda'katuta, oñean ezin egonda ipinten dabena, Andra Sancha Ka'ri'lo'ren jazoan ikusidan lez.

Pekatu ariñak adimena itsutu egiten dau, Erlijiñoko egiak ez ikusteko; edo beintzat ilun, eta uts andiz nastauta. Naimena makaltzen dau, arimako iru arerioei eusteko.

Bestetik, ba'riz, gorputza ilagaz doa-

nean, bera janagaz bizi diran piztiak gogorago ekiten deutesen antzera; graziazko bizian ilten doan oni be, gogorago oratzen deutse griña txarrik; berak be min, begi, belarri ta beste sentzumenen ateak edegiaz, sartzen laguntzen deutse-ta.

Eta alan Jaungoikoagandik urundu, ta arerioakana uferatu, geroago ta indar gitxiago gogoak, arerioak geroago ta geyago; mundu ta aragiak geyago atsegindu, Jaungoikoaren gauzetan pozik ez; gizon-biotza, bariz, zelanbaitako atsegin barik bizi ezin: eta olan zirikaldi (tentaziñoaren) aize gogor-txoak artzen dabeneko, luñ-joten dau arima erukañiak, eta geratzen da pekatu aztunean ondatuta; egiztuten dabela Jesu-Kristo gure Jaunaren epaya: «Gauza txikiak ezereztzat daukazana, apurka-apurka jausiko da».

Itoin bat naikoa da etxe andia ondatuta izteko; zulo batek galtzen dau soñeko guttia; ta ezerez dirudien makaltasunetik gaizo andiak sortzen dira. Olan arimako gaizo andiak be, gauza txikietatik datoz. «Ez uste, diño San Agustin andiak, beingoan egiten dala gizona edo oso txarra edo oso ona: apurkako zeregiña da au».

Pekatu aztunean jausten ez danean be, izelako estutasunak! ¿Ezetsiari tokirik emon ete-deutsat? ¿Autortu beaiko ete-dot? Jaunartz - aldian be, izelako bildufa!

Begiratu, ezpabe, atsekabeak nundik yatoitzuzan, eta ikusiko dozu, ia guztiak pekatu ariñetatik yatoitzuzala. Bestela, bañiz, izelako bakea bere griña txarrik goituaz, pekatu ariñetatik be, aldabela, igesten danena!

2.^{en} Gorputzerako kalteak. — Añigariak, eta Jaungoikoak pekatu ariñari deutsan goñotoa agertzeko bestekoak dira, beragaitik emon dabezan zigoñadak. Moises'en arieba Maria legenez (lepraz) beteta, bere neba Moises'en kaltez yardun ebalako. Moises bera ta Aaron, Jaungoikoaren eñira sartu barik, makileagaz atxa jo, ta ura ateraldian, beaizan lako itxaropen beterik euki ez ebelako. Lot'en emaztea gatz-añi biurtuta, aingeruaren aginduari jaramon barik, eñeten egoan Sodoma'ko uria ikusteko, atzeruntz begiratu ebalako, ¿ta beste zenbat onen antzeko? Jakitunak diño, Jaungoikoak gaizo asko bialtzen dabezala pekatu txikiakaitik.

IRUGARĒN ATALA

Kalteak beste bizitzan.

Garbitoki (purgatorioa). Beto' onetariko arima eruka'ri bat, eta pekatu ari'na zer dan, erakutsi dagigula. ¡A, onek, aurkitu dagi-
nean zelako mi'nak igaroten dagon suzko itxaso aretan, eta Jaungoikoaren arpegi ede'ra ikusteko daukan ega'ri bizia; gogoratu dagi-
anean, pekatu ari'nen uga'ra kentzeko dagola sartuta laba gori aretan; ¡a zelan go'rotatzen dabezan ezereztzat eukazan pekatu ari'nak!

¡Jauna! Neure arimako loyetatik garbitzeko, lexiba gogo' o'retan sartu ba'no lena-
go, emoidazu argia, ari'na esafen yakon pe-
katuaren gaiztakeria ba'rutik ezagutzeko, ta inda'ra biotzetik go'rotatzeko. Nega'ez garbi-
tu dagidala ontxe neure gogoa, garbitu bea'rik gero ez eukiteko. Ontxe kitatu dagidala azkenengo zurira'no zo' deutzudan guztia, presondegi itzal aretan ordaintzen ez egote-
ko. Ez nedila epela izan, Zeure ba'rutik e'e-
bezau ez nagizun.

¡Andra-Mari, neure Ama maite ori! Zeu izan zara baka'rik Adan'en seme-alaba guz-

tien artean, pekatu ariñen gerizarik be euki ez dozuna; beti egon ziran Zure gorputz-ari-mak argia baño garbiago, ta aizeak ezta-ribilen ur-azala baño baketsuago: garbitu, airen, nire gogoa be; egin bakeak nire gorputz-arimen artean; kendu pekatu-sustrai guztia ta oñartekoak itxi deusten atsa, Zeuretzat eta Zeure Seme Jesus'entzat bizi-leku garbi ta gozatsua izan nadin.

Aita gurea... ta Agur Maria...



Zortzigarren Gogartea

INPERNUKO ATSEKABEAK.

JAUNGOIKOARI AURKEZTUTEA ta GERT - OTOITZA,
lengoak.

TOKI IRUDITZEA:

*Begiratu irudimeneko begiakaz, diño
San Iñazio'k, inpernuaren luzera, zabalera
ta sakondasuna.*

ESKAKIZUNA:

*Eskatu galduak inpernuan igaroten da-
bezan atsekabeen baruko ezagutzea; Betiko*

Jaunari zof deutsadan maitetasunaz neure utsegiteakaitik aztu al-banei, beñik - bein atsekabeen bildurak pekatuan ez jausteko lagundu dagidan.

Lenengo eta gure bigarren gogartean erakutsi deusku San Inazio'k gure azkena. Irugarnean azken oretara elduteko bidea: munduko gauzak; laugarren, boskarren, seigarren eta zazpigarnean, bide onetan aurkitu leiken eragozpena: pekatua. Gogarte onetan okerako bidetik doazanen azkena begien aurrean ipiñi nai deusku: inpernuko su-lezea.

Ganera, gogarte onetan, atsekabearen bildurez sendatu nai gaitu San Inazio'k, pekatuak ez egiteko artu doguzan asmoetan. Maitetasunez nai leuke San Inazio'k guk Jaungoikoaren aginduak betetea. Baina maitetasuna, pekatu arinakaitik galtzen ez bada be, bai otzitu ta indarbagetu; ta olakoan, zirikaldian zeri oratu euki daigun, nai dau San Inazio'k inpernuaren gomuteagaz, Jaungoikoaren bildur santua sakon biotzean sartzea.

LENENGO ATALA

Kaltezko atsekabea.

Pekatariaek pekatuagaz gauza bi egiten ditu: bata, alden du bere biotza Jaungoikoagandik; bestea, munduko gauzakana biotz au biurtu. Baita Jaungoikoak be, ordeaz, erusari (kastigu) bi emoten deutzaz: alden du beragandik, eta auxe da *kaltezko atsekabea*; ta gizona atsegindu daben gauzak eurak, bera atsekabetzeko artu: *sentzunezko atsekabea*.

Ikusi daigun, lenengo, *kaltezko atsekabea*. Nire gogo au gorputz onen baruan, San Iñazio'k dirauskunez, espetxe (presondegian) lez sartuta dagon bitartean; Jaungoikoagandik urunduta egon azen, ez da ainbeste minduten. Baña noiz-bait urtengo da, ta nai-ta-nai-ez, bere indarez, indarik andienaz, egaz lez, joango da Jaungoikoagana; ta Jaungoikoak pekatuan aurkitzen ba-dau: «¿Zer?» esango deutso; «¿zu pekatuz loituta, ta Nigaz, garbitasun utsagaz, batu?» ¡«Ken ortik!» esanda, jaurtiko dau. Alan da guzti be ezinda egon gogo bere Jaungoikoa barik, doa oster a be

beragana, ta len lez bañiro Jaungoikoak jaurtiten dau. Eta olan batetik Jaungoikoagaz batu nairik, eta bestetik Jaungoikoak beragandik jaurtiten dabela; ¡beti! ¡beti! beragaz iñoizko aldian batzanduteko itxaropenaren apurik euki barik.

¿Maite izan dozu iñor biotz guztitik, gañez, eta berak ezin ikusi izan zaitu? ¿Goñotoz jaurti zaitu? Baukazu nundik atarau, zelakoa izango dan zure atsekabea, Jaungoikoak goñotoz begiratzen deutzunean.

Gogoratuizu, ganera, zer igaroten daben egañiz eñeten dagonak, edontzi (baso) bete ur otz ekañi, ta tanta bat edaten itxi barik, kentzen deutsenean; eta olan egunetik-egunera, erakutsi ta kendu, darabilenean. Ba, ez dago egañirik, gure gogoak, gorputzetik urten ezkerro, Jaungoikoaganako daukana lakorik.

Gizarteko samintasunik zolienak ez dira ogasuna (ondasunak) galtzea, nai osasuna, bizitzea, senaía edo emaztea, nai umeak? Ba, guztiok dira kaltezko atsekabearen antzekoak, gauzea galtzeak dakazanak. Baña gauza guzti onek zer ikusirik ezbadauke Jaungoikoaren aldean, ezta eurak galtzeak

dakaren atsekabeak be, ez dau eukiko zer ikusirik, Jaungoikoa galtzeaz, eta betiko galtzeaz gogoak artuko daben miñaren ondoan.

¡A, zuek, santuok, mundu onetako ilunbean be, Jaungoikoa apurtxo bat eskutaldian artzen dozuen miñagaz, ¡aika! ezin egonda, arnasarik be ezin artuta, zabiltzenok; Eleizguraso Santuok, kaltezko atsekabe au inpernuko beste guztiak baño mila bidar andiago erizten yatzuenok, erakutsi guri, pekatarioi, geure biotza zikinduta, mundu onetako gauzen maitetasunaz loituta, Jaungoikoarena ezin ezagutu dogunoi, zer dan kaltezko atsekabe au, ta ezgaizala iñoiz, pekatuaz, Jaungoikoagandik aldendu, betiko urunduta geratu ezgaitezan.

BIGAREN ATALA

Sentzuneko atsekabea gogoko almenetan.

Adimenean. Adimenaz ikusten dau galduak *bere burua*, deabru bat lez, ezainduta, atsituta, gorotogañi, ta olan agertzen dala Jaungoiko ta aingeru-aurean. Ikusten dau

*Jaungoikoa, guztia asafatuta, zuzendasu-
neko beso gogofa bere ganera jaurtiten
dabela. Ikusten ditu zorionekoak euren atse-
gintza ederean; eta egiten dau beragan: ¡A,
neure eri maitegari ori, galdu zaitut betiko!
Ezagutzen ditu argi - argi bertan dagozan
adizkideak, senideak; eta biotzeko samin-
dasunik andienaz deadaf egiten deutse, Es-
piritu Santuak bere agoan ipinten dabezan
berba onekaz: «Onetxek dira guk iri ta bare
egiten eutsegunak; zorotzat geunkazan guk
burubakuok, eta euren azkena entzute ba-
kotchak. Ara or zelan dagozan Jaungoikoaren
semeen artean, eta euren zoria santuen arte-
an. Geu-giñan, geu, uts egin genduanak, eta
adiñeko argirik ez zan guretzat zabaldu».*

Gomutamenean (memorian). — Gomuta-
menaz gogoratzen ditu munduan euki eba-
zan *ondasun eta atsegiñak*; eta oingo ezeu-
ki ta atsekabeaz bardintzen ditu. Baña,
ñorañokoa izango da bere biotzeko samin-

(1) Hi sunt quos habuimus aliquando in derisum, et in similitudinem impropertii. Nos insensati vitam illorum aestimabamus insaniam et finem illorum sine honore. Ecce quomodo computati sunt inter filios Dei, et inter Sanctos sors illorum est. Ergo erravimus a via veritatis, et sol intelligentiæ non fulsit nobis. (SAP. 5, 3-6).

dasun, estura ta asarea, auez-aez ipiñi emen euki ebazan pekatuzko atsegin izkitxoak, gerizea lez igaro ziranak, eta oin daukazan betiko atsekabeakaz bardintzen dabenezanean?

Saul Elegeak agindu eban bere gudarozte (ejerzitoko) inok ez egiala ez jan ez edan ezer, arik eta arerio guztiak amaitu arte. Jonatas, bere semeak, bidean-zear joyala, ikusi zugatz (arbolan) ezti-abaua, espatearen ertzaz artu apur bat, eta jan eban. Saul'ek jakiten deutso, ta erabagiten dau iltea. Jonatas, au entzueran, asten da alarauka baso aretan deadaez: «¡Ezti apurtxo bat baño ez-tot artu, ta ara nun il bea nazan!» (1).

Auxe bai esango dabela galduak deada miloi bat bidar zoliagoaz: «Ezti apurtxo bat baño ez dot artu, atsegin apurtxo bat, diru apurtxo bat: ¿eta ori dala ta beste barik egon bea emen, betiko, ainbeste onaz eta min artean? ¡A, dirua, a atsegiña, zein karu erosi zinduedazan!»

Gomutaten dau Jaungoikoagana biurtze-

(1) Gustans gustavi paululum mellis, et ecce morior.
(I. REG. 14, 43).

ko luñean euki eban era eñaza; zelan Jaungoikoak deitu eutsan arako lagunaren itune (kontseju) ona entzueran, liburu ona irakurieran, sermoya entzueran, eriotza bat - batekoa jakieran. Bañiz ikusi dagianean zelan egon yakon Jaungoikoa mila eratan bere biotzeko atean oska, ta esaten: «Ene semea, edegidazu biotz ori, bañuan sartu nai dot-eta» ta zelan berak ez eutsan jaramon; ikusi dagianean zelan eskatzen egon yakozan senideak, gurasoak, lagunak; ikusi dagianean ze uskeri txikiakaitik bide okeñetik alde barik egon zan; ikusi dagianean ez dagola geyago Jaungoikoagana biurtzeko erarik, ez len alpeñik galdu eban astiaren unetxo bat be: asiko da amuruz bere buruari ainkaka ta txiximurka. ¡Auxe bai dala atsekabea! ¡Auxe da kontzientziako aña pekatariaren biotza, sitsak soñekoa lez, jaten egongo dana; baña ¡iñoiz amaitu barik!

Naimenean. Naimena (borondatea) Jaungoikoagandik artu dogun almen (potentziarik) edeñena da; ta Jaungoikoa bera lez, maitetasun utsa. Bere bizitzea maitetasuna da, bere arnasea maitetasuna. Maitetasunean bizi da pozik eta atsegiñez, txoria aize-

an eta uretan añaña bizi dan antzera. Maitetasun barik ezin bizi lei, txoria aize barik, ez añaña ur barik, bizi ezin dan lez.

Baña gaiztokian ¿zer maitetuko dau? ¿Beste galdu, bere lagunak? ¡A, ze itxusiak diran! Eta, ganera, beti dagoz bata bestea gorotatzen, madarikatzen! ¿Deabruak? Euren ezaintasunez - ostean, bere boferoak dira. ¿Gurasoak? Eurakaitik dago geyenean toki ain atsekabetsuan. ¡Jaso dagizala, orduan, bere begiak zeruruntz Jaungoiko ta zorionekoakana! ¡A, ez deutse inñori Jaungoikoari baño gofoto andiagorik, ain eruki barik zuraten dabezalako! Eta ikusten dabezanean zorionekoak Jaungoikoa goraten, eurak ain gogoñ artzen dabezalako; amuruak batetik eta inñartzi (inbidiak) bestetik, erasoten deutsez biraurik ikaragañienak. ¡Egoerearen estua! ¡Zerbait maitetu barik ezin egon; eta ezer ezin maitetu! bai gofotau guztia, Jaungoikoa, zorionekoak, deabruak, galduak, baita bere burua be. «Ezin dau ezer maitetu» deadañ egiten eban Santa Teresa'k.

¡A, ene arima maitea! ¡Ez egizu maitetu, maitetasuna betiko galduko deutzun gauzarik.

IRUGAÑEN ATALA

Sentzuneko atsekabea gorputzeko sentzunetan.

1.º **Begiak.** — Sartu ondiok obeto, ene arima maitea, Jaungoikoaren espetxe (pre-sondegi) atan. ¿Zer da dakutzuna? Laba gori, luze, zabal, sakona: goyan sua, albo guztietan sua, ta erdian suzko itxasoa, ta bertan gora-ta-bera galduak, añañak uretan, eta lapikoan babak lez.

Begiratu eurretari bati: onenean zeure laguna dozu.

¿Bere begiak zer ikusten dabe? *¡Deabruak!* Santa Juana Prantziska Erromatarak ikusten ebazan sañitan deabruak: ¿Zer diño? Nayago leukela laba gorian bizirik sartu, deabruaren arpegia unetxo baten ikusi baño. Ba inpernukoak ikusten dau, ez deabru bat, une baten; ikusten dau deabru - aldra andia, bere ganera yatoñkala, bera zapaldu ta zatitzeko.

Ikusten ditu bere *pekatuetako lagunak*. Emen alkañegaz pekatu egiten dabena, alkañegaz an be egongo dira, alkañ goñotutzen, alkañ zatitzen.

Baiz bat-edo-batek berba nasayakaz, begirakune txarraz, jantzi zatarraz, itune (kontseju) txar bat emonda, nai beste edoze-lan nor-edo-nori pekaturako biderik emongo baleuskio: ja, bere atsekabea, onek, arpegia artuta, esan dagionean: «¡Galdua! azal-utsezko maitetasunaz areriorik andiena izan zaxatazana, ¿zegaitik galdu ninduzun? Zeugaitik izan ezpalitz, zeruan, ara an, neure lagunak dagozan toki aretan, egongo nitzan; eta zu zarala-ta beste barik nago ta egon bearko naz emen, deabru-artean, betiraun guztian!»

Eta au esanaz, zelan jausten yakon gainera, ainkaka ta txitximuika zatitzeko.

2.^{en} **Belariak.** — Entzuten dabez beste zorigaiztokoan *alarauak* eta *agin - kirizkadak*, Jesukristo'k Ebanjelioan diñoana. Entzuten dabez *deabruen deadarak*, San Agustin'ek diñoan lez: «Ekarri ilintiak, ekarri aiztuak (kutxiloak); il, emon eriotza bako eriotzea». Entzuten dabez galdu bakotxak bere galbideari ezarten deutzazan *birauak*. Diru - zaleegiak: «¡Madarikatuak nire aberastasunak!» Entzute - zaleegiak: «Madarikatu ainsteste alegiñaz bilatu neban entzute ta izen ona!»

Loikeri - zaleak: «¡Madarikatua mila bidar, galdu ninduan arako atsegiña! madarikatua urlia gizon edo andrea, madarikatua arisku a, etxe a, lagun a, senideak, gurasoak, baita neure gorputz eta arimea bera be».

Ori diño San Antonino'k; eta Zoriondun Belarmino, jesuita jakitunak: «Madarikatzen dabe Jaungoikoa, sortu dabezalako; baña batez be, iñoiz il barik, beti oñaz-artean daukazalako. Madarikatzen dabe bere jakituria, pekaturik txikiena aurkitzen dabelako; altasuna, ain gogof zuraten dabezalako; ontasuna, eurentzat gogofitasun eta asarez beteta dagolako; Kurutze Santu ta Odol edera, beste asko lez gorde ez dabezalako; zorionekoak, euren atsekabeai iri ta bare egiten deuselako». Eta azkenez, negaf barik esan be ezin leikeana, madarikatzen dabe ontasuna, biguntasuna, eruki utsa baño ez dan geure Ama maite, Andra Maria, beti onetsi ta goratua, beste guztientzat Ama Erukioia izan, eta eurentzat bakarik (olan uste dabe erukariak), amorde gogofa izan dalako».

Emen biraua entzuten danean, naita Jaungoikoaren asarez jaurti ez, izelan daif-daf asten diran Jaungoikoa apuf bat maite daben

e-rayak! ¿Zer izango da ainbeste birau, ain ikaragari, go-rotorik bizienaz jaurtirikoak, entzutea? Gaiztokiko atsekabe guztietatik, auxezan San Inazio'ren biotz jaungoikozkoa geyen samintzen ebana.

Gau guztian ume bat garaxika dagonean, ize luze egiten dan! Eresti (musika) bat luzaroegi jo ezkerro, ezin entzun da: ¿zer izango ete-da ainbeste galduen negar bizi ta alarauak, geratu barik, beti entzuten egonbeara?

¡Mur-murea ta autu zatar-entzuleak, ara or zuen azkena!

Surak be euren atsekabea. Eta olan Espiritu Santuak diño azufre irakindua, (1) ta beste ats andiko gauzak dagozala. Andia-goia darioko galduai euren gorputzetatik; ba, ezilkoarak izan a-ren, gaizo ta zauriak daukez; eta alan San Bizente Ferrer'ek, Normandia'n sermogiñen egoala, esan eban: «Galdu baten gorputza bertan ipiñita, Paris'tik artuko litzanela bere atsa. ¿Zer izango da ainbeste miloi ta miloi galduen gorputzak botako dabena, alde guztietatik itxita dagon toki aretan?

(1) Diabolus missus est in stagnum ignis et sulphuris. (APOC. 20, 9; 14, 10; 19, 20; 21, 8.)

Mezenzio eritxon gizon biotz-gogoñak eriotzarik ikaragañiena emoten eutsen il beañ ebazanai: lotzen ebazan iliko baten korpuari, ta alan eukiten ebazan, arik-eta korputik urte-ten ziran añ eta atsak, gizon erukañia amaituta itxi-arte.

Auxe berau egiten dau Jaungoikoak inpernuan; baña desbardintasun bategaz, onek ez dira iñoiz ilten.

Gose-egari bizia be eukiko dabe suleza-koak, Espiritu Santuak sañitan esaten deuskunez.

Eta ez bakañik ez dabe eukiko jatekorik, ez edatekorik: nai ez dabena eukiko dabe; ta au adierazoteko, diño Espiritu Santuak, zizari-bedañ edo *ajenjo* deritxon bedañ gañatza jaten emongo deutsela, ta edaten sugien beaztuna. Sapuak, sugiak, parasmak eta osterantzeko piztiak jan - eragingo deutsezela, diño San Antonino'k.

Gorputz guztiak. ¿Gorputzāgaz ez dira ainbeste pekatu ta ain andiak egiten? ¿Atsegin apuñtxo bategaitik ez da Jaungoikoaren Legea zapaltzen? Andiak izango beañko dira orduan, gorputzaren oñaz eta miñak.

Itxi albo batera deabruak emoten deutsen

naibagea; ta ori, Beda Eleiz-guraso Santuak diñoan lez, zapalduta itxiko dabezala, lantegi (fabriketan) burdiñea mañuaz zapalduta izten dan lez. Itxi, ganera, galduak euren buruai ta batak besteari ainkaka ta txitxi-muñka emongo deutsezan miñak; eta suaren aldetik artzen dabezanak bakañik ikusi dagiguzan.

Eta, lenengo, gogoratu, emengo sua angoaren gerixea be ez dala, Erakuslak diñoenez; emengo sua Jaungoikoak geure beañizanetarako egiñikoa dalako; angoa, bañiz, galduak zeatu (kastigateko).

Artu arats (fósforo) bat, eta asi atzamañertza éreten. ¿Egongo nitzake arast ori amaitu arte? ¿Eta kandela bat? ¿Zer izango litzakit, ba, su oñek, ez toki bat edo beste, gorputz osoa éreko ba-leuskit? Ba inpernura banoa, gorputz oso au eukiko dot éreten; sartuko yat sua ago ta suñetatik, zabalduko yat érayetan, eta bañu ta azal egongo naz éreten. ¡A, nire érukañia, ene gañaixiak! Sutonduan nai plantxetan zagozala esku-ganera txingartxo bat jausten bayatzu; unetxo baten ezin dozu euki, ¿zelan igaroko dozu su ain gogoña, ain luzaroan?

Itxi, goñotau dagidan loikerizko sua, dañayokon inpernuko su gogoñari iges egin nai badeutsat.

LAUGAÑEN ATALA

Inpernuko atsekabeen betikotasuna.

Batu dagiguzan esan doguzan gaiztokiko atsekabeak: *Adimenaz* ikusten dau galduak pekatuagaz bere gogoari ekañi deutsan ezaintasuna, atsiturik agertzen dala Jaungoiko ta zerukoen añaan; ikusten dau Jaungoikoa oso asañetuta; ikusten ditu zorionekoak atsegin-artean.

Gomutamenez gogoratzen ditu luñean euki ebazan aukera ta aberastasunak, pekatuko atsegiñak, min ain andiak ekañi deutezananak; gomutaten dau emen alpeñik galdu eban astia ta Jaungoikoagana biurtzeko ereti edeña, geyago eukiko ez dabena.

Naimenagaz ezin ezer maitetu, bai goñotau zeru, luñ eta inpernuko gauza guztiak.

Begiakaz ikusten ditu deabruak, peka-

turako lagunak, eta berak pekatu eragin eutsenak.

Belariakaz entzuten ditu deabruen deadaí eta irintza ikaragarriak; galduen negaí, alarau, deadaí eta birauak.

Dasta edo gustuan, gose-egariak.

Gorputz guztian: Deabruak emoten deutzazan miñak; eta batezbe suagandik artzen dabena.

Ba ainbeste atsekabe, gogoan be ezin artu-ala, ta ain andiak, guztiak igaro beaí ditu galdu eñukariak *batera, eroapen* (pazientzia) apuá barik; zeruan ez luíean beragaz *eñukituko danik*, agertu barik, *itxaropen* apuá barik, atsekabe guzti onetatik bat be, unetxo baten be, *ez kendu, ez gitxitu* barik. ¡Egon ezin, eta egon beaí.

¿Zer izango litzake ikustea bat buru, begi, belari, agin eta urdaleko miñik zolienaz, guztiak batera, ezin egonda, garaizika, birauka? ¿Ba zer dauke oñaz guzti oñek zer ikusi, esan doguzan su-lezakoen ondoan?

¿Zer egingo dau, orduan, inpernuko eñukariak? ¿Il bere burua? ¡Ai, albaleu! Esker anditzat artuko leuke, nok-edo-nok iltea. Eta ara or Jaungoikoaren eta gizonen indaíen

artean dagon aldea; gizonak emon leikien erusari edo kastigurik andiena eriotzea da; Jaungoikoak inpernuan emoten deutsezan atsekabeetan bañiz, gozagari anditzat artuko litzake eriotzea.

¿Zelan Jaungoikoak berak be batu lei gizon baten buruan min, oñaz eta atsekabe geyago? Ba, esan doguzanak, ez dira inpernuko atsekabeak; kentzen bada eroapenik (pazientziarik) eza, deabruak emoten dabezanak, eta geyen-geyen beste oñazen bat, beste guztiak garbitoki (purgatorioan) aurkitzen dira. Inpernuko atsekabeak inpernukoak dira, betirauna (eternidadea)-gaitik.

¿Noiz-arte egon beaño ete-da galdu erukaña ainbeste miñez, guztiak batera, bat be gitxitu barik, eruki, ez eroapen barik? ¿Eun urte? ¡Geyago! ¿Mila, miloi urte? Geyago. ¿Noiz, ba, amaituko dira? ¡¡¡Inoiz bez!!!

Egin dagidan gaur jausten dala bat sulezara; ta gaur berton doa inuñi bat Oiz'ko mendira; artzen dau luñ-garau bat, eta daroa Bilbo'ko zabalunera. Beste gizaldi bat, eta daroa beste garau bat; olan, gizaldi bako-txean luñ-garau bat atarata, ¿aldenduko eteleuke Oiz'ko mendia Bilbo'ra? ¡Bai! ¿Baña

nok esan zenbat gizaldi beaiko litzakezan oretarako?

Eta inuiri orek lenengo luŕ-garaua atarau ebanean inpernura jausi zana, ¿nun dago? ¡Inpernuan! ¿Eta zer egin dau bertan? ¿Ainbeste gizaldi zetan emon ditu? Aldi guzti oretan egonda, len ikusi doguzan oñaz guztiak igaroten, guztiak batera, bat gitxitu barik, eŕuki ez eroapen barik, poz-aldirik txikienik euki barik. Eta olan inoiz amaitu barik.

¿Zer da au? ¿Nor ez da ikaratuko? ¿Nok ez dau ikusiko pekatuaren aztuntasuna? ¿Nor ez da aŕituko Jaungoikoaren zuzentasunaz? ¿Nor egon pekatuan, bat batera il eta Jaungoikoaren gaiztategi (presondegi) itzal onetan sartzeko aŕiskuan?

Baña bilduŕ naz, Jauna, ondiok pekatu egin, eta betiko galduko ete-nazan. ¿Eta nok daki lenengo pekatua izango ete-dodan nire arimako ontzia betiko ondatuko daben azkenengo ur-tantea? ¡Ez, ez Jauna, geyago pekaturik! Ez neuke nai; baña nire asmoa gora-bera, argala naz; eta eŕez osterabe pekatuan jausi neinke. ¡Ez, Jauna, olakorik! Lengo pekatuakaitik asaŕatuta

bazaukadaz, zufau, nai banozu; zuñau, ebagi, eñe ementxe, baña gero azketsi (parkatu). Nire eskariei ez yake zoñ, egia da; baña Zeu zara Ona, ontasun guztien itufia, ta egizu ez neiteala eñeten egon betiko su aretan. (1).

¡Ai, Jesus'en Biotz, biotzik maitetzaleena!
 ¡Ointxe bai argi dakustala ze maite izan nozun!
 ¿Gaur nun egon beañ nintzan? ¡Inpernuan!
 betiko gañazika, atsekabe ain andien erdian,
 ¡Zuri birau-urtika! ¿Eta nun nago?
 Luñean, Zeure auñean, Zeu maitatzen.
 ¿Nik baño pekatu gitxiago egin daben ainbesteri azketsi (parkatu) ez, eta niri bai?
 ¿Zegaitik? Arek baño asko maitiago izan nozulako.
 ¿Eta nik Zu geyago iraindu? ¿Nik Zu geyago maitetu ez?
 Maitetzen zaitudaz, Jauna, biotzeko indañ guztiaz.
 Maitetu zaitezela, ta eskeñak egin dagizuezala neure izenean zeruko aingeru ta luñeko gizon santu ta gauza guztiak.
 Noiz ikusiko nago, Jesus Onori Zeure arpegi edeña, Zeure auñean belaunikotu,

(1) *Preces meæ non sunt dignæ. — Sed Tu Bonus fac benigne.—Ne perenni cremer igne.*

ta mesede andi onegaitik betiraune guztian eskeñak emoten egoteko.

Eskeñak Zuri be, jo, Andra-Maria, neure Ama maite oñi, Zeure bitartez Jesus erukioñak mesede ezin-esan-alako au egin deustalako. ¿Zeugaitik ezpalitz, zer izango zan nigaz? Eskeñak, ba, Andrea, ereten ez nagolako.

J A Z O A

Gure Jesus'en Lagundiko San Prantzisko Jeronimo'n deuntzate edo kanonizaziñorako batu ziran jazoetan irakuñten dana da.

Santu andi au Napoles'ko enparantzan (plazan) sermogiñen egoala, emakume galdu baten etxe-auñean; emakumea, bere bañua irakiten ipinten eutsen egiak entzun nai ez da, urten zan leyora (bentanara) panderu-joten. Santuak sermoya etenda, dirautso: «¡Ire erukañia! Jaungoikoagana biurtzen ezbaz, zortzi egun bañu inpernuan az». Jaramon barik, jañaitu eban emakumeak soñu-joten, jolazean, iri ta bañe gangañ askogaz.

Zortzigarren egunean joan zan osterabe Santua enparantzara aldra andiagoakin; baña emakume aren etxeko leyoa itxita egoan, eta soñurik ez zan entzuten. Eldu zan auzoko bat, guztia zurbilduta, ta esaten deutso, orduantxe bertan il zala emakumea. «¿Il da?» erantzun eban Santuak; «esan dagigula, orduan, berak nun aurkitzen dan».

Igon zan emakumearen etxera Santua ta beronekin aldra andia, ta aurkitu eben emakumearen korpua, koltxo baten, beyen ganean.

Santuak otoitz apur bat egin, eta dirautso korpuari: «¿Kataliña, nun zagoz?» Eta korpuak, lo-zorotik urtengo baleu lez, edegi begiak, edegi agoa, ta deadañik itzalenaz erantzuten deutso: «¡Inpernuan, inpernuan nago!»

Beřegun gizonek zin (juramentu) egiñaz olan autortzen dabe; burubako askok esan dagien, ez dala inpernutik iñor etoñita, ez dabela, dagonik be ziñisten.



Bederatzigarren Gogartea

ERIOITZEA

San Inazio'k ez dau ipinten Eriotzea ez Juzioatzazko gogarterik; baña bai esaten dau, saritan gomutateko, Ejertzioetako lenengo astean bilatzen dana, au da, pekatuaren gofotoa aurkitzeko, guztiz diralako egokiak.

JAUNARI AURKEZTUTEA, ta GERT - OTOITZA
lengoak.

TOKI-IRUDITZEA:

Gomutau dagidan ilten ikusi dodanen bat:

oyan etzunda, begiak itzal, zur eta belarri-
-ertzak zurbil, agoa-zabalik, arnasa-oska,
izerdi lizunetan, eskuetan daukan kurutseari
mun egiteko adore barik.

ESKAKIZUNA:

Eriotza on bat emoidazu, Jauna; ta
ořetarako, bizitza ona eukiteko laguntasuna.

LENENGO ATALA

**Bildurgaria da eriotzea bere auřetik daka-
zanakaitik.**

1.^o — Eriotzeak gauza bat dauko ziuřa
bere auřetik: etoři-beařa. "*Erabagita dago
gizona bein iltea*" diño Espiritu Santuak (1)
Erabagita, ta Jaungoikoak erabagita; ĩnor
berari jarki? ĩNok aldatu Jaungoikoaren
epaya? Ez dago sendorik, ez jakitunik, ez
aberatsik.

ĩNun dira nire gurasoak? ĩNun seni-

(1) Statutum est hominibus semel mori. (HEBR. 9, 27).

deak, lagunak, auzokoak? ¡Deitu!.. Guztiak dagoz ixilik; edo, obeto, guztiak erantzuten deuskue obitegi (Kanpo - Santuko) lau azurakaz: «HODIE MIHI, CRAS TIBI; *gaur niretzat, biar zuretzat. Zu zarana izan giñan; gu garana, izango zara*». Mundura dator bat; ez dakit aberatsa, ala ezeukia; zorionekoa, ala zoritxarrekkoa; ona, ala deungea izango dan. Baña gauza bat esan neike. ¿Mundara etoñi da? Urtengo da. ¿Gizona da? Ilgo da.

¡Bai il beañ gara! Aragiak ez dau nai entzun esakune gogoñ au; baña naita-ez, il beañ gara. Etoñiko da egunen bat, eta begi onek, edegita egon añen, ez dabe ezer ikusiko; belañi onek ez dabe ezer entzungo; min au ixilik egongo da; oin onek geldi; gorputz guzti au otz, gogoñ, itzal.

Itxiko dodaz gurasoak, senideak, lagunak; diruak, jolasak, atsegiñak, luñean maite nebazan gauza guztiak.

Artu, ta eroango nabe iñoren sorbalde-tan; abade jaunak abestu (kantauko) dabe il-otoitz (eñespontzua), ta gero esango dabe: «REQUIESCAT IN PACE, *bakean bego*» ¿nor? ¡Neu!

¿Egiak dira onek? ¿Zinisten dozuz? ¿Ezetz! dirudi. Auzi-epaleak eriotzarako epaya emonda bazengoz, ¿zelako estutasuna! ¿Ze bañe-gura gitxi! Ba ez gizonaren epaya, Jaungoikoarena daukazu zeure ganean; laster yatoítzu epai ori irakurtera; edo, obeto, arnasa bakotxak izendaten deusku auzi-epaleari bidera urteteko emoten dogun oinkada (pausu) bat. ¿Eta ez zara bilduritzen? ¿Bañeka zabiltz?

Jan-edan edeñra ipiñi batek, baña espatea, ari me batetik dingilizka, jatun bakotxaren buru-ganean. Ez eban iñok kopaurik artu. Ba eriotzako espatea geure buruaren gan-ganean aririk meyenetik daukagula gagoz; noiz jausiko dago. ¿Eta guk bañe, jolas-tu, luñeko gauzaz asetu eziñik ibili?

Egin dagigun beste gizon guztiak ez ilkoñak dirala; ¿zelan ibiliko ete-litzakez? Ba neu bakañik ilkoña izan, eta euren jolas, jan-edan eta beste atsegiñetan eurakin batzanduko banitz, ¿zer esango leuskide? «Zetan zatoz gugaz? Zu etzara gutarikoa; tira bakañtegira, zurau zeure gorputz ori, egin otoitz ta beste gauza on asko, laster il beañ zara-ta». Alan da guzti be, jaramon barik,

euren antzera biziko banitz, ¿zorotzat ez nindukie artuko?

Ba besteak ilkoak, zein ez-ilkoak izateak, niri ez deust ezer ez kendu, ez ipinten. Ni ilkoá naz; laster luáeko gauza guztiak itxi beáko dodaz. ¿Zelan, ba, maite dodaz? ¿Ez dozu ikusten, ene árima maitea, zirt-zart yatoítzula eriotzako kodaña? ¡Ganean dozu! Ebagiko deutzuz zeure biotzetik munduko gauzetara botata daukazuzan maitetasun - lokaáiak, eta itxiko zaitu bakaáik. Gurasoak emen, seme-alabak, lagun-maiteak emen, jolasak, atsegiáak emen; eta zu bakaá - bakaáik, zeure egikune on eta txarák lagun dozuzala emendik beste mundura: egikun onak, ara oá zure benetako aberastasunak, beti lagunduko deutzuenak.

¿Eta ez da negaágaía, biar edo etzi itxi beá dozuzan aberastasunen bila gau ta egun, jai ta aste, euri ta aterá, zoratuta lez, alegiánik andienak egiten ibiltea; arima edeáari, zokondoko mantaá zataáari baño geyago yaramon barik, egikun onez aberastu barik?

2.^{en} Ez da ziuá eriotzea bere auáetik daukazan zertzelatasun batzuetan, eta onetxek egiten dau ondiok bilduágaíagoa.

¿*Nun* ilgo naz? Erian, ala erbestean; kallean, ala etxean; jaten, ala oyan nagola? ¡Ez dakit!

¿*Zelan* ilgo naz? ¿Ilgo naz, ala ilgo nabe? Ilgo naz gaizo luze baten ostean, ala bat-batera? ¿Eta, batezbe, ilgo naz Jaungoikoaren adizkidetasunean, ala bere asarean? ¡Ez dakit!

¿*Noiz* ilgo naz? ¿Zártzan, ala gaztetan? ¿Urte asko igarota, ala aurten, il onetan, aste onetan, gaur bertan? ¡Ez dakit! Ordu bete be ez daukagula ziur, dirausku Jesu-Kristo, gure Jaunak (1). Ilgo naz pekatuko bide au itxita gero, ala itxi orduko; ainbeste galera-zoten deusten arazo onek amaituta, ala lenago? ¡Ez dakit! ¡Ezertxo be ez dakit! Edo, obeto, gauza bat dakit, Jesu-Kristo'k erakutsita: «*Uste ez dodanean ilgo nazala. QUA HORA NON PUTATIS*». «*Gau-lapuña lez, etoñiko yatala. VENIAM AD TE, TAMQUAM FUR, ET NESCIES*». (APOC. 3, 3).

¿Au dakit; eta nabilen lez, nabil? ¿Jakin ez, bat-batera etoñiko ete-yatan eriotzea;

(1) Vigilate itaque, quia nescitis diem, neque horam. (MATTH., 25, 13).

pekatuan nagola etor'ten ba-yat, betiko galdua izan, eta nasai-nasai pekatuan egon? ¿Neure atzean eriotzea, azur'ezko besoan kodain zo'rotza daka'ela, ziri'stada baten kokota kentzeko; au'rean inpernua, agoa zabalik, neu irunsteko, ta ba'rika, posez ibili? ¿Nire itsutasun au zer da? ¡Ene galdua! Edo ez daukat zinismenik, edo ez daukat bururik.

B I G A R E N A T A L A

Bildu'rga'ria da eriotzea bertan gertatzen diranakaitik.

1.º *Gaisoa* agertzen da, ¡eta ze isilik sa'itan! Ez dirudi gauza andia, buruko min bat, albokoa. Osatza'leari deitzen yako. Ez dau txar'ik ikusten. U'rengo egunean arpegi ilunagoa erakusten dau; ta diño: ¡Eka'ri abadea! Mendi bat lez jausten dira berba onek entzuten dabezanen senide ta lagun'en biotzen ganera. Ezkutaten yako batzuetan gaisoari bere ego'erea; baña, txar'agoaren bildu'ez, esaten deutse: ¡Urlia!, ez da gauza andia, baña ¡osatza'leak..! ¡aba-

dea..! Au entzun dakoan, gaisoak: «¿Zer? ¿Ain txarto nago?»

2.^{en} *Abadeari* deituta, gaisoaren estutasunak eteten dabezan une batzuetan, egiten dira kontuak, sañitan urte askotakoak. Egin leikez ondo, egia da: pekataririk andiena azkenengo unean biurtu leike Jaungoikoa-gana. Baña gorputza estu, miñez ezin egonda; burua aztun, biotza ilun, azken-naya edo testamentua egin bear, asti gitxi: ¿au da, biotza aldatzea baizen arazo gatxa egiteko erarik onena?

¡Ai, Jauna! ontxe, astia emoten deustazunean, burua argi, biotza baketsu, osasunean, zuzendu nai dodaz neure gogoko gauza guztiak. Ontxe nai dot benetan Zeuganatu neure biotz au. ¡Ama Maria!, lagun zakidaz!

3.^{en} *Eskribaua* be batoñ, eta dirautso gaisoari: «¡Urlia! ¿Nori izten deutzazuz zeure ondasunak?» Eta gaisoak edegi bere ezpan orituak, eta berba motelagaz erantzuten deuto: «Izten dodaz etxeak... izten deutsedaz soloak... izten deutsedaz diruak... ¡Guztia itxi, itxi..! ¿Eta beretzat zer izten dau? Ezer bez. Zazpi oñeko kaxatxoa, soñeko zañ bat, luñ-zulo txiki bat: naikoa dau. Eta erukiz

emoten ez-badeutse, ain barik geratuko da.

¡A, zelako atsekabea aberastasunak mai-teegi izan dabezanarentzat! Ainbeste izerdiz lorturiko laukoak, ¿noren eskuetara iges egingo ete-deuste? ¿Eta gerizea lez iges bear deusten diru onek batzeko ainbeste alegin? ¡Ai benetako aberastasunak, beti neugaz eukiko nebazanak, jaristeko, alegin orek egin banebazan!

4.^{en} *Iltamua* (agoliña). Auñera doa gaisoa; geroago ta estuago dago: izerdi lizunetan, zuña zoñoztuta, belari ta ezpan-ertzak ori, begiak erdi-itxita; agoa zabalik, agiñak agirian, bulara jasota, arnasa-oska: eldu da unerik estuena, ¡iltamua! ¡agoliña! Kurutzeko Jesus auñean, kandela bedeinkatua alboan, senide ta lagunak negarez inguruan, Abade jauna liburu santua eskuan dabela ondoan. ¡Arek dira uneak! Abade jaunak dirautso: «¡PROFICISCERE, ANIMA CHRISTIANA, DE HOC MUNDO! ¡Urten, kristiñau-arimea, mundu onetatik! Jaungoiko ta santu guztien izenean. Bigun eta gozatsu agertu dedila zutzat Jesus'en arpegia».

Gaisoa, arnasa luze batzuk emonda, geratzen da geldi, ago ta begiak erdi-zabalik; ¡il da!

IRUGAREN ATALA

**Bildurgaria da eriotzea bere ostean
datozanakaitik.**

1.^o **Arimearen aldetik.**— Arimea gorputzetik urten eta bat-batera agertzen da Jesu-Kristo'ren auzitegi, tribunalean.

Baña itxi daigun au beste gogarterako.

2.^{en} **Gorputzaren aldetik.** — Kentzen deutsez bere soñekotxoak, garbitzen dabe, jasten deutse beste soñeko bat, ez geyean onena. ¡Ze otz, ze gogof dagon! ¿Nor da berakin bakañik gau osoan egon dagiana? Sartzen dabe kaxatxoan, eta iñoren lepoan daroe obitegira, berak pekatuz bete ebazan kaleetatik zear. Ipinten dabe zazpi oñeko zuloan, botaten deutso abadeak luñ apuñ bat, beteten dau zuloa obitzaleak (enteñadoreak); nai daben guztiak zapaldu dagian, mundu guztia ostikopetu nairik ibili dan gizon edo emakume aña: axe izango da emendik auñera bere bizi-lekua: estua, iluna, isila, itzala.

Aztunak dira oñek gure añaokeri ta bigunkeriarentzat; baño ez da besterik gure azkena. Guztiok emendik igaro beañ gara; ¿ta

zetako da bigunkeri geyegia? Begiratu dagiogun, ba, arpegiz-arpegi geure azkenari.

Bigarren egunerako asten da korpua margoak (koloreak) aldatzen. Andik laster ez dago inor, darion atsari arpegi emongo deustanik. Arak, ainkaka, egiten dabez zulorik asko arpegian, begietan, korpu guztian. Ogeigarren eguneruntz aragia azuretatik aldatzen da, burua be bai korputik; gero iztañak, besoak. ¡Iru urte! ¿ta zer biurtu da mutil sendo a? Azaletiko ederitasunaz ainbeste erukañiri zoratu erazo eutsan emakume aro a, ¿zer egin da? Aizeak eroan daben luñun atsitu apur bat, esku bete luñ baltz, lau azur: ¡oña dana!

Gaztea, zein zaña; edeña, nai ainbestekoa ez dana; aberatsa ta ezeukia; bardina da guztion azkena. Agiri da, bai, ilobietan be desbardintasuna, apaltasunaren ikastolara (eskolara) be igon da arokeria-ta; baña barutik usteltasun batek bardintzen ditu guztiak. Edegi erege-obi bat: ez dozue ezagutuko erege ala baseñitañenak diran aurkitzen dozuezan azurak.

¿Ez dozu ikusten, ene arimea, zer dan luñeko ederitasun guztia? Lau azur, azal

apuñ bategaz estalduta. Datoñ eriotzea, oratzen deutso uleetatik, erazten deutso azala, ta geratzen da, dan lez, azuñ utsean.

Eta azaletiko edertasun ori alagiña maitetu dozu? ¿Jaungoiko ain andi, eder eta ongilea oregaitik itxi dozu? ¿Eta ondiok zoratuko zara osterabe, utsa, usteltasuna, guzura baño ez dan edertasuna maitetzeko? (1).

Euki, nai dozun beste arokerizko asmo ta gogapen; baña jakizu laster nai daben guztiak ostikopetuko zaituzala. Eregi jauregi andiak, arkolau (adornau) alde guztietako edergañi ta baratz (jardin) loratsuz: urte gitxi baru luñ-zulo edo orma-zulo bat izango da zure etxea. Apaindu sedaz eta bitxiz gorputz ori; baña ez aztu arak izango dirala zure jantziak (2). Jan asko ta ondo; ainbat estegu geyago eukiko dabe obitegiko arak (3). Batu diroa, jai ta aste geratu barik: ezeukirik beartzuenak

(1) Filii hominum, usquequo gravi corde? ut quid diligitis vanitatem, et quæritis mendacium? (Ps. 4, 3).

(2) Operimentum tuum erunt vermes. (ISAÏ. 14, 13).

(3) Putredo et vermes hæreditabunt illum. (ECCLI. 19, 3).

baño geyago ez dozu mundu onetatik atarauko,

¡Ai, obitegia, obitegia! Zeu zara griña txañez lausuturiko begiak argitzen deuskuzuzana; zeu zara erakuslerik jakitunak ezin erakutsi dabena, unetxo baten erakusten deuskuzuna: ondo bizi ta ondo ilteko jakituri sakon eta ongilea.

¡Obitegia, obitegia! ¡A, zelan gorotatzen zaituzan mundu bañi gaizto onek! ¡A, zelan apurka - apurka, uruntzen zaituzan! ¡A, zelan, al - baleu, jaurtiko zindukezan itxasoko atxik ezkutuenara, zeu ikusiak mingoztu ez dagiozan bere esteguak!

¡Ez nik,! Josi dedila nire bañu-bañuan zure gomutea. Gogoratu zagidazala andinayetan beeratzeko; aragiaren zirikaldietan, otzitzeko; munduko iruzur (engañuetan), argitzeko; egikunetan, obatzeko; pozaldietan, erdiratzeko; ilunaldietan, sendatzeko; ta beti ta gogaldi guztietan, munduan erbestekoa lez ibili, ta zerura begira egoteko.

¡Jesus'en Biotza! Eskiñita daukazu, eriotza gozoa eukiko dabela maite zaituenak; Zeu izango zatxakezela aterpe ta

gordeleku ziuía aldi laíi aretan! Bete neugan agindu eder au. ¡Andra Maria, neure Ama maitetzale ta erukioía, lagun zakidaz estura, laíritasun eta ańisku ain bilduńgańian; «erégutu nire alde, orain eta neure eriotz-aldian». San Juan de Dios'eri Zeure maitetzaleentzat agindu eutsazun lez, ikusi dagidala zure laguntasuna, deabruaren esetsietatik zainduaz; Zeu ta Zeure Seme Jesus'en arpegi edera ikustera, erioztzako atetik igarota, zeruetako atsegin-tzara joan nadin.



Amargañen Gogartea

KRISTIÑAU ON ETA TXAÑEN
ERIoTZEA

JAUNGOIKOARI AURKEZTUTEA, GERT - OTOITZA ta
TOKI IRUDITZEA, lengoak.

LENENGO ATALA

Kristiñau txañaren eriotzea.

Iru izkilukadaz (lantzadakaz) il eban Joab'ek Absalon; iru gogapen (pentsamentu), iru izkilukada lakoxeak, igaroko dabe batetik bestera ilten dagon deungearen biotza: *lengoak, oingoak eta gerokoak.*

1.º **Lengoak** a) *Atsegiñak*: ¿Zer deust oin, egingo dau gaisoak, euki izan dodazan atsegin guztiakaitik? ¿Zetako dodaz, euren gomuteaz neure miñak geitzeko baño? Gerisea lez joan yataz, eta esku utsean itxi nabe, bakotxak biotzean espata bat sartuta. ¡Ai, gozoak dira bizitzan atsegiñak; baño mingotxa da euren azkena; sugeak lez, eztena sartuta izten dabe.

b) *Pekatuak*: ¡Pekatuak bizitzan biotzeko zokondoan sartuta egoten dira. Baña eriotz - aldian leoyak lez urteten dira, zofoztzen dabez agiñak eta erpeak, eurak sortu ta asi dabezan biotza zatitu ta jateko.

Antioko Éregeak, oyan etzunda egoan tokitik Jerusalem'eruntz begiratuta, egiten eban: «NUN REMINISCOR MALORUM QUÆ FECI IN JERUSALEM». *Ontxe bai gomutaten dodazala Jerusalem'en egiñiko gaiztakeriak*. Auxe berau esango dau pekatariak be eriotz-aldian: Ontxe bai gomutaten dodazala egin dodazan gaiztakeriak. Andra-Mariak, Aingeru-jagoleak, sermolariak, liburu onak, lagun benetakoak gogoratzen eustezan; baño nik neure jolasakaz, neure dantzakaz, neure ibilera txararakaz, neure iri ta bañe gangararakaz

ito egiten nebazan; eta oña nun yatoñtazan pekatuzko olatu bat eginda, euren ur loi, baltz, atsitueta artu ta inpernuko ondar-
etaraño amiltzeko. ¡NUNC REMINISCOR!

2.^g **Oingoak:** a) *Aberastasunak:* ¿Zetako dodaz ainbeste alegiñez baturiko diruok? egingo dau beragan gaisoak. ¿Unetxo bateko aldendu leikide eriotzea? Eta geyen bea' dodazanean, ezetako ez dodazan aberastasun onen ondorik ibili naz, jo-ta-su, beste zeregiñik ez-baneuko lez?

Ilten egoan aberats bat, diño ondo ilten laguntzera joan yakon A. Barry jesuiteak; batu ebazan oe-ganean bere diru, ur-
ezko ontzi ta beste bitxi ede'ak; artu eskuetan batean bata ta bestean bestea, ta sotin luze baten ostean egiten eban; ja, neure aberastasun maiteok, noren eskue-
tara joango ete-zaree! Jesuiteak esaten eutsan, a'nen olako zorakeriai izteko, begir-
atzeko bere arimeari; baña ¡alpeñik! ondasunai oratuta, itxi eutsan arimeari deabru-
aren erpeetara joaten.

b) *Lagunak:* Or daukazuz zeure lagun maiteok; eurai atsegin emotea'nen, sa'ritan Jaungoikoa iraindu dozu. Jagi daitezela,

ba, ta lañialdi onetan lagundu dagizuela. **SURGANT ET OPITULENTUR;** ¡Ai! Ezin leikizue ezer egin, ez eriotzea apurtxo bateko aldendu, ez miñik gitxitu; geitu bai, eurak itxi beaíeko damuaz; eta onenean, eurakin egiñiko pekatuen gomuteagaz.

Eta beste lagunak ¿nun dira? ¿Ez eutzuen esaten maite zinduezala, edozer egingo leuskizuela? Ez zaituezan zu maite, zeure gauzak baño; ta oin lortu ezin dabezanean, bakañik izten zaitue. Eta guzur- ezko lagun onekaitik betiko itxi dozu ain benetan maite zinduzan Jaungoikoa?

Jesus'en Lagundiko bat joan zan espetxe edo presondegira, urkatzeko euken baten autorpena (konfesiñoa) entzutera; ta aurkitu eban Kurutzeko Jesus eskuetan eballa, negaíez. Ikusi ebanean jesuitea bera-gana joala, esan eutsan: «Jaun oni egin deusadazan iraunakaitik nagola negaíez, uste izango dozu. ¡Ez! Beíogei urtean berau baño arerio andiagorik ez dot euki; ta oin beronegaz, bakañik, aurkitzen naz. Neure lagunak atsegintzeaíen, Jesu-Kristo'gandik aldendu nitzan, eta ara zelan itxi naberen bakañik, ainbeste samindu dodan Jaun onegaz.

¿Bañiz zer izango litzake, aurkitu baleike nor-edo-nor estualdi atan, lagun txar-en bategaz lotuta? ¿Zer uste izango leuke eriotzako kodaña etoñiko balitz, biotz bi arek, ez lagun-en eskariak, ez guraso ta autor-entzule (konfessoriaren) aginduak, ez izen onen bildurak, ez baruko (kontsientziako) deadañak, ez Jaungoikoaren kastinguak bata besteagandik aldendu ezin izan dabezan biotz bi arek aldentzera? Bein baño sañiagotan ikusi izan da, ez erio-tzearen aurrean, ez iltera doana erabagiteko aurkitzen dan Jesu-Kristo'ren aurrean, ez dabela itxi nai izan euren pekatuko laguna; ta berari oratuta joan dirala lagun maitearen aurretik, Betiko Auzi-epalearen begi itzaletara; ta aren beso bigunetatik, deabruaren suzko besoetara.

c) *Deabruak*: Bizitzan esaten deusku, pekatuai ainbeste ez jaramoteko, ez dirala guk uste doguzan baizen andiak, gero bein edo biritan bulara jota, Jaungoikoak azketsi (parkatuko) deuskuzala. Baña estualdi atan pekatu-aldra andia ekañten dau burura, geitu ta anditzen ditu, begitandu erazoten dau asañatuta dagola Jaungoi-

koa, ez dagola astirik, naita-ez galdu beař dala. Ain itzal eta bildurģařia bada beti deabruaren arpegia, ģzer izango da ordu laři atan agertzea?

Ba San Agustin'ek diño, ez dala ilten iñor, deabrua zelan-bait ikusi barik; San Zirilo'k bizturiko batek esan eutsala, zenbatu ezin-ala deabru agertu yakozala il-or-duan.

Arturen bat daukanak, sořduna eřian dagon bitartean, ez dau ainbeste estutzen; baña eřitik urteteko badago, ezin deutso bakean itxi; ba-dakielako orduan izten badau, betiko galdu dabela. Ba beti ba-dabil deabrua gure inguruan, bakotxa iruntzi-nairik; ģzer izango ete - da, geyago astirik ez daukala, axe dala azkenengo garaitzeata, amuřurik bizienaz iltamuan estu - estu dagonari agertzen yakanean?

Eta mirari izango da, deabru ain gogořak, su-ta gař arima eřukařia galtzera datozeanak, gizon makala, ainbeste bidar goitu izan dabena, arimarako sarlekuak ondo dakioazana, une baten goituta iztea?

Ez dagiodan itxi deabruari bizitzan ne-ure ariman sartzen, eriotz-aldian be sartu

ez dedin. Kendu dagiodazan ontxe orakañiak, pekatuak; orduan nundik oraturik euki ez dagian. Ez dagiodan itxi atsegiñai biotzean sartzen; nai-ta-ez itxi bea' dodazanean, eurakaz batean josita dauken biotz-zatia eratzi ez dagiden. Ito dagidazan ontxe nega'etan pekatuen piztiak; gero iruntzi ez nagien. Ez nedin batu lagun txara'kin, eurakin egiñiko pekatuen gomuteak, ordu la'ri a, la'riago egin ez dagidan.

Gerokoa: Ain itzal eta bildu'ga'ia izan a'ren ilten dagon pekatariaren *lengoa* ta *oingoa*, asko be txara'go da bere gerokoa. Baña au urengo gogaketarako itxi bea' da.

BIGAÑEN ATALA

Kristiñau onaren eriotzea.

Lengoa, oingoa ta gerokoa guztia da emen pozga'ia.

Lengoa: *Atsegiñak* ez dabe minduten; lenago, zu'rtasun andiaz, itxi dituz-eta.

Pekatuak be ez dabe estutzen, negafakaz txikitu ta ezerbeztu dabezalako.

Oingoa: ¡*Ondasunak!* Euki badituz be, biotzaren azaletik euki ditu; ta ez yako aztun egingo betiko iztia.

Lagunak: ¡Ai zelan poztuten dan eurakin! ¡Aguí! dirautse, aguí lagun maiteok; ¡banoa! ¡an itxarongo deutzuet, andik eskatuko dot zuen alde!. ¡Aguí! ¡Geroarte!

Deabruak agertzen bayakoz be ¡ze bilduíf gitxi! Lenengotan apuñen bat;baña Jesus eta Andra-Maria'ren laguntasunaz, laster íges eragiten deutse, arapataka, bata bestearen ganean.

Gerokoa: ¡A, zelan poztuten daben Jesus onak! Erdu, dirautso bere bañuan, erdu, miña, ezeukia, esetsia, deabrua, pekatua, ta gaiztakeria baño ez dagon mundu gaizto oretatik. ¡Erdu! JAM HIEMS TRANSIT: ¡Ez dago geyago zutzat ez otzik, ez berorik; ez miñik, ez gaisorik, ez eriotzarik, ez esetsirik, ez ariskurik, ez pekaturik!

¿Eta Andra Maria'k? Ez da pekatarien Ama? ¿Ez da erukitasuna ber-bera? ¿Ba zelan lagun-du ez bere semeari, ain bere beañez dagonari? ¿Ez deutso eskatu beñogetamañ bidañ, gitxien-

ez, agurtza (erosarioa) esan daben bakoitzean: «Eregutu gure alde, orain eta geure eriotz-aldian?» ¿Eta Andra-Mariak lagundu ez?

¿Zorionekoak orduan, Andra Maria maite izan dabena; zorionekoak San Jose'ren eraspina (deboziñoa) euki dabena, bere antzera Jesus eta Maria'ren laguntasunaz ilteko; zorionekoak, batezbe, Jesus'en Biotza asko maitetuaz, egizturik ikusten dabena bere agindu eder au: «Neuk atseginduko dodaz bizitzan eta batez be eriotz-aldian».

«EN PROPONO IN CONSPECTU VESTRO HODIE BENEDICTIONEM ET MALEDICTIONEM». (1) Ara or, ene arima maitea, zelan Jaungoikoak aututeko emoten deutzun bere oneste (benediziñoa edo gatxeste (maldiziñoa), eriotza ona, edo txara; zeure eskuan daukazu. ¿Eta ain buru bakoa izango zara, onetsiaren ordeztzat gatxetsia; eriotza on-baten lekuan, eriotza txara; betiko bizitzea artu bearean, betiko eriotzea aututeko?

¿Ez? Ba ez aztu, eriotza ona bizitza onaren oyua baño ez dala. Eriotza ona naitzazu, artu bizitza on bat; bestela galduen eriotzea ganean dozu.

(1) Deut. 11, 26.

Jesus'en Biotza, neure Ama maite,
Andra-Maria, San Jose doatsua; lortu egi-
dazue zeuenaren antzera, santuen eriotzea,
ta oretarako bizitza on bat.

J A Z O A

Saíi aitaturiko San Frantzizko Borja'taía, Kataluña'ko Eélege-ordeko zala, izentau eban España'ko Eélege Karlos I.^{ak} beronen emazte Isabel'en korpua Toledo'tik Granada'ra eroateko. Eldurik, edegi korpudun kaxea, ta dirautso eskribauak: «¡Frantzizko! ¿Autortzen dozu auéan daukazun korpua Isabel Agintariena dala?» Eta Frantzizko'k, korpugan josita eukazan begiak jaso barik, erantzuten deutso: «Nik autortu neikena da neure auéan ipiñi ebela kaxa oretan, eta iñok ez dabela atarau. Baña korpu itzal ori dala bere edeítasunaz Europa guztia arituta eukan Isabel Agintariaren gorputza, ezin autortu dot».

Eta antxe bertan zin edo juramentu egin eban, guztien auéan, munduko eélege ilkoñik ez otseintzeko; baita Jesus'en

Lagundian sartzeko be, emaztea lenago ilten bayakon. Alan sartu zan; eta batezbe eriotzearen gomuteaz nekerik gogoñenak bere buruari emonda, santutasun eregira eldu zan. Oñetxegaitik buru-azuñaz (kala-beriaz) iruditzen dabe.

Amaikarentzat izango litzake gure gorputz ustelkoñ onen etoñkizuna gomutatea, ain santutasun andirako mañadi (eskiñerea) izan ez da be; beñik-bein munduko azalezko edeñtasunak alañiña ez maitetzeko naikoa dan bestekoa.

B I G A Ñ E N J A Z O A

San Frantzizko Borja'tañaren bizitzan irakuñten da, zaldun nagosi, baña bizikera txañeko bat, Valladolid'en, eriotzan autortu nai ez da egonik; asi zala santua Jesus Kurutzekoari bere alde eskatzen. Jesus Kurutzekoak, burua jasota, berba egin eutsan santuari, esanaz: «Joan zaitez gaiso-agana, zuk autortzeko zirikatzen dozun bitartean, Neuk neuronek lagunduko deñtsat, osatzañe (mediku)-antza artuta. Joan santua

gaisoenera; ta, osatzale-antzean egoan Jesus'en aurrean, asi zan, a'ren, autortzeko eskatzen. ¡Alpeñik! Jesu-Kristo'k alde egin eban, eta geratu zan santua gaisogaz bakarrik. Baña gaisoa asarátzea baño lortuten ez eban lez, eskatu eutsan osterabe Jaunari, arima a ez daiteala galdu. Jesu-Kristo'k erantzun eutsan kurutzetik: «Gaiso onen arimearen salbaziñoa zein maite dodan ikusi dagizun, beragana eroan nagizu».

Santuak, artu Kurutzeko Jesus, eta badao zaldunagana. Asi yakon bañiro autortzeko eskatzen. ¡Ezetz! berak. Eta ara nun asten dan Jesus Ona bere zaurietatik odola dariola. Gogoñ ondio gaisoa. Berba be egiten deutso Jesus'ek Kurutzetik, esanaz begiratzeko zenbat igaro daben berealde. ¡Guztia alpeñik! Azkatzen dau Jaunak Kurutzetik beso bata, sartzen dau eskua sayatzeko zaurian, artzen dau esku bete odol, eta jaurtiten deutso gaisoari, esanaz: «¿Ez dozu nai izan artu odol au zeure salbaziñoako? Ba, zeure galdumendirako izan dediña». Gaiso efukaña, Jaungoikoari biraurik ikaragarrienak jaurtita, geratu zan ilda.



Amaikagañen Gogartea

BAKOTXA-BEREN JUIZIOA

JAUNARI AURKEZTUTEA ta GERT-OTOITZA,
lengoak.

TOKI-IRUDITZEA:

Iruditu dagidan neure arimea Jesu - Kris-
to'ren aurrean, auspaz, lotsatuta, ikaraz.

ESKAKIZUNA:

«Josi, Jauna, nire aragia zeure bilduñ
santuaren untzeaz, zeure Juizioaren bilduñ
naz-da». (1).

(1) Confige timore tuo carnes meas: a judiciis enim
tuis timui. (Ps. 118, 120).

LENENGO ATALA

Auzi-Epaleari Aurkeztutea.

¡Amaika bidar, Jaungoikoak deitu aŕen, ez-entzun egiten deŕtsagu; edo, geyenez, «**gero**» erantzun! Baña ildakoan, ez dago ezetzik, ez dago luzapiderik. Ezleuke nai agertu arima deungeak Jesu-Kristo'ren aur-ean; eta, nai-ta-ez, agertu beaŕ; iges nai leuke; baña, katez lotuta balego lez, geldi egon beaŕ.

An dago, ba, auzitegian (tribunalean). ¿Nun? Il dan tokian bertan. ¿Nun ilten da geyenean? Oyan. Oya izango da geyenon auzitegia. Gauza santua izan beaŕ leuke kristiñauarentzat oya. Oerakoan egizu: «Ementxe erabagiko nau Jesu-Kristo'k».

Urten arimea gorputzetik, eta lenengo ¿zer ikusten dau? Jesu-Kristo, gure Jauna, il eta bizien Auzi-epalea. ¿Zelan? Pekatu aztunean urten bada, arpegi guztia asaŕatuta, begiak oñestaŕia baño argiago. Bere aur-ean jausten da auspaz pekataria, ta jauretsi (adoraten) dau, deabruak eurak, nai-ta-ez, Jauntzat ezagutu ta autortzen dabena.

BIGARĒN ATALA

Auzia.

Iruditu, ba, bakotxak bere burua, arpegia luĕean josita, laguntzale barik, pekatuz beterik, deabruz inguraturik; eta auĕean Auzi-epalea, *guztia dakiana*, ezaupidera eldu zanetik ordurarte euki dabezan gogapen (pentsamentu), gurari, berba ta egikune guztiak gogoan daukazana. Auzi-epale *guztiz Santua* aingeruetan eurretan be loya aurkitu ebana, pekatuari ain goĕoto andia deutsana, pekatua ilteko bere bizitzea emon ebana. Auzi-epale *guztiz Zuzena*, ez eskariz, ez bilduĕez, ez sariz biguntzen ez dana. Auzi-epale *guztiz Ona*, ainbeste on egin deutsana, guztien ordez eskeĕ txara baĕo artu barik. Auzi-epale *eroapen* (pazientzia) *guztiz Andikoa*, gaiztakeriari ordurarte ez-ikusi egin deutsana bere asaezko olatuari, ganera jau-si ez dakigun, eutsiten egon dana.

Zer egin dagike, ba, pekatariak, ikusirik bere auĕean, beragaz asaratuta, Auzi - epale neuĕi barik Jakituna, Santua, Zuzena, Ona, ain Eroapen andikoa? ĕNogana zuzenduko

da? ¿Maria'gana? ¿Zelan, bere Biotz samuía ainbeste bidar samindu, bere Seme maitearen Odola zapaldu; ta arimak bere Biotzetik ostu, ta deabruaren erpeetara, galbidez (eskandaluz), jaurti baditu?

¿Nora, ba, joango da? ¿Aingeru-jagolea-gana? ¿Baña bere esanik egiten ez ba-eban? Deabrua izan da bere adizkidea, deabrua izango da bere zalatzalea (fiskala) be. Ipiñiko deutzaz aúrean, gogapen, gurari, berba, ta egitezko pekatu guztiak, gogoan eukazanak eta azturikoak. ¡A, ze pekatu-aldea!

Orduan, garaitzale-antzera esango dau deabruak: «Jauna, ara emen pekatari gaizto au: ¿Bakizu zelako mezedek egin deutzazuzan? ¿Eta nun da eurai zor yaken esker ona? Nitzat, bañiz, bere areriorik andiena izan aren, beti izan da esanekoa ta zintsoa. Ugutz-aldi edo batio santuan agindu eutzun, Zeu bakañik maitetuko zinduzala, ez ni, ez mundurik, ez aragirik. Begiratu ia guztia bestera eskiñi baleu be, egin dabena baño egingo ete-eban. Neurea izan da au oin arte, neurea izango da betiraune osoan».

Jesu-Kristo'k ezañten deutzaz begi bi tximistea baño sutsuagoak; eta arako zugatz

(arbola) tantayak—Dabid'en esana da—ebagiten dabezan deadañagaz, dirautso: «EXISTIMASTI INIQUE, QUOD ERO SIMILIS TUI? *¿Galdu oñek, zeulakoa izango nitzala uste zenduan? Edan gaiztakeria, edontzi edo baso bete ur otz lez, eta egiten zenduan: ¿ET QUID? ¿Eta zer egin dot? ¿Zer? Ontxe ikusiko dozu. ¡REDDE RATIONEM VILICATIONIS TUÆ! ¡Emoidazu kontu!*

Diño ta ataraten dau liburu andia, pekatari oñen bizitza guztia daukana (1). Alde batean daukaz Jesu - Kristo'ren mezedo guztiak; bestean, zelan bakotxari erantzun deutzan.

Edegiten dau, ba, liburu au, ta deadañ ikaragañagaz dirautso: «¡REDDE RATIONEM! *¡Emon kontu!*”

Nik emon neutzun gorputz ori bere begi belañi, min, esku, oin eta beste zati guztia-kaz: *¿Zetan erabili dozuz? Neuk iratzi neutzun arima eder ori; bere adimenaz, ni eza-gutzeko; naimenaz, neu ta bakañik neu maitetzeko; gomutamenez, neu ta neure ondo-egiñak gogoratzeko: ¿ori egin dozu? Neuk*

(1) Liber scriptus proferetur.—In quo totum continetur.

idatzi neutzuzan biotzean, Moises'en ari bi-
 etan baño bañurago, Amañ aginduak: izentau
 zeure atzamañagaz bat be, sañi ausi ta os-
 tikopetu ez dozunik. Zeugaitik neure Odola-
 gaz eregi neban Eleizako Jauregia; ipiñi
 neutzuzan zazpi Sakramentu, pekatu egin
 ez egizun, edo, egiten zenduzanean gar-
 bitzeko. Zeugaitik egon naz Altaran gau ta
 egun, ainbeste urtean aldendu barik. Zenbat
 bidar deitu neutzun bertatik: «Ene semea,
 ene alabea, itxi egizu bide txañ a, lagun
 gaizto a, añisku a; ta zuk ondo dakizu zer
 erantzun zeunstan. Ba oin: ¡REDDE RATIONEM!
 ¡Emon kontu!

Esan, eta bat-batera biraten dau liburu
 andiaren oñia; edo, gauzak jazoko diran lez
 esateko, jaurtiten dau pekatari erukañiaren
 bañura argi bizi bat: beragaz urteten dira
 arimako zokondotik, ordurarte lozoñoan egon
 diran pekatuen piztiak, eta iñintzaka diñoie:
 «Zeure eskuen egiteak gara, ez zaituguz
 itxiko».

Zer esango dau pekatariak, ikusi dagi-
 zanean bere añañean, gogapen, gurari, ber-
 ba ta egitezko ainbeste pekatu ta ain andi?
 ¿Zer esango dau, eguzkia baño argiago

ikusi dagianean, zein txar-to erabili dabezan bere sentzumen eta almenak; zelan ezin leikean izentau sañi ausi ez daben agindurik, zein jaramon gitxi egin deutesen Jesus Onaren maitetasunezko deyai; zein txar-to erantzun deutesen bere ondo egiñai; zein sañi alpeñik galdu ta ostikopetu daben bere Odol edeña?

Zorioneko Margarita M.^a Alakoke'tar'ak egiten ebazan pekatuaren antzik be ez euken utsegite batzuk. Oregaitiño be olakoetan nayago ebala diño inpernuan bizirik sartu, Jesus'en auñean agertu baño: alagiñakoa izan oi-zan bere lotzea. ¿Zer izango da, ba, pekatariak Jaungoiko asaratuaren auñean eukiko daben lotsea, ikusi dagianean bere arimea ainbeste pekatu aztunegaz loituta; ikusi dagizanean ainbeste goñoto, ainbeste lapuñeta, ainbeste loikeri? Alpeñeko berbatxo bategaitik badiño Jesu-Kristo'k, kontu estua emon beañko dala, ¿zer izango ete-da, ainbeste añokerizko berba, ainbeste murmuria, ainbeste berba nasai, ainbeste autu zikin, ainbeste kantu zatañegaitik? Eta batezbe zer izango da, auñean daukan Jesu-Kristo'ri jaurtiriko ainbeste birau ikaragañi-gaitik ¿QUID SUM

MISER TUNC DICTURUS? *Erukari onek ¿zer esango ete-dot orduan?*

¡Ai! oin atxaki asko, gaztea dala, besteak be alan dabilzala, makalak gareala; aragia zitala dala. ¿Atxaki oñei ondo deritxezu? Gorde, ba, Jesu-Kristo'ren auñerako; eta, zeure pekatuakaitik arpegia, artzen deutzu-nean esan: «¡Jauna! Egia da; egin dot; baña gomuta zaitez gaztea izan nazala, besteak be beste ainbeste egiten ebela». ¿Azartuko zara esaten? Ba oin be ez ontzat artu; bestela zeure buruari iruzur egin (engañau) baño ez dozu egingo.

¡Ezin ezer erantzun! Geure gaiztakeriak eurak agoa itxiko deuskue. (1)

Pekataria geroago ta estuago, dañdañ. Osta-osta jasoten ditu bere begiak Auzi-epaleagana, ta len baño be asafe andiagoaz ikusten dau. Bildura geituagaz joako. Nun dagoan be ia ez daki. Mila bizi kenduko leuskioz batean, daukan lotseak.

(1) Omnis iniquitas oppilabit os suum. (Ps. 106, 42.)

IRUGAREN ATALA

Epaya

Auzi-epaleak luzatzen deutzaz begi asañez sutuak; eta, trumoya lako deadañagaz, dirautso: «DISCEDE A ME, MALEDICTE, IN IGNEM ÆTERNUM». «*Alde Nigandik madarikatuari betiko sutara*». *¡Alde!* Neu nok ire Aita, ire laguna, ire zoriontasun bakaña; Nigandik aldenduta, gosea, egaña, negaña, zoritxañ guztiak baño ez dozak eukiko; baña *¡Alde Nigandik!* Nik nai neuan betiko laguntzat; ik ez dok nai izan; oa, ba, Nigandik, madarikatuari; madarikatua bizitzan, madarikatua eriotzan, madarikatua betiko iraune guztian; madarikatua Nire añaean, neure Aitaren añaean, aingeru ta santu guztien añaean, baita eure begien añaean be. *¡Alde!* ¿zer egiten dok oindiok emen? ¿Nirekin baño deabruakin nayago izan dok ibili? Tira, ba, berakin batera, beretzat, ez iretzat egiñiko sutara. *¡Sutara! ¡Sutara!* ¿Noiz arte? ¿Urte beterako, eun urterako, mila urterako? Ge-yago. *Betiko sutara. ¡Alde Nigandik, madarikatuari betiko sutara!*

Epai onen zain inguruan dagozan deabruak, ¡ijui! eginda, Aingeru - jagolea ta Andra-Maria, ez ikusteañen, albora-begira geratuta, ezarten deutsez erpeak, ¡ai, betiko! ¿nok azkatu? ¿zelan ipiñiko ete-dabe, Jaungoikoak, minduteko, euren eskuetan itxi daben arima erukañia? Eteten da luña, ta irunzten dau pekataria. ¡Galdu da, ta betiko!

¿Ezbeañik andien au nire ganera etoñi al-leike? ¡Bai! ta ziur, pekatuko bidea, lagun txañak, ekandu loyak izten ez ba-dodaz.

¡Aingeru-jagola maiteori! Bizitzan ardurarik andiena ez ba-daukat, ezin azkatu izango nozu orduan deabruaren erpeetatik! Lagundu egidazu ontxe, euren kate ta nire griña txañen lokañiak apuñtzen. ¡Andra-Maria! Iñoiz baño maiteago zaitut, ikusten dodalako ze Zeure beañez nagon estualdi atarako. ¡Ai, ez dagidala orduan ilun ikusi Zeure arpegi gozo ori. Baña oñetarako ondixek ordurarte Zeure seme zintso ta benetako maitetzale izan nadila; orduan, neure Ama arduratsua lez, deabru guztiakandik zaindu nagizun.

¡Jesus ona! ¡Ene Erabagile bilduñgañia! Biotz-biotzez maitetu nai zaitut. Zuk, bañiz,

maite zaituna, maite izango dozula aginduta daukazu. (1). Ba, eruduna maite daben erabagileari, nor izango yako bildu? ¡Jesus'en Biotza! Sutu, a'en, neurean Zeurio'en maite-tasuna; Zeugandik iñoiz bizitzan aldendu barik, entzun dagidan Zeure maiteari emongo deutsezun epaya: «Erdu Neure Aitaren bedeinkatuok; jaubetu zaiteze zeuentzat betiraunetik gertuta daukadan ereñuaz».

J A Z O A

San Juan Klimako'k diño Sinai'ko mendian bizi zala Esteban eritxon lekaide (erlijioso) bat, bere laztasun eta nekeakaz beste guztiak a'rituta eukazana. Baruak etenbakoak ziran, eskariak luzeak, ugariak malkoak; oya lu' ganea; atsedena, astinaldi (azote) odoltsuak. Olantxe bizi izan zan berogei urtean, aberiak eurak be itzalez begiratzan eutsela. Eriotzea eldu yakanean, ingurutu eben beste lekaideak, eta ikusi eben Jaungoikoari emon eutsan kontuaren irudi benetan bildulgaría.

(1) Ego diligentes me, diligo. (Prov. 8, 17)

Guztia ikaraz beterik, begiratu albo batera ta bestera, ta asi zan esaten: «¡Bai! egin neban; baña autortu neban, baita pekatu oregaitik ainbeste bidar baru egin be». Apur baten geratuta: «¡Guzuía, guzuía! Ez dot olakorik egin». Isildu zan une baten, eta gero: «Egia da; egin neban; baña oregaitik egin dodaz nekaldiak (penitentziak) onen beste aldiz». Isildu zan osterabe; ta gero amaitu eban, esanaz: «Olan da; egin neban, eta zer erantzunik ez daukat: Jaungoikoaren eukitasunak lagundu dagidala».

Au esanda, mututu zan, guztiak bere salbaziñoaren bildurez itxita.



Amabigaren Gogartea

GUZTION JUIZIOA

JAUNARI AURKEZTUTEA, ta GERT-OTOITZA
lengoak.

TOKI - IRUDITZEA:

Iruditu dagidazan Jerusalem'go uriaren ondoan mendi bi, Eskopus eta Olibete'koa, ta bitartean zelai estu bat, Josafat'ekoa: inguru aretantxe izango da Auzi (Juizio) au.

ESKAKIZUNA:

«Josi, Jauna, nire aragia zeure bildu' santuaren untzez; Zeure epayaren bildu' naz - da».

Bakotxaren auzia (juizioa) eginda gero, ¿zetako ete-da guztiona? Gauza bitako. Bakotxarenean, Jaungoikoaren jakituri ta zuzentasuna ikusten da, baña bakotxak bakañik; eta asko dabiz esaten: «Zetan Jaungoikoak au edo bestea egiten dau? ¿Zetan arako edo onakoa egiten izten dau?» Bego, orduan, beste auzi bat, eta guztion aurrean, guztiok ezagutu gauza bakotxean Jaungoikoak euki daben egokitasun, jakituri ta zuzentasuna, ta autortu dagigun: «JUSTUS ES, DOMINE, ET RECTUM JUDICIUM TUUM: *Zuzena zara, Jauna, ta zuzena da Zure erabagia*».

Ganera, bakotxaren auzian, norbera baño ez da lotsatzen; ta oretxegaitik nai dau Jaungoikoak, beste auzi baten, guztion aurrean, pekataria lotsatu, pekaturik egin ez dagian; edo, egin badau, autortu dagian; ba zuzen autortzen diranen pekatuak, edo ez dira agertuko; edo, obeto, agertu bai, baña, lotsearen orde, gorapena baño ez deutso ekañiko, Maria Madalatañari, bere pekatuak Ebanjelioan agertuaz gertaten yakona.

Emendik atera leike, añaña izan bea dala azken-auzi au, geu añañeko gertuta daukalako Jaungoikoak.

LENENGO ATALA

**Arigaria izango da azken-auzia, bere
aurretik dakazanakaitik.**

Etoñiko da *Antikristoa*, ta beragaz batera ta bera buru dabela, beste asko, masoyak batzun eritxiz, ta buñukarik bizierna Jesu-Kristo'ren Eleizeari egingo deutse. ¡Zenbati ziñismena galdu eragingo ete-deutse! Erukañiak, diño Jesu-Kristo'k, egun aretan biziko diranak. Etoñiko dira gudak (geñak), gaisoak, goseak, luñ-ikarak.

Luñ - ikarea gauzarik bilduñgarierna da. Luña asten da zarataka, ikaraz norberen oinpean; abererik uzuenak (feroces), urten euren artzuloetatik, eta eñuki-bila datoz gizonagana. Mendigoitik urteten dan ke baltzak estaltzen dau ortze (zerua), ta egun argia gau ilun biurtzen dau. Keyagaz batera, burdiña ta burdiña-antzeko beste gauza aztun, irakinduak, sutunpa (tiro) ikaragañiak egin-da, mendian-bera datoz, laba luzeetatik urteten dan burdiña goriaren antzera; ta bidean aurkitzen daben guztia, eñe ta galduta izten dabe. Baita Bilbo lako uriak, euren ganean

soloak edegiteko bestean, ondatuta itxi be.

Oraintsu Ekuador'en onako lu'ikara baten, gizonik ziñisbakoena, Jaungoikoa'ren gauzai iri ta ba'fe egin oi-eutsenak, zurbilduta, igarota, kalien erdian besoak zabalik, asi ziran, euren pekatuak guztien a'fean autor-tuaz, Jaungoikoari parka-eskatzen. ¡Ai, ze gitxi daben naikoa Jaungoikoak gizona beratu ta ezerbeztzeko!

Lu'ikara batek a'lagiña gizonak estutzen ba-ditu, zer uste izango dabe Auzi-eguna u'feratzen danean, orduko ziñisbako ta osterantzeko gaiztoak, Jesu - Kristo'k diñoan lez, lu'ikarak alde guztietatik ikusten dabezanean? (1). E'rege, Agintari ta gizonik andienak, itxi euren jauregi apainduak, eta atxarte ta leza-bila ibiliko dira; ta mendiai esango deutse: *CADITE SUPER NOS. Mendiak, gure ganera jausi, ta eskutau Auzi - Epale-aren begi asaratuetatik.*

Eguzki ede'ra baltzituko da, ilargiak artuko dau odol-margoa (kolorea), iza'antzeko suak ortzetik (zerutik) lu'era jausiko dira. Gora-bera onek eka'iko dabe, orduraño eza-

1) Terræ, motus per loca. (MAR. 13, 8).

gutu ez dan ekaitz (tenpestaderik) andiena; aize gogoñak sustrai-sustraitik aterako ditu zugatz (arbola) tantayak; añiak jausiko dira, entzungo dira trumoi-ots ikaragañiak; oñeztuak, Jaungoikoak gizonari jaurtiko baleutsez lez, zuzen-zuzen etoñiko yakez ganera.

Ugarte (islak) ondatuko dira, mendiak euren tokitik urten; su ikaragañi batek eñe ta auts biurtuko ditu jauregiak, baratz (ortuak), eleizak, gizonak luñaren ganean jaso dabezan gauzarik edeñenak.

Anti-kristoa ta bere lagun, Auzi-epalearen arerioak, ilgo dira, ta orduan ortze edo zeruak, abanikoa batzen dan lez, batuta geratuko dira.

Alde dabe gizonak luñetik, ez da ikusten abererik, ez da entzuten txoririk: luñ guztia dago obitegia (kanpo-santua) lez, isil, itzal, eñeten.

Bakañtasun itzal oñetan bizien ezaugañi bat bakañik entzuten da: aingeruaren deadaña. Mundu zabal osoan entzungo dan turutu (tronpetea), luñaren lau alde-etaruntz aulñetiaz jota, esango dau: «¡SURGITE, MORTUI; ET VENITE AD JUDICIUM! ¡*Ñak, gora, ta tira epaitegira*».

Onegaz luñak ateraten ditu bere eñayetan daukazan gizon guztien autsak, itxasoak jaurtiten ditu leoñera azuñak; aingeruak batzen dabez, dagozan tokian dagozala, gizon bakotxak il zanean euki ebazan zatirik geyenak. An dagoz korpuak luze-luze, eñeten dagon luñaren ganean. Olan bakotxa beren etxea osotutakoan, datoza arimak, batzuk garbitoki (purgatorio)-tik, geyago zerutik, inpernutik asko be geyago; ta geratzen dira bakotxa bere korpuaren auñean. Arima onak esango deutse euren korpuari: «¡Zorionekoa, ene korpua, artu genduan arako nekea edo penitentzia; zorionekoa galbidetik urten giñan eguna; zorionekoa atsegin txaña alkañi ukatu geuntzan eguna; zorionekoak igaro genduzan atsekabe ta estutasunak! ¡O, ta zelako atsegin eta zabaltasuna betiko ekañi deuskuen».

Galduak bañiz: «Madarikatua, diño e pekatu egiten asi giñan eguna; madarikatua galdu genduan ontzeko era edeña; madarikatua arako bide okeña, madarikatua arako atsegin zaña, ta zelako atsekabe ta naigabeak ekañi deuskuezan bioi betiko».

Batzuk pozezko oyu ta besteak negañez-

ko deadar onetan dagozala, datoz aingeruak, eta onak txarakandik aldentzen dabez: ¡aldentze aren mingaria! Orduan doaz etxe batekoak, batzuk aingeruakin, besteak deabruakin; gurasoak aingeruakin, seme-alabak deabruakin; ezeuki (pobre) ona aingeruakin, aberats aro, mundukoya, deabruakin; Jaungoikozko otseña, aingeruakin, ugazaba gaizto, zirikatzailea, deabruakin. San Mateo, San Agustin, Santa Maria Madala'tara, Santa Margarita Kortona'tara, Tais Pekataria, ta beste asko, aldi baten mundu-zale, pekatariak, eta gero Jesus'en maitetzale zintsoak, aingeruakin; Erromatar bost urteko mutilkoa, amaren altzoan birau bat jaurti ta batera deabruak eroan ebana, deabruakin, baita zaritakeri bat-egin eta il zan zortzi urteko neskatotxoa be.

Batzen dira, ba, onak eta doaz goruntz, airean, Josefateko zelai ta inguruetako Eskopus eta Olibeteke mendien parean geratu arte. An dagoz. ¡Batzakuntza aren edera ta ikusgaria! An Erkabak (Eriko-Abak, Patriarkak), an Igarlak, Bialduak (Apostoluak), Zinopa (Martiriak), Autorleak, Dontzelak, bakotxa bere aldran (koroan), bakotxak bere

ezaugarriak eskuetan dabezala. Zoriondun baten gorputza, Jesu - Kristo'k diñoanez, eguzkia baisen argia bada, ¿zer izango da ainbeste zoriondunek zabalduko dabena argia, izanik Ziñopa (Martiriak) bakarik ogei miloi inguru?

¡Bañiz ze itxusia, ze baltza, ze ikaragarria galduen aldra andia! ¡Aren arpegi amuratuak, aren garaizi ezin entzundakoak, aren birau arigariak!

¿Zer izango da, ba, jaso euren begi asarrez eta suz gorituak zoriondunakana, ta argi-argi ezagutu dagiezanean eurak munduan iri ta bare egin eutsenak? «An, an dagoz, egingo dabe; an dago urlia, berendia be bai: ¡a ze zoriontsuak diran! ¡Nik, burubako onek, bare egiten neutsen, arako jolas eta ariskueta ez joateko esaten eustenean; eta jai-aratsaldetan Eleizara edo Eskolara joazala ikusten nebazanean, gangarikeririk asko esaten neutsezan, gauza ez zirala, burubakoak zirala-ta. Neu izan naz, ni, ganora ta buru bakoa».

Illeta onek diñoezan bitartean, GLORIA IN EXCELSIS DEO, deadañ egiten dabe zoriondunak: *Omena (gloria) Jaungoikoari goialdeetan*. Jasoten dabez guztiak euren be-

giak, eta an nun agertzen dan urunean argitasuna: aingeruen bederatzi aldrak, San Migel auřetiko dabela. Bere eskuetan dakař Jesu-Kristo ilzan Kurutzea ber-bera.

Ikusitakoan, ĩnok esan zoriondunen poz eta atsegiņa? «VEXILLA REGIS PRODEUNT, diņoe: *Ara nun datořen Gure Jaunak erosi ginduzan Kurutzea, belaunikotu, ta guztiok agur-tu (adorau) dagigun*».

Aingeruen atzean datoz Elias eta Enok: iru egun lenago il ebezan Antikristoa'k; baņa gero berbiztu ta gorputz eta arima sartu ziran zeruan. Eurakin datoz Jesu-Kristo'gaz batera berbiztu, ta beragaz zeruratu ziranak. An datoř San Jose doetsua; an datoř gure Ama maite, Andra Maria, Eřegiņa altsu bat baņo mila bidar apainduago; an datoř guztien erdian Jesu-Kristo, gure Jauna, eguzkia baņo neuři barik argiago, odai edeř-ganean, esku-bide ta nagositasunik andienaz.

Begiztatzen dabeneko, belaunikatzen dira guztiak, onak eta deungak, arek maitetasunez, onek bilduřez. Zoriondunak doaz beraganutz airean; beragaz batzen dira ta geratzen dira airean Josafat'eko zelai-parean.

¡A, ikuskizun edeña! Aingeruak esku-
matara jarleku ederetan, eurakin amabi
Bialduak (Apostoluak) amabi jarlekutan;
eurak baño uruntxoago Erlijiosoak, gizon
galduak gaiztotzat, ezereztzat gaukezan
Erlijiosoak; Erkabak (Patriarkak), Igar-
lak, Autorleak (konfesoreak), Dontzelak.
Erdi-erdian, beste guztiak baño jarleku
asko be ederaigoan, Auzi-epalearen Ama,
Zeru ta luereko Eregiña altsua, Betsabe
Eregiña bere Seme Salomon'en eskuman
egon oi-zan lez; eta bere ondoan Jesu-
-Kristo, gure Jauna, izan diran eta izango
diran gizon guztien Eregea, ilen eta bizien
Auzi-Epalea, eguzkia baño argiagoko odai-
-ganean, urezko koroya buruan, eta eskuan
kodain zoñotza dabela, San Juan'ek ikusi
eban lez.

Orduan asiko dira aingeruak, zorion-
dunak, baita sentzumenik ez dauken gauzak
eurak be esaten Auzi-epaleari: «EXURGE,
VERITAS, ET QUASI DE PATIENTIA ERUMPE».
*«Jagi, egiori; naikoa da iraupenik (pazien-
tziarik)».*

B I G A Ñ E N A T A L A

Auzia.

Auzitegi (tribunal) onen aúera joan beańko da, ba, pekatari eúukańia. ¿Zelan egongo ete-da, luńeko auzitegitxoan dań-dań egoten dana? An dago bilduńen bilduńez ikaraz ¡Ai zelan sartuko litzaken bizi - bizirik inpernuan bertan, auzitegi aretan agertu bańo lenago! Doala, ba, erabagita, galduta dagon ezkerro. ¡Ez! Eriotza-osteko auzitegian, bakańean izan zan erabagia. Orduan esan eutsan Jaungoikoak: «*Neuk agertuko yoat ire bilostasuna eure begien aúean. Oin bańiz: mundu guztien aúean agertuko yoat ire lotsea: REVELABO REGNIS IGNOMINIAM TUAM*».

Onetan agertzen ditu Jaungoikoak aúean dagozan guztien adimenak, aingeruenak eta gizonenak, onenak eta txañenak, eta diranak ikusten dabe argi-argi auzitegian dagon pekatari eúukańiak gogapen, gurari, berba ta egitez, lenengo ezaupidetik il arte, egin ebazan pekatu guztiak. Agertzen ditu emon deutzazan laguntasu-

nak, egin deutzazan mesedeak; eta ze txarto bakotxari erantzun deutzan.

Afrika'ri, Asia'ri, Amerika'ri eta Ozeania'rik ainbeste ezkerbagatasun ikusirik, arituta dirautse Auzi-epaleari: «Ainbeste argiren erdian ez zelan egon leike ainbeste itsutasun? ¡Jauna! Oñeri egin deutzazuzan mesedeen apurik txikiena guri egin baeuskuzun, Santu andi izango giñan.

¿Eta ezagunak zer esango dabe, ikusten dabenean, eurak ain ontzat euken laguna, azal-uts (ipokrita) bat baño etzala? ¿Eleizara joaten bazan, inoren edeñagaitik joaten zala; sakramentuak artzen baebazan, entzute ona ez galtzearen, artzen ebazala.

¡A lotsaria, seme-alaben pekatuak gurasoen aurrean agertzen diranean, emaztienak, senaren aurrean!

¡Ara an! egiten dabe, ez dozue ikusten arako gizon eleiza-zalea? ¡zein txarto bizi zan! ¿Eta a, beste neska lotsoñ a? Makaltasunez pekatu baten jausi zan, autoren-tzule. (konfessore) bati esaten ez zan azartu, zerura joateko; eta ara nun agertzen daben mundu guztiaren aurrean, eta ganera inpernura joan bear; ¡a, aña! a, buru bakoa!

IRUGAÑEN ATALA

E p a y a .

Bakotxak egin daben guztia, munduan izan diran eta izango diran guztien aurrean argitaratutakoan, Auzi-epaileak, begiratu begirakunerik samurénaz eskumatara daukazanai, ta berbarik bigunenaz dirautse: «Erdu, neure Aitaren Bedeinkatuak. Jaubetu zuentzat betiraunetik gertuta daukadan eřeñoa».

¡Orduan bai zoriondunen poza, orduan gogorapen (alabantzak), orduan abesti (kantu) atsegintsuak! Begiratu albora, ta ikusirik gurasoak semea nai alabea, senařak emaztea, lagunak laguna ¡alkařeri ai zelako ondo-etořiak, zelako laztanak, zelako biotzen zabaltasuna, zelako atsegiña! ¡Urlia! a ze zorioneko izango garean, eta betiko!

Auzi-epaileak luzatzen ditu eskeřetaruntz daukazanakana begi bi, tximista bi baño goriagoak, eta trumorik gogořena baño dea-đař gogořagoaz dirautse: «*Alde Nigandik, madarikatuok, betiko sutara*».

Deadañ onek, aize gogoña balitz lez, jaurtiten ditu galduak bata-bestien ganera. ¡Aren gañaziak, aren alarauak, aren irintza ta birauak!

Deabruak ezarñen deutsez erpeak, eta daroez tatañez inpernuruntz.

Olan doazala, jasoten dabez zoriondunakana euren begi suz eta negañez gorituak; eta ikusirik doazala ain pozez, soñu eder artean, ¡aguñ, diñoe, aguñ, ama; aguñ, aita; aguñ, emaztea; aguñ, añebea; aguñ, lagun maiteak! ¡Ai! zuek lez bizi izan banintz, zeuekin joango nitzan oin betiko atsegitz oñetara. ¡Ai! ¡nun euki dot burua, nun ziñismena! ¡Aguñ, aguñ ama! ¡begirakunetxo bat! ¡Ikusi dagidazala azkenez begi maitetsu oñek! Amak jaramon be ez; doaz ¡goruntz goruntz! geroago ta txikiago, zabaltzen dira zeruko amabi ateak, eta abesti (kantu) eder artean sartzen dira betiko. Eteten da luña, ta irunsten ditu zorigaiztokoak.

¡Aguñ, mundua! Ez dago aldirik geyago. Betikotasun bi emendik añera, zoriondunena zorigaiztokoena. Batera edo bestera nik joan beañ ¿Nora joango naz? ¡Jakín ez! ¡Jesus, neure Epaleori, Zeure eskeñetara edo esku-

matara egon beaiko naz: ¿nun aurkituko nozu? Zeure ago oretatik urtengo da niretzat, edo: *alde madarikatuori*, edo: *erdu bedein-katuori*; ¿zer esango deustazu? ¡Jakin ez! ¡Ene zoriaren iluna! Edo betiko atsegintzara, Jesus Ona, zeugaz; edo Zeugandik betiko aldenduta, amaibako atsekabeetan. ¿Nora bialduko nozu?

Baña gauza bat, Jesus maiteoñi, zeure bayaz, esan beaí deutzut; Zure erabagia, ez da erabagia. Erabagia da neuria, neuk ontxe neure buruari emoten deutsadana. ¿Bide zuzena, aspertu barik, jañaituko dot? Eskumara naroa, eskuman aurkituko nozu. ¿Ez dot itxi nai bide txar au, edo oin itxi ta gero artu nabil? Eskeñetara noa; bakit zer entzun beaí dodan. ¿Eta adorea daukat, orduan Zeure arpegi asaratua begiratzeko, Zeure deadañ gañatza entzuteko?

INTER OVES LOCUM PRÆSTA: *Ardi-artean ipiñi nagizu*. ET AB HÆDIS ME SEQUESTRA, STATUENS IN PARTE DEXTRA: *Akeñetatik aldendu nagizu, eskuman ipiñita*. Gaiztuak lotsatu, su gogoñera jaurti, baño onakin niri deitu. Makuñtuta, biotza autsa lez, atsekabez zetuta, eskatzen deutzut, añen, nire azkenaren ardurea euki dagizula.



Amairugañen Gogartea

Seme Ondatzañearena.

San Iñazio'k, Jaungoikoaren bildura askotan euki añen, nayago dau maitetasunez zuzendu. Eta alan ikusi dogu, bildur-aldirik andienez be, maitetasunera joten dabela.

Oregaitño be, autorkuntza (konfesiño) añaan, Jaungoikoari zoñ deusagun maitetasunañen pekatua goñotatzeko, ona baño obea da berariz gogoratzea ze eñukioñ, biotz bigun eta maitegaña dan, añaña iraindu dogun Jaungoikoa. Eta oñetarako Seme Ondatzañearen *ipuña* lakorik ez.

Ipuña esan dot eta ez *jazoa*; olako aitarik ez dau gizadiak ikusi. Irudi ori Jesu-Kristo,

gure Jaun maitetzaleak, bere Biotzetik atara dau, bere Biotz Seme - maitekofaren irudi bizi-bizia da.

JAUNARI AURKEZTUTEA, ta GERT - OTOITZA
betikoak.

TOKI-IRUDITZEA:

Iruditu baseñi-etxe eder bat; eta bertan aita seme bigaz. Ikusi gero seme gaztea etxetik urteten; ta azkenez, damuturik, aitaren besoetan.

ESKAKIZUNA:

Ezagutu dagidala ze ona izan dan niretzat Jesus nire Aita, ta ze eskeñtxarekoa ni Beretzat.

LENENGO ATALA

Seme Ondatzalea etxetik urteten.

«Seme bi eukazan aita batek, diño Ebanjelio Santuak, eta euretariko gazteenak esan

eutsan aitari: ¡Aita! Emoidazu yagokadan ondasun edo aziendearen zatia. Eta zatitu eutsen».

Seme gazte au ondo bizi zan bere aitaren etxean; ez eukan ezeren bea'rik. Baña ikusi bere adin (sasoiko) mutilak nasaikerian ebiltzala, biztu berari be griña txar'ak, eta asmau eban euren antzera ibiltea. ¡Zer ete-dalagun txar'en erakutsia (ejenploa), ta zenbat kalte egiten daben olako nasayak! ¡Amaika arima eskatuko ditu Jaungoikoak olakoen eskuetatik!

Galdu zan mutila, ¿zelakoa zan? Gaztea, ta alan ezaupide gitxikoa. Ez eban, ez, etxetik urteko, nundik urten eta nora joango zan, ondo gogoratu ba-leu. Ez gogoratzea, burubidea arin artzea, eto'rkizun txar'en sustraya da. Bestera, ba'ruko'ra, asmatzalea izatea, on guztien asierea.

¡Begiratu gaztearen lotsabagakeria! Ez diño: «¡Aita! beste e'rietan be zer dagon ikusi nai neuke-ta, emongo ba-zeunskit...» Begirune (e'respetuaren) apu'rik be barik, ondio aita bizi zala, «emoidazu» dirautso. ¡A! mutil oni loikeria sartu yakon ba'ruan; loikeriak, ba'riz lotsabagakeria bere atzean daka'.

¡Aita, bañiz, ze ona! ¡Onegia esaterako!
«Zatitu ondasunak (aziendea), ta gazteenari
yagokana emoten deutso. Eta gero guztiak
(ondasunak) batuta, joan zan seme gazteori
eri urunetara».

Zelako oar'ak (abertentziak) egingo ete-
eutsezan etxeakoak, senideak eta aitak batez-
be. ¡Alpeñik! Galduta egoan, aragi zataña
eukan bañuan sartuta; ta olakoan ez dago
adimenik, gauzak ezagutzeko; biotzetik be
ez, aitaren maitetasunari jaramoteko be. Estu
gaztea etxetik urten arte. Aitak azken-aguña
egiteko, biotz guztia zatituta, laztantzen dau;
semeak be laztan otz bat emoten deutso;
erayak zerbait bigunduko yakazan, nega
apuñen bat egin be bai; baña urteten da po-
zik, eta doa eri urunetara, iñok ikusiko ez
daben tokira. — Gaztea neu, dirua ugari;
aitarik, ez ezagunik be ez, agiraka egiteko,
¡au zoriona! — ¡Ez dakik ondo!

¡Amaika gaztek ikusi leikee euren burua
ispilu onetan!

¡Bai neuk be zeruko neure Aita'gazko
gizabidea (conducta).

Aita on au Jesus da; Seme Ondatzailea,
neu. ¡Aita - Jesus'en etxean ze ondo bizi

nitzan. Zer nai ta aixe neukan. Baña ikusi nebazan beste batzuk, galduak, nik lako bake ta benetako zorionik euki ezañen, azaletik pozik ebiltzanak, jolasik - jolas, atsegiñik - atsegin; ta, asperturik neure zoriontasun mamintsuaz, egin neban euretariko bat izan bea' nitzala.

Iges neban neure Aita'ren etxetik (betiko madarikatua izan dedila egun a), Aita maitearen biotza atsekabez samindurik itxita. Iges be urun gero; urun izan bea' Jaungoikoaren begi garbiak ez eusten izten, aberea lez, atsegintzako basatzen ibiltenda.

¡Urun! joan nitzan. ¡A zelan aztu yatazan amak txikitan irakatsitako otoitzak (e'ezuak), oitura onak, autortzea, jaunartzea, ta besteak! *¡Urun!* zelako ezin ikusia artu neutsen Jaungoiko'aren gauzai, Eleizeari, Santuai, Abadiari, gauza on guztiai. Aragi zata'ra sartu yatan ba'uan, Seme Ondatzaleari lez; eta aragiak, bein ba'uan sartu ezkerro, jaurtiten ditu, ta urun, gogoa (espiritua) ta bere usaña dauken gauza guztiak; edo, obeto, gogoak berak igesten dau, aragi zata'raz bizileku baten egon nai ez dabelako. ¡Ikusi nundik dato'ren gaiztoak Eleizeari, ta Eleiza-usa'neko gauzai deutsen go'otoa!

Joan zan, ba, Seme Ondatzalea erbes-tera; ta, nasaikeriari emonda, ondasun edo azienda guztia banatu eban. ¿Banatuko ez eban, ba? Nasaikeriak ordikeria dakañ atzetik, auñetik ez dakañenean; jokoa be bai, ez gitxitan, eta dirua eralgiteko beste era asko. ¡Ez dago ondasunik, nasaikeriari, andia danean, arpegi emotekorik.

Bai neuk be laster galdu neban, Aita-Jesus'en etxetik atera neban aberastasuna: grazia, onoimenak (birtuteak), Espiritu Santuaren emoyak (doyak), bañuko bakea, ta, onenean, entzute ona ta osasuna be bai; ta eskeñak, beste askok lez, ziñismena bera galdu ezpa-dot.

B I G A Ñ E N A T A L A

Seme Ondatzalearen Damua.

«Eta guztia (dirua) amaitu ebanean, gose gogoña etoñi zan eñi aretara, ta bera be asi zan gosez».

¡Neuri gertatu yatana berbera! ¡A ze ase bizi nitzan Aita Jesus'en etxean. Aragia ba-

kañik zan gose. Aragi onen gosea bete nairik, joan nitzan erbestera. ¡Baña ezin bete! ¿Zelan bete aragia? Ezin lei. Usana lez, beti dago ¡betor! ¡betor! (1), iñoiz ¡naikoa! esan barik. Salomon'ek ez eban bete, nai eban guztia emon afen; ainbat gitxiago, berak beste aukera ez daukanak.

«Joan zan, ba, Seme Ondatzalea, ta sartu zan eri atako baten otsein (kriau)».

Ora etxe aberatseko semea, aita onaren menpean ezin egonda, azkatasun (libertadearen) bila erbestera joan zana, ezezagun baten menpean, otsein. ¡Erusari (kastigu) egokia, Jaungoikoak beronen etxetik urteten danari emoten deutsanagaz bakañik bardindu leikena!

Nasaikeriarako aukerarik neure Aita-Jesus'en etxean ez-neukala-ta, aspertuta, urten nitzan ni be azkatasun-bila. ¿Eta nora jo neban? ¡Deabruaren erpeetara! ¡Ona dago biotz-gogor au, nai neban azkatasuna emoteko! ¡Bere otsein artu ninduan! ¡Ara or deabru zatafen otsein, Jaungoikoaren seme izateaz naikoa ez eu-

(1) PRO. 39, 15.

kana! Aitaren etxean eukan azkatasunaz ezin naikotu zana, ugazabarik gogořenaren jopu (esclavo).

¿Zelan artu eban Seme Ondatzalea ugazabak? ¡Txarı-zain bialdu eban bere barseñi-etxera! ¡Eure aitaren etxean, etxeko seme izateaz, naikoa ez-paeukan, ontxe naikotuko az txarı-zaintzaletasunaz!

Baita neu be, naita esatea bera nire afokeriarentzat gogořa izan, txarı-zain ipiñi ninduan deabruak, griña txären zain, eurai yaten emoteko; ta alan ibili izan naiz eurak asetueziñik. ¡Au Jaungoikoaren Semearen zeregiña!

«Eta nai eban bete sabela txarıak jaten ebezan zerukaz (ezkuřez, azalez, bañaz); eta iñok ez eutsazan emoten».

¡Ara oř txarıak eurak baño erukařigo, bere etxean ondo baño obeto egoan mutila!

¡A, zelan nagon emen burutik beatzera irudituta! Neure Aita - Jesus'en etxean ugari neukan janaria: egia adimenarentzat, naimenarentzat ontasuna, bakea, poza, atsegin garbi bařubetetzalea. Baña ořegaz naikoa ez, abereak jaten dabezan zerukak,

atsegin zataiak nai: euren-guraz ugazaba biotz-gogoñenaren, deabruaren otsein sartu: baña gaizkile guzuñti onek, asko agindu añen, txarñiak eurak baño txarñtoago artu; eurak daukezan atsegiñak be emon ez. ET HOMO, CUM IN HONORE ESSET, NON INTELLEXIT (1). ¡Ai, ez neban ez ezagutu neure zorion eta gorapena, neure Aitaren etxean nengoañean! COMPARATUS EST JUMENTIS INSIPIENTIBUS: aberien zoria neure zoritzat nai neban; eta ara oñ zelan eurak baño be berago jatzi nazan; eurak ni baño zorionekoagoak, eurak nai eben beste zeruka (ezkuñ), nai eben beste atsegin, eta ni atsegin oñen gosez. Ezin neike, ba, esan: «*Euren (aberien) antzeko egin naz. SIMILIS FACTUS EST ILLIS*»; eurak baño be erukañiago, zoritxañekoago egin naz. ¡Au lotsagañia! ¡Au arerioen bañea!

Tayo onetan bere burua ikusi ebanean, bere bañura biurtuta, esan eban: «Amaika otseñek bauke ugari jatekoa nire Aita'ren etxean; eta ni, emen, goseak ilten. Jagiko naz eta esango deñtsat Aitari: ¡Aita! pekatu egin dot zeruaren aurka ta Zeure

(1) (Ps. 48, 13).

auréan. Ez yagokat Zure semearen izenik be: otseñetariko bat egin nagizu». Eta jagi, ta joan zan Aita'gana.

¡Ze ederito gertu eban bere autortzea!
¡Zelako damua agertzen daben; zelako apaltasuna!

¿Baña zek argitu eutsazan begiak? ¡Atsekabeak! Beztun garatzagaz zabaldu eutsazan begiak Tobias Zañari Erafael Aingeruak: atsekabearen mingostasunaz edegiten deuskuz geuri be Jaungoikoak. Galbidean doa bat, eta doa atsegintsu, aukera guztiak daukazala: ez dago orentzat pozaldi ori baño Jaungoikoaren zigoñ gogoñagorik; zuzenzuzen doa bide zabal oñen azkenean dagon inpernuko su-lezara.

Bañiz Jaungoikoak asko maite ba-dau, jaurtiko deutso eragozpena bide leun oñetan, gaisoa nai ezeukia edo beste ez-beařen bat. Eta Jaungoikoari bat be jaramon barik, pekaturik-pekatu poz andiaz ebilenak, gaisoak jotakoan, jasoten ditu bere begiak oeko zokondotik zeruko Aita'gana; argitzen da, ikusten dau galbidea, ikaratzen da, atzera egiten dau, ta bide onean sartzen da. ¡Amaikarentzat, lenengotan ezbeañ andia eretxi yakana,

izan oi-da zeruko Aita'gana joateko bidea gazte onentzat izan zan lez.

¡Ze gitxi gomutako zan bere aitagaz, jolasik-jolas, atsegin-arte, dirua ateratearen ondo esaten eutsen lagun zatarez inguratuta ebiñenean! Baña ikusi ebanean bere burua bakarik, lagun barik, ezta amaitutakoan euliak izten daben ezti-lapikoa lez; otsein, arizpean, txari-zain, sarte eskuetan, etxetik atera ebazan soñekoak uratuta, ortosik, ugazaba gogora, dirurik ez, gosea baruan: gogoratzen da etxeko ugaritasunaz, eta egiten dau: «¡Amaika otseñek bauke ugari jatekoa nire aitaren etxean! ¡Eta ni emen goseak ilten!» Da esatea: eurak otseñak, ni semea; alan da guzti be eurak nire aitaren etxean, ni emen, erbestean, txari-zain; eurak jatekoa ugari, ni gosez. ¡Geyago ez! Jagi, ta banoa.

Neuk be aratuten ba-dot Jaungoikoagana neure biurerea, ezeukia, atsekabea edo beste ez-bearen bat ez da urun ibiliko: saritan Jaungoikoaren zigoradea uste doguna, Artzain Onak bide onera zuzentzeko egiten deuskun txistua da.

¿Eta ez dozu ikusten, ene arimea, seme

galdu onek ze arin erantzun eutsan Jaungoikoaren deyarri? Egizu geroko izten dabela bere Aitagana biurtzea, abereak etxera eroan bear dabezala, edo ugazabari bere asmoen bari emon bear deutsalata: onenean etxera-orduko damutuko yakon.

¿Ontzeko erabagiak artu ditudaz? Bete dagidazan arin, luzapen barik. «Jaungoikoaren deya gaur entzuten badozue, ez gogortu zeuen biotzak», diño Espiritu Santuak. Seme galdu onek ez eban egin: «¿Zer esango deust Aitak? ¿Ez eustan esan damutuko nitzala, ta nik ezetz eta ezetz? ¿Oin etxera, Aita ta etxeko guztiak lotsaturik itxita gero? ¿Diru guztia galdutakoan? Eta onan, ortosik, jantzi zatituaz, ule guztia griña bat eginda, arpegia zurbilduta?.. Ez dago ardurarik: aita da, ez nau etxetik aterako». Eta joan zan.

Eta zuk, ene arima maitea, ¿zer egiten dozu zeure Aita-Jesus'egana biurtu barik? ¿Bildur zara? ¿Asko samindu dozula bere Biotza? ¿Pekatu asko ta andiak egin dozuzala? ¿Baña ez dozu Aita ta Aitarik onena ta maitekořena? ¿Nok, berak izan ezik, emon deutzu bide txarřa izteko gogo ori?

¿Ez alda orixe bere deya? ¿Eta berak deitu, ta beragana zoazenean, atzera bota? ¿Ez diño berak gure soñekoak, ar-goñia (cochinilla) baño goñiago ba-legoz be, eduña baizen zuri ipiñiko dabezala (1); biurtzen garaneko gure pekatuakaz aztu egingo dala, sorbaldatik atzera botako dabezala, itxasoan ondatuko dabezala?

Seme galdu arek amarik ezeukan. ¡Ziur! Euki baleu, beragaz lenengo gomutako zan. Baña nik Ama daukat, Amarik onena, erukioñena, seme maitekoñena, Jaungoikoa ta geure artean bakeak egiteko Jau-nak berak emonikoa: Andra-Maria. ¿Zek, orduan, atzeratu neindeke neure Aitagana joateko? Jagi ta joango naz, ba; ta beragana ureratueran asafatuta daukadan bere arpegi itzalak, bildurtzen ba-nau, Amaren magalagaz neure begiak estalduta, beroni oratuta, elduko nayako: ziur nago, Amaren ostean eldu ezkerro, ez-nabela jaurtiko.

(1) Si fuerint peccata vestra sicut coccinum, quasi nix dealbabuntur. (ISAIAS. 1, 18).

IRUGARĒN ATALA

Seme Ondatzaleari aitak egin eutsan arerea.

Seme Ondatzalearen aita, alde aretan oi-dan lez, iluntzean-iluntzean, bere bearak itxitakoan, etxeganeke ibiltokira joango zan, eguraztutera. Zenbat bidar, begiratu semea aldendu zan tokiruntz, eta egingo eban: «¿Nun ete-da nire seme gizaxoa? ¿Bizi ete-da? Onezkero ondatuko ebazan diruak. ¿Zetako joaten itxi deusatz? ¡Ai, etxean ba-neuko! Onetan egoala, iluntze baten, begiztazen dau urunetik mutil gazte bat, guztia nekatuta, bere etxeruntz etořela. Eta bere artean egingo eban; «¿Nai dozu neure mutila dala axe? ¡Bai! bera da». Erukitasunez erayak bigunduta, bere urte ta lotseari jaramon barik, asten da arin-aringa maladitik bera, ta gero bidean zear, eta besoak zabalik jausten yako semearen ganera, ta laztantzen dau. Aitaren negar-malkoak semearenakaz nastaten dira; ta semeak aitaren biotz-taupadak bere biotzean asmaten (sentitzen) ebazala, dirautso: «Aita... pekatu egin dot... zeruaren

aurka... baita zeure aurka be... Zure seme-aren izenik be... ez yat zoí».

Auíera joakan gertu ebana esaten. Baña aitak isildu eraginda, dirautse otseñai: «Ekañi lengo soñekoa, ta jantzi egiozue (jantzi uñatuz ikusten eban-da), ipiñi erastuna bere eskuan, eta oñetakoak oñetan (ortosik, edo oñetakoak zatituta etoñelako); eta ekañi txal gizendua, ta il eta jan-edan dagigun; ba ene seme au ilda egoan, eta berbiztu da; galdu zan, eta aurkitu izan-da. Eta asi ziran jan-edanean».

Seme nagosia, bañiz, soloan zan; eta etoñi ta etxera uñeratueran, entzun eban soñoa ta dantzea, ta otsein bati itandu eutsan zer zan. Eta onek erantzun eutsan: «Zeure anayea etoñi da, ta zure aitak txal gizendua il dau, osasunez artu dabelako». Asañatuta ez eban nai izan bañura sartu. Baña aita, atarauta, asi yakon eñegutzen. Eta berak erantzuten deutso, esanaz: «Ainbeste urtean nago zeure menpean, eta zure agindurik ez dot bein-be ausi, ta ez zara izan akeñ bat emoteko, neure lagunakin jan dagidan. Bañiz emakume galduakin bere ondasuna iruntzi daben zeure seme au etoñi daneko txal, giz-

endua il deutzazu». Eta berak erantzun eutsan: «Seme, i beti ago neugaz, eta nire gauza guztiak eureak dituk. Baña jan-edan, eta poztu egin bea' yoagu, ire anaye au ilda egon, eta berbiztu dalako; galduta, aurkitua izan dalako».

Ez da iñoiz ikusi aitarik, seme ain galduari onako a'ererarik egiten. Baña auxe guztiau egin dau Jaungoiko andiak pekatari eske' gaiztoko onen alde. Ez zan, ez, aztu nigaz, ni beragandik u'undu a'ren. Beti egon izanda bere begi-biotzak nigan dabezala. Berak emon deust bere etxera biurtzeko asmo ta inda'ra be. Eta u'runetik beragana neto'ela ikusi nabeneko, ez yako gogoratu nire gaiztakeri, ez emon neutsan atsekaberik; e'rayak e'rukiz bigundu, besterik ez yako egin.

Ara o'f, ba, zelan yato'rtzun, ene arimea, besoak zabalik, pozez beterik, zeu laztantzeko. Soaz, ba, zeu be beragana; ta, ez yagotzu, baña, Aita da-ta, laztandu egizu. ¡Ai zelako laztana berak be emongo deutzun! ¿Zer dala uste dozu, bestela, zeure ba'ruko poz ori, Jaungoiko - Aitak emoten deutzun laztana baño? Ikusiko zaitu graziazko so'neko barik, eta pekatari zata'ari Jaun-

goikoak deuitsan maitetasunaz arituta begira dagozan aingeruai, esango deutse: «Arin, ekañi lengo soñekoa; ta jantzi egiozue; emon erastuna bere eskurako, (au da Jaungoikoren etxeko semeen ezaugarria); oñetakoak be bai, (esan nai dau, bere laguntasuna), ezek mindu ez daitezaz; eta ipiñi: jateko ez txal gizendua, neure Gorputza ber - bera baño, ta nire Odola edateko; ta jan da edan dagigun, eta poztu zaiteze, zeuek be, ene aingeruok, neugaz batera; ba ene seme au pekatuaz ilda egoan, eta graziazko bizitzara berbiztu da; galduta egoan, eta aurkitua izanda.

¿Zelako eskeñak egingo deutzudaz, Jauna, añera ain edeñ onen ordez? Zelakoa izan beañ nayatzu emendik añera? ¡Ai! ¡Seme Ondatzañe a baño txañago ta eskeñbakoago izan nayatzu! Seme a, uste izatekoa da, añera ain biguna ikusi eban ezkerro, apal-apal, beañgin, ibiliko zala, ta ezta atsekaberik txikienik be ez eutsala bere aitari emongo; nik bañiz, aita arek baño ondio asko be obetoago Zuk ni artu añen, ¿zer egin deutzut? Urten osterabe, Aita maiteori, Zeure etxetik, eta lengo txañizaintzara joan. ¿Eta alan da guzti be bigañenez

artu egin nozu? ¿Bigarenez diñot? ¡Zenbat bidar pekatu egin, eta grazian sartu; ainbeste bidar seme ondatzale izan nayatzu! Ez, Aita, geyago, Zeuk indartu nire argaltasuna; ta osterabe Zeure etxetik urten-nairik ikusten banozu, ebagi, aŕen, bernak, iges baño lenago. Nayago dot il, Zu irainduta itxi baño. ¡Ama laztana! Zeure onduan, etxean bizi nai dot beti; ez itxi urteten.



Bigarren astea

Lau astetan zatitzen dituz San Iñazio'k bere Ejertzioak. Oin artean ikusi doguna, lenengo astea da, ta San Iñazio'k bertan nai dabena, arimea pekatuetatik garbitzea.

Arimea, bañiz, garbitu ezkerro, egoki dago Jesu-Kristo'k bere bizitza ta esanakaz emoten deuskuzan erakutsiak artzeko; ta oñetarako ipinten dau San Iñazio'k bigarren astea, Jesus'en bizitza ta esanak gogartzeko (meditateko).

Ganera, ikusi dau iñarkunleak, bere buruz, bere eritxi ta gurariak jañaituta, salbaziño bidean uts eginda ibili dala, ta oñetxegaitik zuzentzalea beañ dabela;

ta Jaungoikoak emoten deutso ořetarako ez gotuts (aingerua) Tobias'i Rages'era joateko emon eutsan lez, bere Seme Jesu-Kristo ber-bera baño.

Alan, ba, aste onetako egikizuna da, lengo bizitza txara gořotauta daukan ezkerro, auřerantzean zelako bizitzea euki beař daben gogoratzea; Jesus'en oñatzak jařaiturik, bere ondoren zeruan sartzeko.

Era askotara Jesus'en ostean joan leike; baña bakotxak artu beař dau, Jaungoikoak emoten deutsan argia ta norberen gurari zindo ta indařak ikusita, ondoen yatořkana.

Jesu-Kristo'ren bizitza, nekaldi ta berbiztuteko ziñiskayak gogartzeko, guztizko era eřaza ta onuratsua ipinten deusku San Iñazio'k: 1.^o *begiratu* nortzuk diran ziñiskai ořetan agertzen diranak; 2.^g. *entzun* zer esaten daben; nai berbaz, nai biotzez; 3.^g. *ikus*i zer egiten daben, edo ez daben; eta onetako bakotxean aurkitzen dodana, neureganatu zer edo-zelako onurea (probetxoa) aterateko.



Amalagañen Gogartea

JESUS'EN GIZAKUNDEA EDO
ENKARNAZIÑOÀ.

JAUNGOIKOARI AURKEZTUTEA TA GERT-OTOITZA,
betikoak.

Lenengo aurrezteà (preàmbulo) da gogartu beař dodan gauzearen jazoa, ta emen da zelan Aiteak, Semeak eta Espiritu Santuak, begiratu mundu zabal guztia gizonetz beteta; ta, ikusirik guztiak joazala inpernura, erabagiten dabe euren betiraunean Semea Gizon egitea, gizon-

-enda (raza) guztia gaizkatu (salbateko); eta alan, adiña (sasoya) betetakoan, bidaltzen deutse Gabriel Goi-aingerua Andra-Mariari.

TOKI-IRUDITZEA:

Bigarrena.— Emen izango da ikusi mundu zabal osoa ainbeste gizon eta ain desbardiñez. Baita berariz Andra-Mariaren etxe ta gelea be, Nazaret'eko urian, Galilea'ko eridian (probintzean).

Irugarrena.— Eskatu nai dodana, Emen izango da eskatzea nigaitik Gizon egin zan Jaunaren baru-baruko ezaguerea, geyago maitetu ta jaraitzeko.

LENENGO ATALA

Irutasun (TRINIDADE) Santuak Semea Gizon egitea erabagiten dau.

Lenengo.— Begiratu lagunai, batzuei ta besteai: ta 1.^o luřekoai, ze desbardiñak alan jazkeran, zein izakera ta egokeran:

batzuk zuriak, baltzak besteak; batzuk gudan (geran), besteak bakean; batzuk negarez, bareka besteak; batzuk osasunez, besteak gaiso; batzuk jayoten, besteak ilten, eta alan.

Baltzak, ala zuriak ete diran gizonak, Jaungoikoak ez dau begiratzen: guztietan ikusten dau bere irudia, ta ezainduta ikusten dau, ta orixe maite dau, orixe bariztaten datoí.

¿Nik Jaungoikoaren irudia begiratzen dot lagunetan, ta oíregaitik maite dodaz? ¿ala baltza edo zuria ete-dan; neure gogozkoa, ala besterakoa dan, begira ibiltzen ete-naz?

Ikusi ze erukaía izango zan gizadiaren egoerea, ta zein itzala bere etoíkizuna, Jaungoikoa Gizon egin ezpalitz. Euren-arte, euren antzera biziko nitzan neu be, atsekabe-arte, aberea lez bizitza onetako lau egunak igaro, ta deabru bat lez gero inpernura jausteko.

2^{g.} begiratu Irutasun (Trinidade) Santuko iru Jaungoikozko Notiñak (Personak) euren jarleku altsuan: zelan begiratzen daben mundu zabal guztira, ta (ikusten

dabezan) gizon-mueta guztiak ain itsuturik, eta zelan il eta jausten diran inpernura.

¿Norañokoa izango ete-zan Jaungoiko-Biotzaren atsekabea? ¿Zelan bigunduko ete-yakazan erayak?

Bigarren.— Entzun zer diñoen luñaren ganekoak; au da, zelan berba egiten daben bata besteagaz, zelako zin (juramentuak), zelako birauak esaten dabezan. Baita zerukoak zer diñoen be; au da: «Egin dagigun gizon-endearen Erostea».

¿Ara of gure Jaungoiko onaren biotza! ¿Ara of zelako ordea emoten deutesen bere aurka ainbeste berba zataf, ainbeste lotsabagakeri esaten dabezan gizonai! Ederto ipinten dau Igarla batek Jaungoikoaren agoan: «Zeru ta luñaren-artean dagon alde, dago nire ta zuen artean».

Irugarren.— Ikusi zer egiten daben lagunak luñaren ganean, berbarako, zauritu, il, inpernura joan, eta alan. Baita Jaungoikozkoak zer egiten daben be; au da: Jaungoikoaren Gizon-egite Santua, ta alan.

BIGAREN ATALA

**Aingeruak Andra-Mariari iragarren deutso
Jaungoikoa Gizontzeko ziñiskaya.**

Lenengo **begiratu** lagunai: *San Gabriel*,
Goi-aingerua. Beti izan oida San Gabriel,
Jaungoiko - Gizonduaren bañiak emotera bi-
daltzen dana; Luzifer eta bere lagun ain-
geru deungak Jaungoiko gizondua jaurestu
(adorau) nai izan ez-ebenean, euron aurka
jagi zalako, auza. Begiratu, ba, San Gabriel
ze pozik datoñen bañi andi ori emotera.

¿Zelako itzal (eñespetuz) Andra-Maria'ri
berba egiten deutsan. Eta ni, otoitz (eñegu)
egiten deutsadanean ¿zelan egoten naz?

Begiratu *Andra Maria*, amabost urte in-
guruko neskatilatxoa. ¿Baña zelakoa? ¿Ze apa-
la, ze garbia, ze begirune (modestia) andikoa!
¿Ni, bañiz, zelakoa naz?.... Damutu ta
erabagi.

¿Zelan aurkitzen dau aingeruak? Otoitz
egiten, Santuak dirauskuenez, eta Jaungoi-
koa len-bai-len Gizon egin zedila eskatzen;
eta orixe berori jaditsi eban: ¿zer ete-da otoi-
tzaren indaía Jaungoikoaren begietan! Be-

giratu zelan otoitz egiten daben, ze adi (atentziñoz), zelako lotsa ta begirunez, eta egin bere antzera, al-danez.

Bigarren, **entzun** esaten dabena, Aingeruak: «Aguí, Maria, graziaz betea, Jauna da zugaz, bedeinkatua zara Zu andra guztien artean». *Maria*, nai dau esan, andrea, bera dalako gizon, aingeru ta beste izaki guztien nagosi, agintari ta jaube; *graziaz betea*, betea, ontzi andia izan afen, eta Santutasun onoinen (birtute) ta jakituriz betea; *Jauna da zugaz*: ez bakañik beste gauza guztietan dagonlez, ez da Jaungoikoaren grazia daukenden bañuan dagon lez be; zugaz dago Jaungoikoa, o Maria, zure gomutamenean (memorian) beti beragaz gomutau zagizan, zure adimenean (entendimentuan) bera geroago ta geyago ezagutu dagizun, eta zure naimean (borondatean) gañtsu maitetu dagizun. Zeugaz dago Jauna, añskuetatik zaintzen, gauza guztietan zeuri laguntzen; zeugan dago zeru baten gizan, Eleizan, jolas-etxean lez. *Bedeinkatua zara zu andra guztien artean*, Jaungoikoak Eba'ri ta beragan beste andra guztiai ezañi eutsan biraua, bakañik zeugana elduko ez dalako: Zeu bakañik izan-

go zara Ama ta Dontzelea: Zeu bakarrik izango zara Andra guztien artean pekatuaren gerizarik be bakoa; Zeuk kenduko deuskuzuz gure gatxak, eta jaditsiko deuskuzuz laguntasun (grazia) guztiak; eta oíetxegaitik aingeruak eta gizonak, zuzenak eta pekatariak beti onetsi (bedeinkatu) ta goralduko zaitue andra ta gizon eta aingeru guztien ganetik, nik oin egiten dodan lez.

«Andra Maria au entzunda, ikaratu zan bere (aingeruaren) berbakaz, eta egin eban zelakoa ete-zan agur au».

¡Begiratu bere apaltasuna! Arotzekoa zan ikusi ta entzuten eban guztia, ikusten eban aingerua, ta ain altsua, bere aurrean ain apal; esaten eutsazan andra nai aingerurik jasoenari esan leikiozan gorapenik (alabantzarik) andienak. ¿Baña arotu bera? Arokariaren usanik be ez eban euki. Isilik, bere baruan sartuta, ikaratuta, gorapen ain arigariak entzun ebazalako; ¡au amabost urteko neskatilaxoaren zurtasun (prudentzia) ta apaltasuna! ¡A, zelan goitu eban Luzifer eta Eba'ren arokaria, ta ordaindu eurak Jaungoikoari ostu eutsen gorapena.

¿Eta nik, neure gogozko gauzea esaten

deustenean, etoñkizunari begiratu barik, bayetz esan? Aizeak daroan berbatxo bat neure alde entzun orduko, puztuta, neure baruan gozaro mizketan erabili?

«Eta aingeruak: Ez bilduñtu, Maria, Jaungoikoagan eskefa (grazia) aurkitu dozu. Ara, sortuko dozu zeure sabelean, eta argitartuko dozu Semea, eta Jesus deituko deutzazu bere izena. Au andia izango da, ta Gorenaren Semea deituko yako, ta Jaungoikoak bere Aita Dabid'en jarlekua emongo deutso, ta Jakob'en etxean Erege izango da betiko, ta bere Ereneñuaren azkenik ez da izango».

Argi-argi agertzen deutso Mesias'en Ama, Jaungoikoaren Ama, izan beañ zala.

¿Eta berak zer erantzuten deutsalala?

«¿Zelan ori jazoko da, gizonik ez dot ezagutzen da?»

Ez dau ezta-baidan ipinten aingeruaren barbarik; egiten dabena da, garbitasuna betiko gordeteko eginda eukan eskintzea aingeruari agertu. ¿Nok, o, Andra-Mari guztiz garbiori, Espiritu Santuak izan ezik, erakutsi eutzun garbitasuna maite izaten, olako ustetik be inok ez eukanean, señik ez eukitea

ain lotsagaría zanean, Mesias'en Ama zein izango emakume guztiak ebiltzanean? Eta zegaitik Jaungoikoaren Ama izango zarala dirautzun aingeruari, zeure erabagi ori aúrean ipinten deutzazu? ¡A, ezta Jaungoikoaren Ama izatea bera be ez dau nai, oretarako garbitasuna galdu bea' badau. ¡Au garbitasunaren maitetasuna! ¡Au gu, ain loyon, lotsagaría!

«Eta aingeruak erantzuaz dirautso: Espiritu Santua eto'riko yatzu ganera, ta Gorenaren inda'ak gerizatuko zaitu. Oretxegaitik Zeugandik jayoko dan Santua be Jaungoikoaren Semea deitua izango da. Eta ara Zeure senide Isabel'ek be, sengea izan a'fen, seme bat sortu dau bere za'tzaroan, eta auxe dau seiga'fen ilabetea, ez dagolako eziñik Jaungoikoarentzat.

«Eta Maria'k esan eban: Ara emen Jaungoikoaren mirabea; egin bedi nigan, zeuk diñozun lez».

Bekian ondo, Liburu Santuetan iraku'rita, zenbat min eta atsekabe igaro bea'ko ebazan Mesias'ek, eta beragaitik bere Ama izan bea' zanak be; baña garbitasuna galdu barik, Jaungoikoaren Ama izan leikela ziurtuten

daneko, bat-batean, luzapen barik, bere baya emoten dau.

Baña beste gauza guztien ganetik bene-tan da ari-gaia Andra-Mariaren apaltasuna. Jaungoikoaren beraren Ama izan bea' zala agertzen deutso aingeruak, Jaungoiko izatea itxita, goratasun andiagorik ez dago, ez asmau be ezin lei. ¿Eta zer egiten dau berak? Jaungoikoaren mirabe (kriada) bere burua egin. Da aingeruari esango baleuskio lez: «¿Jaungoikoaren Ama egiten nozu Zuk? Ez da gitxi niretzat bere mirabe izatea be; gora jasoten nozu, baña niri bekoena baño ez-yatoit ondo».

Eruki zaitez, Andra-Mari, apaltasunaren Irakasle berarizkuori, eruki zaitez, ain ezerezak izan, eta oregaitiño be beste guztien ganetik ibili nai dogun aruokaz: Zeure apaltasunagaitik, azketsi (parkatu) daiguzala Jaunak gure arokeriak.

Irugañen, **ikus**i egiten dabena: 1.º *Aingeruak*, zelan bere egikizuna beteten, daben, ze pozik, inartze (inbidia) barik, bere anaye aingeru txarai lez, Jaungoikoak gizonari galtzen itxi ez eutsalako.

¿Eta nik Jaungoikoak emoten deusta-

zan egikizunak (neure obligaziñoak) zelan beteten dodaz? Jaungoikoak niri baño besteari geyago emoten deusenean, ¿iñartze (inbidiarik) bakit eukiten?

2^{g.} *Andra-Mariak* ¿zer egiten dau? Beeratu (umildu), Jaungoikoari eskeñak egin; gure alde ainbeste neke igaroteko, gertau. Egin dagiodazan, ba, neuk be Jaungoikoari eskeñik andienak, gu deabruaren mendetik ateratearen, gizon egin zalako, gure anaye izateragiño jatzi zalako, esan giñayogula: «Zure azuñak geure azuñak dira; Zure aragia, geure aragia; gure odola Zure odola». ¿Nor ez da poztuko, Jauna, Zu lako anaye nagosia eukita? ¿Nor ez da azartuko inpernuko deabru guztiai jarkiten, Zu gure alde eukita? ¿Nok ez deutse begiratuko bere anayai lotsarik andienaz, Jesus'ek, beretzat arturik, ałagiña santutu dabezala jakinda? Nik jaur-esten (adoraten) zaitut, Jesus maiteori, Amaren sabelean, altara baten lez; nik maitetzen zaitut biotzeko indaí guztiaz, nik laztantzen zaitut; Zeuk luñera etoñi ziñan lenengo unetik, anaye bat lez laztandu ninduzulako.

Eskeñak, Andra-Maria, Zuri be, ni in-

pernura ez joatearen, ainbeste neke igaroteko gertu zinalako; pozik andienaz autortzen dot, bayetz a emonaldian, benetan geratu zinala Jaungoikoaren Ama Altsu eginda, baita oretxegaitik neure egizko Ama be. Atsegiñez beterik artzen zaitut Jaungoikoaren eskutik neure Amatzat; Zeuganako seme-biotza emoidazu. Gizon, aingeru ta izaki guztiak Zeure aurrean belaunikoturik, euren nagosi, Agintari ta Jaube autortu zagiezala, Jaungoikoaren benetako Ama zaran-etzkeru. Guztiak maitetu zagiezala, ta ariturik agurtu dagiela apaltasun ain sakona anditasun ain itzalean. Apaltasun apurtxo bat emoidazu neuri be, Zeure Semea naz-da, ziztrin, zital eta eskei txarekoa banaz be, Amoren lotsaria izan ez nadin. Zeure antzera Jau-naren otsein izan nadiñ, bere guraria gauzarik txikienean be gitxitan euki barik, olan gero Zeugaz batera otsein zintsoen saria zeruan betiko jaritsi dagidan.



Amaboskañen Gogartea

JESUS'EN JAYOTZEA.

JAUNARI AURKEZTUTEA ta GERT-OTOITZA,
betikoak.

LENENGO AUREZTEA:

Jazoa (istoria), ta emen izango da, zelan urten ziran Nazaret'ik Andra-Maria, bederatzi ilabetekoaz aztunduta, gogartu leikeanez asto-ama ganean, eta Josepe ta mirabe (kriada) bat, bei bat eroyela, Kesar'ek inguru aretan ezafi eban sergea (kontribuziñoa) ordaintzeko.

BIGARENA: TOKI-IRUDITZEA:

Irudimeneko begiakaz ikusi Nazaret'ik Belen'erako bidea, begiraturik luzera ta zabalerea; ta leuna, ala aldapatsua dan, ala ibařetik zeařekoa. Begiratu jayotzako ařtzuloa be, ze andia, ze txikia, ta zelan egoan atonduta (adornauta).

IRUGARENA: *Lengo Gogartekoa.*

LENENGO ATALA

Nazaret'ik Belen'erako bidea.

Begiratu lagunak: *¿Andra-Maria ta Josepe zelan doaz bidean? ¿Ze arpegi bake-tsuak, ze apal eta bigunak! ¿Begiak ze batuak, ze bařu-zaleak!*

Begiratu *beste ozte* (gentia) be, asaře, Kesar Agintariak bide au eragiten deutsalako.

Entzun diñoena: *Andra-Maria ta Josepe isilik geyenean. ¡A, Jaungoikoa eroyan Andra-Mariak bere bařuan; eta Jaungoikoa bařuan daukanak, ze gogo gitxi eukiten*

daben berbetarako, ze isil-zalea izan oi-dan!

Baña zenbat gitxiago gizonakaz berba egin, ainbat geyago Jaungoikoagaz egiten eben: ortik etofken arpegian agertzen yaken biotzeko bake ta poza. Ez dago Jaungoikoaz barutik berbetan ibilteak dakaen lako pozik: betiko eztegua da.

Beste batzuetan berba egiten eben. ¿Zere-tzaz, baña? Ez beintzat, beste bidestiak lez, eriko gertaketa ta beste uskeriatzaz; gitxiago ondio esango eben berba naba-menik. ¿Nik bafiz zer eta zelan esaten dot? ¿Garbiak dira nire berbak be? ¿Ez ete-dot lagun urkoaren izen ona, eztenagaz lez, neure min zofotzagaz zulatzen?

Ikusi egiten dabena: Andra-Maria ta Josepe'k zelako eroapen (pazientzi) andia agertzen daben bost eguneko bidean, ainbeste neke ta ezeuki-arteon, Kesar Agintariaren kaltez berba-erdi be euren agotik atera barik; ondo dakielako, guztia zuzenduko ebala Jaungoikoak bere gorapen eta euren onerako. Eta alantxe gertatu be; ba arokeriz eta diru-zaletasunez emoniko agindua, artu eban Jaungoikoak Igarlen auresanak egiztu ta Mesias Belen'en jayoteko. ¿Zer

ete-da Jaungoikoaren jakituri ta altasuna, ta zelan arau (e-regla) okeñaz zuzen idazten (eskribiduten) daben.

¿Bañiz beste aldrak zer egiten dabela? Asafatu Agintariagaitik, lagun urkoari zankazanak jan. ¿Eta zer ateraten dabe? Euren atsekabea geitutea, besterik ez. Okeñeriarik ikusten badot, aldodala, kentzeko alegindu nadin; baña ezer ezin badot egin, ez nadin murmurian abiau, ez dot ezer aterako-ta. Jaungoikoaren eskuetan guztia itxi dagidan, Berak nai dabenera zuzendu dagian: gatxa, baña jakituri ta bakez betea da erakutsi au. Txañena da murmurian jardutea, Jaungoikoak bere kaltezkotzat artzen dabezalako agintedunen kaltezko murmuriak.

Agintzen dabena be egin, pekatu dala argi - argi ikusten ez - bada: esanekotasun (obedientziako) bidea estua da sañitan, latza, aldazkorea; baña beti azkenean eroaten dau zelai zabal, loratsu, atsegintsura.

BIGAREN ATALA

Belen'en sarerea.

Begiratu lagunak: ¡Andra-Maria ta Josepe Belen'go kaleetan, ostatu-bila! Josepe'k Andra-Maria'ri egingo eutsan: «Onako kalean daukagu senide bat; ¡goazen! Eltzen dira, jo atea; ta lenengo ondo-etoña emonda: «damu dogu, baña, ez dago tokirik» dirautse. ¡Tokirik ez! ¡Bai andiki-antzean etoñi baziran! Diru-zaletasun geyegiak begiak itsutu eutsezan, Jesus eta bere gurasoak ez ezagutzeko. ¡A, zelan diru-zaletasunak, nai beste edozein maitetasun okeñek, lausotuten deuskuzan begiak, Jesus Ona ez ezagutzeko!

Jo beste senide edo ezagun bategana, ta beti soñu bat: ez dagola etzatokirik..., lenago etoñi izan baziran... urangoan...

¡A eñi itsu, deunga, eskeñ txañekoa. Lau mila urte ta geyagoan egon aiz, Jesus Onaren egañiz. Ainbeste aldiz eskatzen izan dok: «Bidaldu, Jauna, bidalduko dozuna... Zeruak iruntza ta odayak euria bidaltzen deusku-zuen lez, bidaldu eiguzue Zuzena (Jesus). Edegi luña, ta erne dedila Salbatzailea».

Etoñi dok, ba, ain luzaro itxaroten egon azan Salbatzalea, ain berba beroz zēru ta luñari eskatu izan doana; ¿ta zer egin deutsak? ¡Ostaturik be emon ez! «Bereakana etoñi zan, eta bereak ez eben artu» diño Ebanjelariak.

¡A izango zan beretzat atsekabea! Olatkoa izan bazan mundura etoñerea; ez da zer añitu, euki eban lako urteerea eukitea.

Ez da Belen'dañena bakañik añera ain eskeñ txañeko, lotsabaga au; egunero, egunean sañitan, luñeko alde guztietan gertatzen dana da, ta eskeñak neuronek be bein baño sañiagotan egin ez-badot. ¿Ez deust esaten: «Ara zelan naukazun atean zeure zain, eta ate-joten: edegidazu, iruntzez beteta daukat neure burua-ta?» ¿Eta nik zer erantzuten deusat askotan? Belen'dañena: — «Ez dago ostaturik». ¡Ai, ostatua daukat zatañerientzat, deabruarentzat beretzat; Jesus'entzat bakañik ez dot eukiko zokondotxo bat. ¿Eta lotsabagakeri onek zelako atsekabea ez ete-deutso emongo Jesus'i? Ez dau nai berak gure diru, ez beste gauzarik; biotza, maite-tasuna nai dau bakañik, eta orixe eskatzen deusku, ta gogorik bizienaz eskatu be. ¿Eta guk ainbarik itxi?

¿Nor, baña Jesus lakorik artuko dogu biotzean? ¿Nori geyago zoř deutsagu? ¿Nok ostatua obeto sariztuko deusku? ¡A zenbat galdu eben Belen'dařak, Jesus'i ostatua emon ezaz! Ez dogu guk gitxiago galtzen, biotzeko ateak izten deutsaguzanean.

Erdu, Jesus on eta maitegañiori, neure biotzeko zokondo onetara, sartu zakidaz, itxi ateak, artu giltzak, jaři erdi-erdian, Zeu baño besterik ez dot nai-ta.

IRUGAŘEN ATALA

Jesus'en Jayotzea.

Andra-Maria ta Josepe, biotzak miñaren-miñez mila zati eginda geratuko ziran ařera eskeřbako onegaz. Josepe'k Andra-Mariari: «¡Andrea! goazen alboko mendi ořen bařenean dagon abeletxera, ia aber-eak gizonak baño eřukiořago aurkitzen doguzan».

Eltzen dira, ta koba areri goitik-bera begiratuta, bertako loya ta ormetako amar-aunak ikusita, alkařen-arteon isilik egingo

eben: «¿Au izango da Jaungoiko baten jayotetxea? ¿Gertu deutsalgun jauregia au da?

Josepe, atsekabez zotinka, ta begietatik negar-anpuloak eriozala, asiko zan arztuloa garbitzen, eta ormetako amaraunak eta autsak kentzen. Bitartean Andra - Maria'k askatxo bat ikusten dau. Garbitu ta bedar apur bat ezarten deutso: ¡Jaungoikoarentzat kumea gertuta dago!

Josepe alde batean eta Andra-Maria bestean otoitzik (eregurik) goratuenean egozala, ara nun agertzen dan zeruak eta lurak beteten dabezan Jaungoiko andia, ara beteko umetxoaren tayuan. Belaunikotzen da Andra-Maria, ta ziñiste, apaltasun eta maitetasunik andienaz jauresten (adoraten) dau ume txiki aretan Jaungoiko altsua. Eskeñak emoten deutsal, Amatzat autu dabelako; ta parka eskatzen deutso, toki oberik gertu ezagaitik. Munduan ez zan agertu izan olako jaureste (adoraziñorik). Begira-begira dago bere Semeari, begiak ezin albora eginda. Baita Seme txoak be ezarten deutsal Ama maiteari bere begitxo biak. ¡Begirakune onen esakuratsua! Beragaz eskeñak emoten deu-

tsaz bederatzi ila betean bere baruan osatua emon deutsalako, ain sutsu ta garbi maite dabelako, ta azkortu (animaten) dau bere antzeko izateko. ¡Ai Ama-Semeen begirakune arek! Andra-Mariak, Semetxoak barutik azkortuta, itzal eta maitetasunik andienaz mun egiten deutso ointxoetan, gero eskutxoetan, eta ¿zegaitik ez eutsan egingo bioztxoaren onduan be? ¡A izango zan Andra-Mariaren gozatasun eta zoriontasuna!

An dago begira Josepe dontsua be, ureratzen da; ta, lotsaíen, baña biotza maitetasunez taupadaka, mun egiten deutso berak be. Uferatu nadin neu be, ofetarako, neu bere tokian geratzeko, ipinten dau San Iñazio'k mirabea (kriadea)-ta. Pekataria naz ¿baña nor ez da umeagana elduko? Mun dagiodan kobako luári, askeari; baita itzal, apaltasun eta maitetasunik andienaz, oin, eta eskutxoetan Jesus Umeari be. ¡Begiratu ondo! Antxiñako al-dian tximista-artean baño agertzen ez zan Jaun andia, Aitea ta Espiritu Santuaz batera zeru goyenetan jaíta dagona, askan, abere-askan. Jaungoikoaren Berbea, igaríak

ain iztun (sermolari) andi egin ebazana, berba barik, beste umeak lez negaiez bere beaizanak agertzen dabezala! ¡Aingeruak zeruan makuñturik agurtzen (adoratzen) dabena, bakarik, bei ta astua lagun dabezala! ¡Ainbeste mila urtean eguzkia sutan daukana, otzen-otzez dañdañ! ¡Luñeko bizidun guztiak janaritzen dabezana, amaren ugatz-beaiez.

¡Ezagutzen dot! Neure maitetasunez, ni txikionen añokeria ibituteañen, ain txiki egin zara, Jaun andi ori. Baña zenbat eta nigaitik Zu txikiago, ainbat eta maitegañiago zatxataz. ¡Itaska onen auñean ezerbeztuko alda nire andinaya!

¡Begiratu ondio obeto! Añtzulo bat, aitz ezeak agirian daukazana, auts eta amaraunez apaindua: ¡Auñ Eñegen - Eñegearen jayotetxea; bere kumea, itaskea! ¿Nor iñoiz egonda olako ezeukian? ¿Nok iñoiz ez dau euki etxe bat eta kuma bat, iñok emonikoa baño ez-bada be, bere seme jayo-bañiar-entzat? Ba luñeko beañtzenak daukena, ez dauko luñ eta zeruaren jaubeak. Añtzulan jayo, ta askan etzan; iñok emonikoaz bizi, ta kurutzean soñeko barik il: ¡auñ gure Irakaslearen bizikerea!

¿Eta ezeukiagaitik lotsatu egingo naz?
¿Au edo bestea ez daukadanean, asafatuta,
Jaungoikoaren aurka mar-mar ibiliko naz?

¿Zelako min-arte, azkenez, jayoten
dala? Neguan, gaberdian, artzulo agirian,
aska otz, gogoréan: ¡a zelan arpegi-artzen
deustan neure palagu ta bigunkeriakaitik!

Edeito zatoz, Jauna, apaltasun, ezeuki
ta nekeaz, Zeure iru lagun maite onekaz,
laztanduta! Ez dozuz, ez, itxiko Zeure bizi-
tza guztian, eurakaz estu-estu eginda, ilgo
zara kurutzean.

¿Zegaitik, baña, dozuz ain maite iru la-
gun orék? ¿Zegaitik ez zara jayo jauregi
apainduan, gizon andiz inguratuta, kuma
bigun, epelean? ¿Ez al-eukazun Zeure es-
kuan? ¡Bai! Umeak ezin dabe autu eririk,
ez etxerik, ez gurasorik; emoten deutsena
artu beaí dabe. Jesus'ek bakañik eukan
aukera ori.

Eta alan da guzti be, erukizko iribaíe bat
egiñaz, izten ditu jauregi arkolau, gizon ja-
kitun, aberats eta aukera-mueta guztiak; eta
jayoten da ezeuki, apaltasun eta nekeaz es-
tututa, laztanduta.

¡Zelako belaíondokoa emoten deutson

munduari Jesus'ek bere jayotzan! Iru gauza ditu maiteen munduak: aberastasuna, andinaya, atsegiña; ta eurok euki ezkerro, beste guztiai ba're eginda, zorionduna dala deritxo. Jesus'ek, bestera, ezeuki, apaltasun eta nekea beretzat aututa, argi-argi erakusten dau, ez aberastasuna, ez andi izatea, ez atsegiña, ez dirala naita-ezkoak zoriondun izateko, ainbarik da Bera zoriondunik zoriondunena-ta. Geyago, ezta onak be ez dirala dirausku, munduak alagiña maitetu ta goratzen dabezan bere iru jainko-izun (idolo) orek; asko be obeak dirala ezeuki, apaltasun eta nekea; ta auxe erakusteko, bere iru lagun maite onekaz laztanduta dato'f; bizitza osoan ez ditu itxiko, ta eurakaz iñoiz baño estuago eginda, kurutzean ilgo da: askea ta kurutzea, Jesus'en irakastegi (pulpitu) bi onek, alka'ri deutsela dagoz.

Orduan, edo munduak diño guzu'ra, edo Jesus'ek. Jesus'ek ezin guzu'rik esan lei, Jaungoikoaren jakituri ta santutasuna bera da-ta. Mundua da, orduan, oke'f dabilena, mundua guzu'rtia, mundua gure iruzurgin (engañadore) ta areriorik andiena, zoritxa'ra ontzat saldu nai deuskuna.

Olan da, Jauna; gauza gatxa da, bai, askako irakastegitik emoten deustazun erakutsi au; baña zenbat-eta gatxago, onuratsua-go. Zeure lagunik maiteenak ezeuki, apaltasun eta nekea izan zenduzan: eurak izan bea' dira neureak be. Beintzat ez deutset begiratuko oin artean legezko begi txakakaz. Euren bila, Zeure antzera, ibiliko ez-banaz be; beñik-bein ez nayake asaratuko etxeko atean oska ikusten dodazanean. Eta Zeure laguntasunaz, Zeure gauzarik maitegarrienak diran ezkerro, eurakaz apaindu nai deutzut neure biotzeko kumea.

Ez ziñan guztzale edo adoradore-bila bakarrik luera eto'i; milaka aingeru zeunkazan oretarako zeruan: guztasuna baño be maite-tasuna nayago izan dozu; ta oretxegaitik zatoz ez Agintari altsuaren gizan, Ume egin-da baño. Erdu, ba, maiteori, ta itaskan be ipiñi zenduan-da, neure biotzean be Zeure jarlekua ipiñi egidazu.

¡Ai! baña nire biotz au Belen'go eskepeko askea bera baño be loyago, otzago ta gogo'ago dago. ¿Eta berton artuko zaitut, batezbe jaunartzera noyanean Jesus, Biotz garbi, bero ta bigun - zaleori?

¡Andra-Maria, neure Ama laztanori! Be-
len'go askatxoa garbitu zenduan lez, neure
bijotz au be garbitu egidazu. Kendu a'okeri,
atsegin-gura ta munduko aberastasun eta
beste gauza guztien maitetasun oke'ra, Jesus
guri ta minbera mindu ez dagien. Zeure
aberastasunez apaindu nagizu; ta askatxoan
beda' igar'ak ipi'ni zenduzan antzera, ipi'ni
egidazu neure biotzean Zeure Seme Jesus'en
maitetasuna, bigunago ta beroago egon
dedin.



Amaseigaren Gogartea

JESUS, ANDRA-MARIA TA JOSEPE'K
NAZARET'EN EUKEN BIZIKEREA.

JAUNARI AURKEZTUTEA ta GERT-OTOITZA,
betikoak.

LENENGO AUÑEZTEA:

(Jazoa). Emen izango da, Jesus Josepe-gaz arotzian, edo beintzat olako beaŕean egon zala Nazaret'en amabi urtetik ogetamaŕerarte.

BIGARENA:

Iruditu gauñ Loreto'n dagon Nazaret'eko etxetxoa, arotzeriako lantegia (taleña) aurean dabela, bere arotz-mai, ormetatik esegiriko azuela, aizkora ta beste langai edo eremintakaz.

IRUGARENA:

Emoidazu, Jauna, Jesus'eganako barubaruko ezaguerea, geroago ta geyago maitetu, ta yaraitu dagiodan.

LENENGO ATALA

Mentasuneko (OBEDIENTZIAKO) bizitzea.

Jesus Ona zazpi urte inguru ebazala, Ejipto'tik etorita, ogetamañ urtegaz sermogiñen asi arte; Ebanjelariak, Jesus'en bizitzea adierazoteko, Jerusalem'go Eleizara ostereaz ganera, iru berba alde batetik eta sei bestetik bakañ-bakañik esaten deuskuz. ¡Baña ze sakonak, ze esakuratsuak!

«ERAT SUBDITUS ILLIS. *Euren menpean egoan*». ¿Nor? Jesus; Jaungoikoa zanez, Betiko Aita baizen Jakituna, ta bera baizen Zuzena ta Altsua; gizona zan aldetik, beste gizon eta aingeru guztiak baño asko be jakitunago, zuzenago, andiagoa. Oregaitiño be Josepe ta Maria'ri burua makuñtu, ta aginduak eta esanik txikienak zeatz-zeatz egiten eutsezan.

¿Eta ni, ez-jakiña, okeña ta ain ezereza izan añen, nagosien esanik egin nai-ez-da ibiliko naz?

¿Uts egiten dabela agintedunak? Gaurko gazteak lengo zañak baño geyago dakiela? Daigun. ¿Eta Jesus'ek ez ekian Josepe'k baño geyago? ¿Ez eban ikusiko bein baño sañiago, okeñ joala agintzen eutsana, berak obeto egin eikeala? Alan da guzti be egin egiten eban; eta, geyenez bigun-bigun adierazoko eutsan, ez joala zuzen, onetara edo aretara obeto egin zeinkeala.

¿Eta Jesus'ek *zelan* gero bete be egiten ebazan Josepe ta Andra-Maria'ren aginduak? Bat-batera, oso-osorik, pozik; arpegi txañ, iguin, ez mukeñtasunik erakutsi barik; ondo ekialako, Maria'k eta Josepe'k agintzen eu-

tsena, Betiko Aita'k berak agintzen eutsala, ta eurai yarkiten ba-yakon (kontra egiten ba-eutsan), Berari yarkiten yakola.

¡A, zenbat bidar guraso nai beste agintedunai yarkiagaz, aginbidea emon deutesen Jaungoikoari berari yarki nayakon!

Bakotxari yagokan mentasun barik, izañak jausiko litzakez, itxasoak ondatuko gindukez, eta ez sendirik (fameliarik), ez uririk, ez gizategirik egon lei. Esanekotasuna ain beañekoa gendualako, itxirik sermo, mirari ta pekatuak kentzen ibilteari, egon yakun Jesus Ona arotzian, lantegi (taler) txiki baten beañgin-txartesagaz bere Jaungoikotasuna estalduta. Iru urte irakasten, ogetamañ, amañ bidar geyago, egiten: ze ohea ta indañtsuago dan egitea, irakastearen aldean. Oian, mentasunaz, Jaungoikoaganatu beañ eban, mentasunik-ezak beragandik aldendu eban gizona.

¡Jaungoikoa beañean, arotzian! Ez da, orduan, beaña lotsagañi ez iguingaña. Eñusaritzat (kastigutzat) ipiñi euskun beaña lendik Jaungoikoak; baita, alpeñeria kenduaz, griña txañak esi, ta eroapen (pazientzia) ta beste onoimen (birtute) asko jaristeko be.

Baña Jaungoikoa beargin egin zanetik, beara santututa, Jaungoikotuta dago.

Ekin dagiogula beari, bakotxak bere beari; ta gizadia, gaurkoa baizen galdua egon azen, osatu ta onduko da.

BIGAREN ATALA

Santutasuneko bizitzea.

Sartu gaitezcan, baña, barurago zeruko etxetxo aretan. **Begiratu lagunai:** zer dakusgu? Jesus alde batetik, eta Josepe bestetik sefeari teinkaka, izerdia darioela; Andra-Maria bastaixoan, sena eta Umearen soñekoak adobaten. ¡Arek bai arpegiak! ¡Ze baketsuak, ze bigunak! ¡Asarea an? ¡Betondo iluna, arpegi motza? Guztia da an batasuna, alkaientzako maitetasuna.

Entzun diñoena: ¡Nok entzun an murruria, ez beste bea ez dan barbarik? Ez dago an deadarik, ez agirakarik, ez bare-santzorik. Askotan dagoz isilik; edo, obeto esateko, Jaungoikoagaz berbetan. Jesus betiko Aitari bere neke ta izerdiak eskintzen, pekatarien

alde, geure alde, otoitz egiten, bere Odolaren emotordua luze egiten yakala.

Andra-Maria'k jostaldi baten ostean, begirakune gozoa Jesus'i ezarita, egingo eban: «¡Ene zoria! Baña nundik nora niri Jaungoikoaz egotea, Jaungoikoaren Ama izatea». Josepe apalak, bañiz, Jesusi arpegira osta-osta begiratuta, gero bere bañuan sarturik ¿«Josepe naz ni? egingo eban, eta ni Jaungoikogaz telape baten bizi? ¿Jaungoikoari nik agindu? ¿Zer egin dot nik, Jaungoikoak niri ain zorion andia emoteko? ¡Nekearen biguna! Bekokitik bera yatoñtan izerdiaren gozoa! Neure neke ta izerdiaz, Jesus'en Odol, mundu-Salbatzaile, biurtuko dan jatekoa irabasten dot».

Beste batzuetan berba egiten dabe. Baña ez eñian zer gertaten dan, ez beste uskeririk. Jaungoikoaren eñiaren jazoak, Jaungoikoaren eurakanako eñukiak; Jaungoikoari zof deutesen eskeñ on eta maitetasuna, ta beste onen antzeko santutasuneko gauzak.

Ikusi egiten dabena: Goizean jagitorduan, otoitzak; gero beañ, bakotxak bere beañ: Andra-Maria'k eskatza ta etxetxoa garbitu, lapikoa gertau, maya ipiñi, gero ontziak garbitu, gauza guztiak garbi ta bakotxa bere

tokian. Jesus eta Josepe arotzian, bai etxean bai deitzen eutsen lekuan. Aztia eukenean, Liburu Santuak irakurri, ta irakurten ebena, alkañen artean, yardunagaz, erabili. Sapatuetako Eleiz-batzañetara arduraz joan, irakasten zana añetaz (atentziñoz) entzun, beste ainbeste egiñik Jerusalem'go Eleizara urtean lau bidañ joaten ziranean.

Ara orñ, ba, Nazaret'eko etxetxoko bizikerea: Jaungoikoaganako ta Eleizako gauzetarako zaletasun eta gañ andia; norberaren eginbeañak arduraz, baña bakean bete, iñoren gauzetan sartu barik. Alkañen artean lotsa (eñespeto), apaltasun, laguntasun eta maitetasuna. Beste ainbeste bakotxak bere lagunakin, Andra-Maria'k andra-arteon, Josepe'k gizonakin, mutilakin Jesus'ek, bidezko zeresanik ipiñi barik, guztiak ondo esaten ebela, euren bizibideaz arpegi artzen eutsen gaiztoren batzuk izan ezik. Guztiak ondo begiratu ta maitetzen eben Josepe, arotza, ta bere sendi (famelia). Baña iñok ez eban susmaten arotz on batzuk baño ziranik: ain apal eta leun ebiltzan besteen arteon. Eta alan, Jesus bere eñian sermogiñen asi zanean, añituta egin eben: «¿Nundik oni jakituri ta

indar au? ¿Ez alda arotzaren semea? ¿Ez alderitxo Maria bere amari, ta bere senideak ez aldagoz geure-arte?»

Baña Jaungoikoaren begiak zuzen-zuzen egozan etxetxo aretara begira, antxe eukan bere biotza, ez Nazaret'eko ta beste lufaldetako aberats, jakitun eta agintarien jauregi eder, apainduetan.

¡Bai geure etxeetan be ze pozik atsedeen egingo leukeen, gaiztakeriz aspertuta dagon Jesus'en Biotzak, Nazaret'ekoen antzera bizi bagina! ¡Zelan onetsi (bedeinkatuko) geunkezan! ¡A zelan emongo leuskiguzan saritzat seme-alaba santuak! ¡Geure poza ta zoriona ai zelakoa izango litzaken! Ez dago pozik, ez atseginik, erlijio andiko etxean dagona lakorik!

Baña geyenak, gaur dan egunean, eskondu atsegintzea baño beste asmo barik; eta oregaitik sendi (fameliak) dakazan nekeak lepotik bota; seme-alabak erlijioan asi ez, gurasoak itxiak, seme - alabak lotsabagak, aserea, agirakea, alkar ezin-ikusia; gurasoekin bizitea umeentzat aztun, etxean lotuteko erlijiooko lokaririk ez, doaz erbestera, eriurinetara; gurasoak eteten etxean, erlijioak

dakañen gozagañirik ez; zaítzaro txaña mundu onetan, eta bestean obeto izango diranaren antz gitxi: ara oí erlijioño gitxiko etxe geyenen azkena.


¡A! ¡Zoriontasun-bila, euren etxeak itxita, doaz asko eñi urioñetara! Zoriontasun benetako ta mamintsua, luñean eukiko daben andiena, garbiena, iraunkoñena, norberen etxean erlijioño andiaz umeak astea da: seme-alabak ondo asten dabezan gurasoa, gaisotegi (ospitalera) nekez joango da: ez dago zaítzarorako ogibide ziuñagorik.

Geure etxeen irakaspén eta ispiñutzat ipiñi eban Jaungoikoak Nazaret'eko etxetxoa. Ez zan ikusten an aberastasunik; ¿baña bera baizen zorionekorik zein? Ba geurea be, aberastasun andirik euki ezañen, zenbat-eta bere antzekoago izan, zenbat-eta erlijioño geyago euki, zorionekoago izango da.

Sartu neure bañuan, eta egin dagidan: ¿Nire etxea ze gauzatan ez da Nazaret'eko aren antzekoa? Nire aldetik ¿zer egin nei, geroago ta bere antzekoago izateko? Ikusi ta erabagi.

¡Ai, Jauna, ze gitxi sartu yakun buruan, gitxiago ondio biotzean, ogetamañ urte an-

ditan irakatsi euskuzun etxeko eskolea!
¡Emen gabiz arapataka, Zeure erlijioaz ia
aztuta, laukotxo batzuk batu ezinda, eura-
kaz zorioneko izango garala-ta; ezagutu
barik, zenbat eta Zeugandik geyago alden-
du, benetako zoriontasunetik be beste ain-
beste uruntzen garala. Auferantzean gure
etxearen lenengo zimendua, Zeure erlijioa
izango da. Egingo naz apala, baketsua, bea-
giña, laguntzalea, bai etxekoakin, bai beste
lagunakin. Josita eukiko dot buru ta biotzean
Nazaret'eko etxetxo ori, ta neurea be bere
antzekoa izateko, alegin egingo dot, bake
edeñean bizi izanda, guztion zeruko etxean,
Zeu buru zaitugula, bake ta atsegintzan
betiko bizi gaitezan.



Irugañen Astea

Bigañen Astean bizibidea autu edo obetuteko erabagiak artu dira. Baña bizibide bañian edo bañiztauan igaroteko, indańak beań dira; ęta nundik aterako doguz? Jesus'en Nekaldi (Pasińo) Santutik: *Jesus'en Pasińoa, indańtu nagizu.*

Ba ońetarako ipinten dau San Ińazio'k **Irugañen Astea**, au da, Jesus'en Nekaldiko gogarteak.

Irugañen Astean be, bigañenean lez, ipinten deuskuz San Ińazio'k, Jesus'en jazoak gogartzeko, iru era: *Begiratu* lagunak (personak), *entzun* esaten dabena, *ikusi*

egiten dabena, ta neuganatu zer-edo-zelako onurea (probetxua) aterateko. Baña Jesus'en Nekaldian beste iru dakaz.

Laugarrena, begiratu Jesu-Kristo gure Jaunak bere gizatasunean igaroten dabena, edo igaro nai dabena. San Iñazio'ren asmoa da, Jesus'ek agirian igaroten dabena bakarrik begiratu barik, ikustea ganera, zelako gogoaz igaroten daben, zelako geuganako maitetasunaz, eta alan; asko igaro aŕen, geyago igaro nairik.

Boskarena, begiratu zelan Jaungoikotasuna estaltzen dan, au da, zelan bere arerio guztiak ezerbeztu leikezan, eta ez daben egiten; eta zelan izten deutsan bere gizatasun guztiz santuari atsekabe ain gogorak igaroten.

Seigarrena (auxe batez be), zelan guztiau neure pekatuakaitik igaroten daben eta alan; eta neuk Beragaitik zer egin eta igaro beaŕ dodan.



Amasaspigaren Gogartea

JESUS'EN NEKALDI (PASIÑO) SANTUA.

JAUNGOIKOARI AURKEZTUTEA ta GERT-OTOITZA
betikoak.

TOKI - IRUDITZEA:

Jañaitu Jesus'i, berari ta bere inguruko
lagun eta gauza guztiai, bertan bazengoz
lez, begiratuta.

ESKAKIZUNA:

Eskatu nai dodana. Jesus'en Nekaldian
eskatu beař dana da, miña Jesus minduagaz,

biotz-ausia (quebranto) Jesus biotzez ausi-agaz, negařak, bařuko atsekabea, Jesus'ek nire alde igaro ebanagaitik.

Getsemani'ko Otoitza (ÉREGUA).

Gabeko amařak inguruan, amaika ikaslakin urteten da Jesus maitea Sion - Mendi'ko apaltokitik Jerusalem'go uriaren egoaldera, egoan Skopus eritxon mendiruntz; jatziten dira, igoten dira, bitarteko Zedron edo Josaphat'eko zelai estua igarota, Olibet'eko mendira, ta sartzen dira mendi onen bařenean egoan Getsemani-ko baratz (ortura). Antxe ei-egoan Andra Maria'ren asaben obi edo sepulturea; ta araxe joaten zan Jesus gabeen - gabeen, otoitz egitera, Jerusalem'en egoanean. Gau atan be, ain laři ta sotil egon ařen, ez eban itxi nai izan otoitz egiteko oitura eder au; ta ez itxi eze, bestetan baño be asko luzeago egin eban; geuri adierazoteko ez doguzala itxi beař geure atsekabeetan ez otoitz egitea, ez beste oitura onak, bai gogořago ekin, Jaungoikoaren laguntasuna ugariago jaristeko.

Eldutakoan Jesus'ek ikaslai esan eutsen: «Geratu emen, ara joan eta otoitz egiten dodan bitartean». Eta Pedro, Santiago ta Joan beragaz artu ebazan, eta asi zan sotilduten (tristetuten), da' da', iguinduten. Orduan esan eutsen: «Lari daukat gogoa, eriotzazko laritasunez: zagoze ementxe, ta zurt egon zaiteze neugaz; otoitz egin, zirikaldian sartu ez zaitezene».

Eta ikaslai emon eutsen itun (kontsejoa) beretzat artuta, artzuloan sartu ta asten da otoitz egiten: «Aita, al-bada, igaro eikedazu kaliza au; baña ez beite egin nire guraria, Zeurea baño».

Begiratu Jesus maitea, belauniko, auspaz, bekokiaz luña joten; lari, estu, zurbil, biotza ausirik, eta arpegian bera odollezko izertanpuluak eriozala. Biztu, ene arimea, zeure ziñismena, ta zeure buruari itandu egiozu: ¿Zein da gizonaren antzik be barik dagon ori? Ori da Aita Betikoren Seme Bakaña, bera baizen andi ta altsua ¿Tayo ain nega'garían Zek ipiñi dau? ¡Ai! argi-argi, banan-banan iruditzen ditu bere buruan ordu gitxi bañu bere ganera jausiko yakozan min eta nayez guztiak:

zigoñada, arantza, kurutze, bultzaka, belafondoko, txistu-urtika, iri-baie ta gizonari egin leikiozan lotsabakeririk andienak. Antxe ikusten dau bere burua bialdu (apostolu) batek salduta; beste batek, eta berak geyen goratu ebanak, ukatuta; ta beste guztiak, igesari emonik, arerio ain gogoñen eskuetan bakañik itxita. Baekuzan ze txarño erantzun eutsen ainbeste onegiñei bere eri maite arek, eta oñetxegaitik galdu egin beañ zala; ta batez-be, ta auxe zan geuganako maitetasunez beteriko Biotza geyen samintzen eutsana, ikusten eban zenbat eta zenbat arima galduko ziran betiko, berak eurak salbateko ainbeste alegin ipiñi añen.

¿Baña zegaitik agertzen da bere Aitaren aurrean alagiña lotsatuta, arpegirik jasoten be azartzen ez dala? Jesus'en lotsari au ezin guk ondo ezagutu geinke; ezin ezagutu geinkelako garbitasunari deutsan maitetasuna, ta ortik sortzen dan pekatuaganako goñotoa. Dakiguna da ez daukala Jaungoikoak pekatua lako areriorik. Artu lei, bai, Jaungoikoak beragaz baturiko izate edo naturalezan gosea, egaña, miñak, baita eriotzea bera be; pekatua da bakañik artu

ezin leikeana, naita txikiena izan. Ezin, ba, artu izan eban Jesus'ek gure pekaturik; baña artu eban ortik ganerako dana. ¿Nok esan lufbira zabal guztian egiten diran pekatuak, ze andiak, zenbat diran? Ba guztiak, al eban lez, bota ebazan bere ganera Jesus'ek, guztien zofidun agertu zan, guztien lotsaria jausten yakon arpegitik bera. An ikusten ebazan beragan agintari ta menpekoen pekatuak, guraso ta seme-alabenak, andiki ta ezeukienak. An ikusten ebazan ainbeste birau, ainbeste gof-oto, ainbeste lapufeta. An ikusten ebazan, batezbe, bera santutasun eta garbitasunaren aurka ain zuzen doazan loikerizko pekatu iguingaŕiak. Baita neuronen pekatuak be antxe ikusten ebazan eta banan-banan; eta, berak ain maite ebanagandik etozalako, berarizko min eta oñaza emoten eutsen. Begiratzan eustan bere Biotzaren baruan, ikusten ninduan argi-argi; ta ¿zu be bai, ene semea? egiten eustan; ¿ez deustazu zuk be erukirik? ¿Ez dira naikoa ainbeste ziñis-bako, ziñistausle ta kristiñau deungak egiten deustezan irañak? Zauri sakonagoak eta mingaŕiagoak neure Biotzean edegitera etofiko

zatxatazan, ba, ene seme maiteori, zu be?

Bai, Jauna, egin dot, ordu txarrean mila bidaí, Ez beste bein. Damu dot biotzez. Gomutauko dodaz sarítan, autor-aldian batezbe, egin deutzudazan lotsabagakeriak, eta Biotz gozo maitetzale oíri emon deutsadazan atsekabeak.

¡Ze izango ete-zan, ba, Jesus'en lotsaria, soñeko zataí atsituz lez, pekutu guzti onekaz estalduta bere Aitaren aurrean agertzen zanean! Jaso osta-osta begiak bere Aitaganuntz eta ikusten eban dana asarátuta, arpegia albora egiten eutsala; ¡au Seme ain aitamaitetzalearentzat atsekabea!

Neuretzat izan beaí zan, Jesus Ona, Zeure Aitaren goíoto ta aseíe ori; neure ganera jaurti beaí eban bere zuzentasunezko espata zoíotza. Baña Zeu bion artean sartu zatxakuz, eta eíusari gogoí ori nigana eldu baño lenago, Zeure ganera etoíteá nai izan dozu. ¿Zelan, Jauna, mezede ain andi oíren eskeíak agertuko deutzudaz? ¿Eta nik Zu geyago iraindu? ¿Nik Zu geroago ta geyago maitetu ez? ¡Ai, Zeu-ganaño igon barik, neure biotzean sartuta geratu al-baleikez pekatariak Biotz samuí, maitekoí oíri egunero jaurtiten deutsezan tiroak!

Agertzen yako aingerua: Aita Betikoak Seme maitea, bere maitetasuna'ren ain atsekabetsu ikusi ebanean; estutasun eta lařitusunak, ondo ez eto'elako, kendu ez-pa-eutsazan be; baña aingerua bialdu eutsan inda'rtzeko, ez poztuteko.

Bat, diño Ebanjelioak, agertu yakola. Baña asko be geyago eldu yakazala, uste izatekoa da. ¡Arek bai geratuko zirala a'rituta, euren Jaun andia ain e'fuka'iro ikusita!

Baita neuri be, Jesus'ek lez, aspertu barik, neure estualdietan Jaunari otoitz egiten ba-deutsat; naita neure nekeak, bea' ez-bada, kendu ez, inda'rbidea beintzat bialduko deust.

Jesus'ek ezekianik, ez eutsan, ez, esango aingeruak. O'fegaitiño be apal entzuten deuto, bere Aitak bialdua zalako. Olantxe neuk be neure estutasunetan esaten yatazan berba pozka'riak apaltasun eta eske' onez entzungo dodaz.

Odolezko izerdia: Jesus maiteak, bere sortzetik zorionduna izanik, naibagerik ezin euki eikean. Ba'riz naibage barik inpernutik ezin gu zaindu; ta mirari andi bat egiten dau: zorionduna bizitza guztian naibagetan egotea.

¿Eta guk naibageak kentzeko mirariak eskatu? Baña Getsemani'ko baratzean naibage ta lañitasun guztiai zabal-zabal edegi eutsezan ateak Jesus Onak, sartu yakazan bañura, bete eutsen Biotz zabal, andi guztia; aurkitu eben odola zanetara jaurti eutsen, eta zanak beterik, odol eder arek tantaka-tantaka, izertan-puloak lez, urten eutsan gorputz guztitik, lenengo soñekoak eta luña gero busti arte.

¿Nok iñoiz entzun dau olako naibagerik? Urezko izerdia nekien-nekez ateratea ez da gitxi. Odolezkoa ateraten ¿nun iñor ikusi izan da? Eriotzarañokoa zala Zeure lañitasun ori, autortu zeuntsen apostoluai, Jesus oñek; baña mila bizitza eukita be, guztiak batean kentzeko, naikoa izango zenduan.

Ordu bi inguru egon zan Jesus Ona otoitz onetan. Garbituko eban arpegiko odola, ta jagi ta doa Apostoluakana, ta aurkitzen ditu lo: ¡atsekabe bañia Jesus'entzat! lo bere apostolurik maiteenak, beragaz zurt egoteko autu ebazanak, arerioak bera arapateko ain zoli ebiltzanean. Eta dirautso Pedro'ri: «¿Simon, lo zagoz? ¿Ordu betean be ezin nigaz itzañ egon izan zara?» Jagi, egon itzañ, eta otoitz

egizue, zirikaldian (tentaziñoan) sartu ez-zaitezten. Gogoa (arimea) gertu dago; baña aragia makal. Eta osterabe joan eta otoitz egiten dau, lengo berbak esanda: «Aita, Kaliza au edan barik igaro ezin baleiteke, Zeure guraria egin dedila». Eta biurtu osterabe (apostoluakana), ta bañiro lo aurkitu ebazan; ba euren begiak aztunduta egozan, eta zer erantzun be ez ekien. Eta eurak itxita, joan zan eta otoitz egin eban irugañenez, lengo berbak esanda. Joan zan gero irugañenez bere ikaslakana, ta esan eutsen: «Lo egin eta atsedendu zaiteze. ¡Naikoa da! ureratu da ordua; ontxe gizonaren semea pekatarien eskuetan itxia izango da. ¡Gora! ¡Goazen! Ni salduko nabena, uré dago».

¡Ai, Jauna, Zure erakutsi onek zenbat lotsatzen naberen! Zu, ain minduta, ain estu egon añen; luzaro, iru ordu ta geyagoan otoitz egiten dozu. Ni bañiz ze atzerea ototzerako, ta ze arin aspertzen nazan, batezbe atsekaberen bat daukadanean. Amaika bidañ altarako bakañtasunetik deadañ egiten deustazu: «Zurt egon zakidaz, lagundu egidazu». Eta nik apostoluen itxitasunari, Zure erakutsi ta deadañai baño geyago jaramonda, bakañik

izten zaitut, poztu barik; Zeure arerioak, Zeure kaltez Getsemani'n baizen itzañ ibili aŕen. ¿Zetako dozu, baña, Jauna, ni lako loti ta epelaren laguntasuna? ¡A, bazaut! Ez da bakarik Zure atsegiñagaitik; geyago da ni otoitz-beaŕez ikusten nozulako. Baña ni, apostoluen antzera, otoitz - egin beaŕean, loari, emoten nayako; ta, gero, zirikaldian, eurak lez jausten naz. Neure makaltasuna ezagututa, indaŕtzeko, otoitz-egin dagidan; Zeuk lez, otoitz-ostean, adore andiz arerioari arpegi emoteko.

Judas'en laztana: Ondio berbetan egoala (Jesus apostoluakin), ara nun datoŕen Judas Kariot'aŕa, amabietatik bat, gudarozte (tropa) ta abade nagosien eta Fariseoen otseñakin, eta eurakin aldra andia argi, espata ta sokakaz, abade nagosiak, lege-gizon (Eskriba) ta eŕiko zaŕak bialduta: Judas ekaŕen auŕetiko. Saltzaleak, baŕiz, ezaugaŕia emon eutsen, esanaz: «Besarkatzen dodana, besarkatzen dodala, axe da: oratu, ta arduraz eroan». Eta elduta batera, uŕeratuaz esan eutsan: «¡Aguŕ, Irakaslea!» ta laztandu eban. Eta Jesus'ek esan eutsan: «Adizkidea, ¿zetara etoŕi az?» ¡Judas! ¿laztanagaz gizonaren

Semea saltzen dok? Da esatea: ¡Adizkidea! Izen au emoten deuat, ez ik nire adizkidetasunik nai dualako, ez ire egikunak eskatzen yoelako; ta bai i nire adizkidetasunean sartzea nire gurari bizia dalako. Ba, adizkidea; ¿zetara etoñi az? ¿Ire asmoen bañi ez dakidala uste ete-dot? Oregaitiño be ez deuat ukatuko adizkide maiteenen artean emon oi-dan laztan ori; pozik andienaz emongo deuat, ia nire Biotzari ikutuaz, ire biotza biguntzen duan. Eta erukizko begirakune bat ezañita, onenean negañez sotinka ta Biotza maitetasunez taupadaka, estu-estu laztantzen dau.

Begiratu Jesus'en Biotza ta Judas'ena, alkañen ondoan: Jesus'en Biotza, biotzik onena, bigunena, garbiena, zintsoena, santuena; ta Judas'en biotza, biotzik txañena, gogoñena, loyena, guzurñtiena, deungeena, ta biotz biak alkañi deuntsela, bata-bestearen taupadak asmaten (sentitzen). ¡Au ikusgañia!

Eta gero etoñi arima bildurñtiren bat, eta esango dau: «¿Parkatuko ete-deustaz Jaungoikoak nire pekatuak? ¿Itxita ete-nauko?—¿Zer diñozu? Judas'i, gizonik deungeenari, Jesus'en maitetasunik bape nai ez ebanari, pekatu ain andia egitera joanean bertan,

Jesus'ek bere adizkidetasuna eskintzen deuto; ta zuri, pekatuak gofotau ta Jesus'en adizkidetasunean sartzea alagiña nai dozun ori, ¿adizkidetasun ori ukatu? ¡Ez egizu egin zeure itxaropenik ezaz, lengo pekatu guztiak baño andiagoa!»

¡Ez! ¡ez bilduritu, ez atzeratu! Naita asko ta arigariak izan zeure pekatuak, soaz Jesus'egana; besoak-zabalik daukazu, bere Biotzen ondoan laztantzeko.

¡Ez geroko itxi! ¡Zenbat grazia jausiko eteziran Jesus'en Biotzetik Judas'enera, biotz biak alkañi ikutzen egon ziranean! Baña, aitz gogoñean ura lez, jo Judas'en biotz arituan, eta zabaldu ziran; aretxek ziran Judas'i eskiñi yakazan azkenengo graziak, ¿ez ebazan artu? Laster itxi eban bere gorputza zugatzadaretik dindilizka; ta bere arimea, diabru bat lez, ondatu zan betiko inpernuan.

Gero... ¡azken-graziak dagoz! Eta artzen ez dabezana, galdua da.

San Pedro'en ukapena: Loturik Jesus maitea sokaz, lapur-gizan, daroe tatañez, or jausi, emen jaso, Getsemani'ko baratze-tik Jerusalem'era, ordubateterdiak inguruan. Itxirik Anas'enean igaro ebana, ta erizain

batek emon eutsan belarondokoa, jaraitu dagiogun aren ondoan egoan Kaifas'en etxera. Baña begiratu lenago Pedro'ren ukapena.

Jesus'en ikasle ta abade-nagosiaren adizkideak, oni esanda, sartu zan Pedro baruan, eta batu zan etartean egozan gudari (soldaduakin), azkena ikusi nairik. Abade nagosiaren mirabe atezaña uferatzen yako; ta begiraturik, dirautso: «Baita zeu be Jesus Nazaret'ekoagaz zinan». Baña berak ukatu eban guztien auran, esanaz: Ez ezagutu egiten dot, ez zer diñozun be ez dakit». Eta urten atera, ta olañak kukuñuku egin eban.— Andik laster, atean urteten joala, beste mirabe batek ikusi, eta albokoai esan eutsen: «Auxe be Jesus Nazaret'ekoagaz zan». Eta bigañenez, zin (juramentu) eginda, ukatu eban, ez ebala ezagutzen gizona. Andik ordu bete inguru, beste batek be esan eban: «Bai; auxe be beragaz egoan, Galilea'taña be bada-ta». Eta Pedro'k: «Zer diñozun be ez dakit, gizona.» Uferatu ingurukoak, eta esan eutsen Pedro'ri: «Euretarikoa zara; berbakeran be agiri dozu». (Galilea'tañak berarizko berbakerea eukelako). Eta beste batek, abade nagosiaren otseñak, Pedro'k

belarria ebagi eutsanaren senideak, dirautso: «¿Neuronek ez zindudazan, ala, ikusi baratz-ean beragaz? Orduan asi zan juramentuka, ez ebala ezagutzen ziñoen gizona, ta gaitzes-ten bere burua (birauak bere buruari ezarten) ezagutzen baeban. Eta ondio berbetan ego-ala, olararak bigarenez kukuñuku egin eban. Eta zuzendurik Jauna Pedro'ganuntz, begira-tu eutsan (edo begiz, edo gogoz grazia emonaz). Eta Pedro gomutau zan Jaunaren berbeaz, olararak biritan kukuñuku egin orduko, iru bidar ukatuko nozu. Eta, atera urtenda, negarrez asi zan.

¡Jazo benetan arigarria! Pedro, Apostolu ta Eleiza guztien burutzat izentauta egoana, ain gogo beroz Jesus maite ebana, Jesus bakarrik itxi nai baño, il be nayago ebana: ara or, neskame baten berbeari arpegi ezin emonda, Jesus Ona iru bidañeraño ukatzen, eta bizi ta garatz ukatu be. ¿Nor ez da bilduñ-tuko? ¿Nor ez da Jaungoikoagana indañ-bila elduko, naita bere ustez Jaunaren maiteta-sunean sendo egon?

¿Baña zegaitik jausi zan? Ariskutik alden-du ez zalako. ¿Eta zu, ene arimea, ariskuan sartuko zara? Libano'ko tantayak (árbol

bravío) geñi-geñitik, eta iru tokitik, ebagi dituz ariskuaren aizeak; eta inge (kañabera) ori oñean geratu? ¿Ariskuan sartu zara? Ariskuan jausi zara. ¿Ariskuan sartu naidozu? Ariskuan jausiko zara. Olan dauko Jaungoikoak erabagita, ta olan dirautso baktxari bere bañuak.

Pedro'k lez nega' dagidan, Pedro lez jausi naz-da. Baña *asi* egin zala orduan nega'ez, diño Ebanjelariak; eta bere bizitza osoan, olañaren kukuñukuaz yagita, nega' egin oi-ebela, diño jazoak, betertzak zaurituta geratu arte.

Josi, ba, Jauna, nire gogoaren bañu-bañuan be nire txar'to egiñen gomutea, nega'ez urtu dagidazan; eta, ondo zuñaua lez, galbidetik urundu nadin.

Jesus'ek gau atan igaro ebazanak: Abade ta lege-gizonak, baturik Kaifas'enean, eregi eben auzitegi (tribunal) nagosia, irurogetamabi auzi-epaleduna. Begiratu Jesus'i guztien erdian, begirunerik (modestia) andienaz, bildotza otzo-artean lez. Daka'ez guzu'ezko ziñaldari (testigoak); baña gauza dan eñurik ezin deutse jaso; ain zan garbia Jesus'en bizikerea. «Eta

abade nagosiak, erdira urtenda, itanduten deutse Jesus'i: «¿Ez deutsezu ezer erantzuten onen zalaketai (acusación)?» Baña Jesus isilik. Osterabe itandu eutsan abade nagosiak: «Jaungoiko biziaren izenean, ezaiguzu zu ete-zaran Kristo, Jaungoiko onetsi (bedeinkatuaren) Semea». Dirautso Jesus'ek: «Neu naz, Baña Gizonaren Semea (olan deitzen eutsan bere buruari) laster ikusiko dozue Jaungoikoaren indařaren eskuman jařita, ta ortzeko (zeruko) odai-ganean datořela». Orduan abade nagosiak, uratu ebazan bere soñekoak, esanaz: ¡«Biraua! ¿Ziñaldari (testigu) beařa daukagu ondio? Ontxe bertan entzun dozue biraua. ¿Zer deritxazue?» Eta guztiak erantzun eutsen: «ilgařia da».

Ikasi egizu emen, ene arimea, isilik entzuten zure kaltez esaten diranak, zeure bařuan zalatzen (akusaten) ezpazaitu; batezbe erantzutea alpeřikoa danean. Baita, baña, zeure ziñismena autortzen be, naita autortzeagaitik edozer igaro. — Emoidazu, Jauna, ořetarako laguntasuna, ondo beařekoa dogu gaurko egunean-da.

Artu ta eroaten dabe Jesus maitea au-

tortegi (konfesonarioa) lako gela txiki batera, ta asten yakoz bere arpegira txistu-urtika. Estaldu gero arpegia; ta, belarondokoak emonda, egiten eutsen: «Igañi, Kristo, nok jo zaituzan». Eta beste asko, birauka, esaten eutsezan.

Begiratu, ba, ene arimea, Jesus maitearen arpegi sotil (noble), aingeruen zorgaia, txistu zikiñez beteta. ¡A! orixe berori da gaurko birautiak egiten deutse-na. Baita pekatu egiten daben beste edozeñek be, ezaindu egiten dau bere ariman daukan Jaungoikoaren irudi edeña. ¿Eta lagun urkoari jaurtiriko irañak (injurias) ez alditu Jesus'ek berari jaurtirikotzat artzen? ¡Ai, Jauna, nok garbitu leikizun arpegi edeñ ori norberaren odolaz! Eta ala-giña iraintzen zinduezan bitartean; ¿zer egiten zenduan, Jesus maiteoñek? — Geldi-geldi egon, arpegia albora be egin barik, nire igañlak antxiñatik esan eban lez; zeugaitik, ene semeori, eskiñi neure Aitari irain andi ta ugari onek, zeure ariman daukazun nire irudia geroago ta garbiago egin dagizun, nire arpegia zeruan ikusiaz betiko zoriondun izan zaitezan.

Jesus Pilatus'enean: Eguna zabaldu zane-ko, batu ziran epaitegian; itanduten deutse Jesus'i, Jaungoikoaren Semea ete - zan; bayetz erantzuten dau; lotzen dabe burdi-ñaz sama ta esku, ta daroe Pilatus, E-ro-ma'k Judea'n eukan agintari (goberna-dorearen) etxera, kurutzeko eriotzea emo-teařen.

Zaratara batzen da kalietako ozte (gentea), ta ikusten dabe Jesus Ona, sei egun aurretik kale arek ain omen (gloria) andiaz igaro ebazana, gaizkile - gizan eriotzara daroela; jau munduko gauzen gora-berea! Onak saminduta begiratzen eutsen: zatař, lapuř, okeř guztiak, pozik; eta ardantegi (tabernetan) egozanak irañez abestu (kantaten) eutsen. (1).

«Daroe, ba, lotuta pretiora, Pilatus'en etxera; baña Judea'řak etziran sartu, Paskoa jateko loitu ez zeitezan. Urten eban, ba, Pilatus'ek atera eurakana, ta esan eutsen: «¿Zer dakazue gizon onen kaltez? Eta erantzun eutsen: «Gaizkilea ez balitz, ez - eutzugun emongo». Pilatus'ek

(1) Et in me psallebant, qui bibebant vinum. (Ps. 68, 13).

erantzun eutsen: «Artu egizue zeuek, eta zeuen legez erabagizue». Erantzun eutsen Judea'rak: «Guk ezin geinke inor il». Eta asi ziran zalatzen, esanaz: «Geure ozte edo jentea goibetuten aurkitu dogu, ta Kesa'i zergea (kontribuziñoa) emotea galera zoten; eta esaten bera dala Kristo-Erege». Sartu zan osterabe Pilatus pretorio-baurura, ta deitu eutsan Jesus'i. Eta agertu zan Jesus nagosiaren (Pilatus'en) aurrean. Eta nagosiak itandu eutsan: «¿Judea'ren Eregea zara zu? Jesus'ek erantzun eutsan: ¿«Zeure buruz diñozu ori, ala beste batek nigaitik esan deutzu?» Pilatus'ek erantzun eutsan: «¿Judeara al naz ni? Zeutarak eta abadeak nire eskuetara ekañi zaitue; ¿zer egin dozu?» Jesus'ek erantzun eutsak: «Nire Eregetzea ez da mundu onetakoa. Mundu onetakoa ba-litz nire Eregetzea, gogoñ egingo leukie nire menpekoak, Judea'ren eskuetan jausi ez nedin: oin, ba, ez da mundu onetakoa nire Eregetzea». Eta alan esan eutsan Pilatus'ek: «Orduan ¿Erege zara zu?» Esan eutsan Jesus'ek: «Zeuk diñozu, Erege nazala (alan da, zeuk diñozun lez). Ni onetarakoxe jayo naz, eta onetarakoxe etoñi naz lura, egiari zi-

ñalbena (testimoniñoa) emoteko. Egiaren aldekoa danak, nire berbea entzuten dau». Pilatus'ek esan eutsan: ¿«Egia zer da? Eta au esanda, urten zan Judea'rakana, ta abade nagosi ta gizaldeai esan eutsen: «Bape ez dot erurik aurkitzen gizon onegan». Eta abade nagosiak eta zañak askotan salatu aren, ezer ezaban erantzun (Jesus'ek). Pilatus'ek biga'renez itandu eutsan, esanaz: «Ez dozu ezer erantzuten? ¿Ez dozu entzuten zenbat salakizun diñoezan zure kaltez?» Jesus'ek bañiz, ez da berba bati be ez eutsan geyago erantzun, nagosia (Pilatus) oso arituta geratzeragiño. Baña arek inda' geyagoz ziñoen: «Judea osoan eña zirikatzen dau, Galilea'tik asi ta onaño». Pilatus'ek, Galilea entzun ebanean, itandu eban Galilea'ta'ra ete-zan. Eta Herodes'en mendekoa zala jakin ebaneko, Herodes'egana bialdu eban, Jerusalem'en egoan egun aretan da, (Paskua egiteko)».

Begiratu alde batetik Judea'ren Jesus-eganako amo'oa, ta bestetik Jesus'en bake ta epea arerio ain gogo'ren erdian: ¿zer ete-da erubakotasunak arimara daka'ren inda', zabaltasun eta nagositasuna? Ez egizu erurik

euki, ta mundu guztia zeure aurka amofoka ibili aŕen, ez deutzue ezer egingo, ez bakterik kenduko.

Jesus Herodes'enean.— «Jesus ikusita, asko poztu zan Herodes, ba antxiñatik ebiñen ikusi-nairik, beratzaŕ gauza asko entzun ebazalako, ta mirariren bat egiten ikuste-aŕen. Itanduten eutsan, ba, bañitsukeriz. Abade nagosi ta lege-gizonak, bañiz, geratu barik egozan bera salatzen. Herodes'ek bere gudarozte (ejertzitoagaz) gitxietsi (despreziau) egin eban, eta zurizko jantzita Pilatus'i atzera bialdu eutsan. Eta egun etan adizkide egin ziran Herodes eta Pilatus; ba len alkaŕen arerio ziran».

Begiratu Jesus eta Herodes auŕez-auŕez. Herodes bigunkeriz itanduten, Jesus begiratu gizon loikeritsu onen ari-mea, ta iguindurik, isilik. Ona egoan Jesus, Herodes'en palagoai jaramonda, bere ikus-naya asetuteko, batezbe azkatua izate-aŕen. ¡Zelako belañondokoa emoten deutsan bere isiltasunaz!

Loikeriz burua ilunduta ta biotza gogoŕtuta eukan eŕukañi au, ez egoan erakutsi ain sakona ulertzeko (entenditzeko), ta

zorotzat artu eban. Begiratu Jesus Ona, Jaungoikoaren jakituria, zoro jantzita, Jerusalem'go kaleetan-zear, gizaldreak bañe ta txistu egiten eutsala. ¡Eu aiz i zoroa, mundu itsu ori, Jaungoikoaren jakituria zorotzat daukan ori! Ez naz, Jauna, lotsatuko, munduak zorotzat baneuko be. Zeure zorakeria nai neuke neuretzat, neure egizko zorakeriak kentzeko.

Jesus osterabe Pilatus'enean: Pilatus'ek, abade nagosi, lege-gizon eta eñia batuta, esan eutsen: «Ekañi deustazue gizon au, eñia aldenduten ebala-ta; baña nik zeuen aurrean itanduta, zeuen salakuntza (akusaziño) guztietatik ez dot eñurik aurkitu. Ez da Herodes'ek be; ba beragana bialdu zaituedaz, eta eriotzea zoñ yakanik, ez deuto egin. Azkatu egingo dot, orduan».

Jesus Bañabas baño gitxiagokotzat: «Egun andian (Paskuan) oi-eban nagosiak (Pilatus'ek) eñiari azkatu loturikoetatik bat, eurak zein nai eben. Lotu ospetsu (famoso) bat eukan Bañabas eritxona, lapuñá, ta gora-bera baten eriotzea egin ebana. Eta gizaldrea, igonda, asi zan eskatzen, beti lez. Pilatus'ek bañiz erantzun eta

esan eutsen: «Oiturea daukazue, Paskoz bat azkatzeko. ¿Zein nai dozue azkatzea, Jesus, ala Bařabas?» Ba bekian, abade nagosiak Jesus'i eutsen ezin-ikusiatik, ekaři eutsela. Baña auzitegian egoala, emazteak bialdu eutsan, zirautsala: «Ez egizu euki zer ikusirik gizon ořegan, ba gauza asko igaro dodaz gauř amesetan bera dala-ta-ez dala» (aingeru onak, ala txarřak, ipiñirikoak ete-ziran, ez dakigu). Abade nagosiak eta zarřak bařiz zirikatu eben gizaldrea, ta eřiari buruan sartu eutsen Bařabas eskatzeko, ta galtzeko Jesus.

Esan eutsen, ba, nagosiak:—¿Bietatik zein nai dozue azkatzea?—Eta gizaldra osoak erantzun eban deadařez:—Kendu ori, ta azkatu egiguzu Bařabas.—Pilatus'ek osterabe berba egin eutsen Jesus azkatu nairik: «¿Judea'ren Eřegeari, Kristo deritxon Jesus'i, zer egingo deatsat, ba?» Eurak baři deadař egin eben, esanaz: «¡Kurutzatu, kurutzatu!» Eta Pilatus'ek irugařenez esan eutsen: «¿Zer gauza txarř egin dau onek ba? Zurřauta azkatu egingo dot». Baña eurak deadař andiagokaz ekin eutsen kurutzeratzeko eskatzen; eta euren deadařak geroago ta andiagoak

ziran. Pilatus'ek zaratea geitu baño ez zala egiten ikusirik, eskatu ura ta eskuak garbitu ebazan eñiaren aurrean, esanaz:—Ez daukat eñurik gizon zuzen onen odolean.—Eta eñi osoak, erantzunda, esan eban: — Geu ta geure semeen ganera bere odola.—(Eta alantxe dago jausten gaurko eguneragiño). Pilatus'ek, ba, eñiaren edeñagaitik, agindu eban euren eskakizuna egitea, ta azkatu eutsen eskatzen eben Barabás, gaiztategian (presondegian) gizona iltea ta gora bereagaitik egoana, ta Jesus artuta zuñau eben».

Jesus'en astiñaldi edo azoteak. Iruditu Pilatus'en etxean sala andi bat, eta beronen ertz baten iru oin inguruko pilañea, burdinestun edo argoñá bategaz, zuñau beañ ebazanai eskuak lotzeko. Bertan lotuta, biloisik, Jesus maitea, inguruan boñeroa arantzadun zigoñá (edo burdiña zoñozdun uela nai sokea) eskuetan dabela. Nagosiak esaten ditu onakoetan oi-ebazan laterazko (latiñezko) berba onek: «¡I, LICTOR, CREDITO». “*Ia, boñeroa, zauritu*”. Eta asten da boñero gogoñá bere besoetako indañ guztiaz Jesus'en aragi garbia astinduten. Urteten da Odol edeña, ta txipristiñak goñitzen dabez boñeruen arpegi

ta soñekoak. Jesus Ona egoan geldi - geldi, zigoñadai iges egiteko zirkiñik be egin barik, isil-isilik, jai, bat ateraten ez ebala. Au ikusita boñeroak bigundu beañean, guztia zoñ ebalako olan egoala-ta, ekin geroago ta gogogogago; Jesus'en gorputz biguna edegiten da, ta urteten da ugariago Odol mundu-eroslea. Nekatzen da boñeroa, ta bere ordez badoñ beste bat. Jesus ez da nekatzen zigoñkadak artzen. Uñatzen da geroago ta geyago Jesus'en Jaungoikozko aragia, ez dauko zauri bako tokirik, eta zigoñadak zauriak zauriganean egiten deutsez. Eta jazo negañoa au ikusten egon zan Andra-Maria'k Santa Brigida'ri agertu eutsan lez; sokak, ateraldian, Jaungoikozko aragi-zatiak kentzen eutsezan.

Begiratu Jesus Ona, dana zaurituta, aragi bizian, alde guztietatik odolezko ituñiak eriozala; beya odolezko eñeka bat egin da, ta boñeroak euren oin loyakaz Odol edeñ a zapaltzen. Ikusi beyaren ganean Jesus'en aragi zatiak be; artu arduraz eta mun itzalez, Jaungoikotasunaz batuta dagoz-eta.

Erdu, zeruko aingeruak, Pretorio'ra, emen ikusiko dozue zeuen Jaun altsua, munduko gaizkilerik andiena baño gogogogago zuñauta.

¡Andra-Maria! ¿zer igaroko ete eban zure Biotz samurak, zeure Seme ain maitea tayo ain negaragian ikusita? Eta zuek, boñero biotz gogorok, ¿zelan ez zare erukitzen gizon erubako, on baño egin ez daben oregaz? ¿Zelan darabiltzuez zeuen zigorak, gaizkilerik zatarenak astintzen dozuezanean baño asko be gogorago ta ariñago? ¿Ikusi dozue gaizkilerik ori baizen geldi, ori baizen isil, ez zeuei erukirik eskatu, ez zeuen gogorakeriagaitik arpegi artu barik? ¿Zelan, ba, ez yatzuez jausten eskuetatik zigor gogor orek? ¿Zelan darabiltzuez geroago ta indar geyagoz? ¡Ai! beste indar mueta batek, eskutukoa, baña ikaragarriak, darabiltz beso orek. Bakit, ¡Jesus Ona! zeure Igarleak erakutsi deust; neure pekatuak dira boñero aren biotzak eurenez ziran baño be asko gogoragoak egin dabezanak; neure pekatuak emoten deutse euren besoai ain indar andia. ¿ATTRITUS EST, diño, ba, Isaias Igarleak? *zatituta dago.* ¿Zelan ez? Ogeta emeretzi zigorada baño ez yakazan emoten inñori; ta alan da guzti be, Eleizako lenengo ziñopa (martirien) jazoetan irakurten danez, gorputz osoa zatituta, azurak eta erayak eurak ikusteko eran

geratzen ziran, eta ez gitxi ilda. ¿Zelan, ba, ez zan zatituta egongo Jesus'en gorputza, santu askoren agerkundetan ikusten dogunez, bost-mila ta geyago izan ba-ziran Jesus'i emon yakazan zigoñadak? ATTRITUS EST, *Zatituta dago*, ba. ¿Baña zegaitik? Auxe da ondio negaígaíagoa: PROPTER SCELERA NOSTRA; *Geure pekatuakaitik*. ¿Eta zelako pekatuakaitik batez be? ¡Aragizkoakaitik! Eleiz-Guraso Santuak dirauskuenez.

Ara or, ene arima maitea, zure pekatuak nora jo daben. ¿Eta zure gorputz oreri atsegin apur bat emotearen, ez zara lotsatuko Jesus Ona alagiña minduten? ¡Ai, ene Jesus! geroago ta maitegaíago agertzen zatxataz. ¿Zelan, Jauna, artu dozuz zeure sorbaldetan, guk geure pekatuakaitik inpernuan igaro beaí genduzan miñak? ¡Zauritu ta odolusturiko gorputz garbi ori, ze kitugaí egokia zeure Aitari geure zikinkeriakaitik eskintzeko! Josi, Jauna, nire biotzean, Santa Teresa'ri lez, pílara areri lotuta egon ziñanean eukazun tayo negaígaía, bera lez luíreko atsegin guztietatik urundu nadin.

Arantzazko burestuna (koroya). Boñeroak itxi eutsenean, ba-doa Jesus Ona, maka-

len-makalez oñan ganean ezin egon ba-zan be, soñekoak eukazan zokondora; ta berberak, bere eskuz (olan yagokan bere garbitasunari), ořetarako adorerik euki ez ařen, jantziko ebazan. (1).

Gudariak (soldauak) ez ziran ondio gogořkeriz asetu. Gomutaten dira Eřege egin ebala Jesus'ek bere burua, ta Eřege jantzi beař dabela. Kentzen deutsez odolaz gorputzari iratzi yakazan soñekoak. ¿Baña zelan? ¿Arduraz miñik ez emoteko, amak guri txikitant zauri-ganeko mantařtxoak kentzen euskuzan lez? ¡Ořetarakoxe egozan gizon biotz gogoř arek! Teinkaka, soñekoaz batera erotaten eutsezela, dingilizka eukazan jaungoikoaragiaren zatiak. Bañiro gorputz guttia odolezko eřeka bat. Kentzen deutsez, ba, bere soñekoak, eta jazten deutse beste zatař, gořia, Eřegeak euki oi-eban antzekoa. Burestuna (koroya) orain. Zarta bat, atzamař luzerako arantzaduna, artzen dabe alboko kortatik, biribiltzen dabe burestun-antzera,

(1) Bere soñekoak ziran: 1.º *bařukoa*, geure interiora baño luzeagotxoa, Andra-Maria'k bere eskuz egiñekoa, ta Jesus'en gorputzaz batera asten zana; 2.º *tunikea*, geure sotana-antzekoa. 3.º *gerikoa*. 4.º *kapea*, geure mantoa lakoa, baña labuřagoa.

ipinteh deutsez Jesus maiteari bañu-bañuan, ain gogoñ, zein da oñ jausi ta emen jaso ibili añen, ez ei-yakon kendu. Ez dauko Eñege-zigoñik (zetrorik), diñoe; kañaberazkoa izango da onena, utsa baño ez dan eñegetzea adierazoteko. Eta ipinten deutse kañaberea eskuetan.

¡Norañokoa izango ete-zan orduan, ene Jesus maite oñen min eta lotsaria!

Soñeko goñiaz, arantzazko burestunaz, eta kañaberea eskuetan dabela, jañi eragiten deutse, ta bere auñean belaunikoturik, dirautse; «¡Judea'ren Eñegea, Aguí!» Eta batzuk au egiten eben bitartean, matralakoak emoten eutsezan besteak, jaurtiten eutsen txistoa bere arpegi edeñera, ta eskuetako kañaberea kenduta, beragaz buruan, arantza - ganean joten eben. Arantzatxo bat sartzen ba-yaku gorputzeko tokirik soñenean (insensible), orpoan, ezin gara ibili; ¿zer izango zan Jesus-en miña, eukirik ainbeste arantza, ain andiak, ain gogoñ sartuta, gorputzeko zatirik minberenean, buruan?

Begiratu emen, ene arima maitea, zelako miñak emon deutsezan Jesus'i zeure buruan darabiltzuzan añokeri ta batez be loikerizko

gogapen (pentsamentuak). ¿Eta au jakinda be beste ainbeste egingo dozu? Arantza arek baño gogoñagoa ta eñuki-bageagoa izango litzake, orduan, zure biotza. Gomutau, gogapen zatañak yatoñtzuzanean, ze mingañiak diran Jesus'entzat.

Ecce homo: Pilatus'ek, ikusi ebanean Jesus Ona mantañ zañ aregaz jantzita, arantzazko burestunaz, eskuan kañaberea, ta arpegi guztitik, auñetik eta atzetik, eta albo bietatik Odola dariola, gizon-antzik be barik, eñukituta, uste izan eban, andia izan añen Judea'ñak Jesus'i eutsen goñotoa, ibituko zala, tayo ain negañgañian ikusita. Artzen dau, ba, agertzen deutse ta dirautse: **ECCE HOMO; ara oñ gizona.** Da esatea: «goñoto andia deutzazuela, bakit; baña gizon-biotzak badaukazuez, eñubako gizona onan ikusiaz, naikotuko zaree: begiratu ia gizon-antzik be ete-daukan». Baña Judea'ñak, leo amuñatuak lez, oñ-oika deadañ egin eben: «¡Kendu, kendu; josi Kurutzean!».

¿Zer igaroko ete-eban zeure Biotzak, Jesus Onori, goñotoz beteriko deadañ arek entzueran? Arek ez eutzuen nai begiratu

be; nik bai. Zeruko Aitak Zu ořetara erakutsita, deadař egiten deust: «Ara oř gizona». ¡Bai! Orixe da nire egikizuna; neure pekatuak ipiñi zaitue, Jesus laztanori, tayo ain damugařian. Josi nai neuke neure buru - biotzean Zure arpegi soutil ořen irudia, iñoiz pekatuaz olan ipiñi ez zaidazan.

Jesus Kalbarioan-gora. Pilatus'ek Jesus Kurutzeratzeko epaya emonda lasteř, ekaři ebezan iru kurutze Jesus eta lapuř bientzat. Lapuřak, kurutze arek ikusieran, ¡zelako atsekabea! «Ortxe, esango eben, itxiko doguz geure biziak ordu gitxi bařu miñik andienen artean. Jesus'ek bařiz, ¡ai zelako poza! Ogetamairu urtean egonda kurutze ořen egařiz, bere gurariak Biotza estutzen eutsala. Eta orain, ikusitakoan, ze pozik eta gogo beroz laztantzen daben. «Aguř, egingo eban, San Andres'ek bere kurutzeari baño neuři barik beroago, aguř, kurutze antxiñatik gura izanikoa, arduraz maitetua, geratu barik bilatua, ta noizko baten zure-guraz dagon gogoarentzat gertua; zu izango zatxataz munduko nagosi, deabruari burua zapaltzeko eřege-zigořa, zeu neure gizon maite-entzat zeruko atea edegiteko giltza». Esan-

da, ze pozik ipinten daben sorbalda zaurituen ganean.

¿Eta, Jesus ain kurutze - zale ikusita, kurutzeari igeska ibiliko naz?

Asten da Kalbarioan gora igoten. Lenengo, deitzalea Jesus'en eñuak deadañez esaten; gizaldra andia gero, onen ostean abadeak, zañak eta lege-gizonak; gudariak (soldauak) eta nagosia, euntaria, zaldi-ganean; boñeroak mañu, untze ta beañ ebezan beste gauzak eskuetan eroezala; ta azkenez, lapur' bien erdian, Jesus, belau-nak dañdañ, arnasa-oska, odola ta izerdia bekokitik - bera joakazala; gizonezko ta emakume asko atzean. Fariseo ta gaiztoak, pozik; Jesus'en lagunak ilun, eta guztiak Jesus'egana uñeratu nairik, arpegia ikustearen.

Andra-Maria ta Jesus alkar' ikusten dira.
—Zaratea entzunda, edo San Juan'ek esanda, urtengo zan Andra-Maria Sion'go Mendia eritxon etxetik, bere Seme mai-tearen atsekabeak bere begiz ikusteko, bizitza guztian gomutau egizan.

Jesus'en kurutzea aztuna zan: ¿zelan ez gizon guztien pekatuak beragan ba-eukazan?:

amabost oin goitik-berako zurak, zearkoak zortzi; bera oso nekatuta, odolustuta, sorbaldak uratuta, kurutzea tatarez daroala; ta kroskaren baten jota, jausten da Jesus Ona. Bere arpegia txistuz, izerdiz eta odolez; Jerusalem'go kaleak autsez; eta arpegiaz luña joeran, autsa arpegian ezarita geratuko yakon: onantxe ikusi eban bere etxetik Beronike'ak, gizon-antzik be barik; onantxe ikusi eban Andra-Mariak be.

Lagun-artetik urtenda, arpegiz-arpegi agertzen yako, begiratzen deutso Semeari, Semeak be bai Amari: ezpata bi izango ziran begirakune bi onek Ama-Semeen biotzentzat; antxe bertan geldituko zan Andra-Maria atsekabez ilda. Baña Jaungoikoak indartu nai eban, Kalbario'an egotea nai eban, eta bertako atxak baño be sendo-ago, bere Semearen oparia biotzean eskitzen; beragaz batera geu deabruaren mendetik erosi, ta laguntasunak (grasiak) zabal-tzeko eskubidea euki egian.

Goñotau dagidazala, Andrea, nire pekatuak, eurak dira zure Seme maiteori ain negargaro ipiñi dabena-eta. Luzatu niri be zeure begi erukitsu orek.

Simon Zirine'taía laguntzat emoten deutse. Jausten da Jesus Ona bigaíenez be; ta Judea'rák ikusirik ezin eldu eikela Kalbario-ganera, bílatzen deutse laguntzalea; ¡baña alpeírik! Ainbeste míla ta míla lagunen artean ez dabe aurkitzen eíukioí bat. ¿Ez al-zan aurkitzen Jesus'ek on egiñikoren bat; edo, beintzat, bere jaíaitzalerik? Bayetz dirudi. Baña ikaragaía zan Jesus'ek bere inguruan eroyan lotsaria, ta uíferatu be ezeban nai iñok.

Oratzen deutse, ba, bere solotik etoíren erbesteko bati, eta naita ez eroan erazoten deutse Jesus'en kurutzea. Ez ebela on andirik egin gizon onek, esan lei. Baña Jesus'ek beraganako ziñismena emon eutsen bere seme biai; ta berari be bai, uste izatekoa danez. ¿Zer ez ete-deutse emongo, berak emoten deustan kurutzea, au da, neure atsekabe ta nayez guztiak, miñez ¡aika! ibili-aíren, gogo onaz eroaten badi-tudaz? ¿Kalbarioan orduan aurkitu banintz, kurutzea eroaten pozik ez neutsan lagunduko Jesus'i? Ba eroan egizuz Jesus'ek egunero lepoan ipinten deutzuzan kurutzeak, eta orduan lagundutako beste; osterantzean ez zarala berea, dirautzu.

Jesus'ek Jerusalem'go alabai berba egiten deutse. Jesus'en atzean etoñen eriko gizaldra andia, ta emakumeak negañez eta ileetaka. Jesus'ek, bafiz, ikusirik edozelako gaizkileari lez erukiz begiratuta, nega egiten ebela, ta ez euren pekatuagaitik, izanik eurak bere miñak eta euren galdu-mendia dakañenak, eurakana biurtuta dirautse: »¡Jerusalem'go alabak! Ez nigaitik negañik egin, eta bai, zeuen buru ta zeuen semeakaitik. Ba etoñiko dira egunak, esango dabena: Zorionekoak seinbakoak eta sortu ez daben erayak, eta bulañtatu ez daben ugatsak: orduan asiko dira mendiai esaten: Jausi gure ganera; ta egiai (colinas) ezkutau gagizuez; ba zugatz (arbola) ezean onek egiten badabez, ¿igarañean zer egingo da?»

Beti, Jauna, Zu zeure min eta estutasunai jaramon barik guri erakusten. Egi andia, Jesus Ona, diñozuna. ¿Zeren begira ete-gagoz zugatz igañ, sutarako baño ezgaranok, zu zugatz eze, ain ekañi ugarikuori, gure pekatuak zeugan artu dozuzalako, Jaungoikoak olan ipiñi bazaitu? Zeure Odol ongañitsu oregaz ezkotu, Jauna, gure arima leoñak, usain gozozko ekañiak zeure Aitarentzat emon dagiguzan.

Kalbario ganean: ¡Beaztunezko edaria!
 ¡Ezin geyagoz nekatuta, arnasarik be ezin artuta, Jaungoikozko arpegia oso zurbildu, ta txistuz, autsez, odolez beteta, eltzen da Jesus Ona, Jerusalem'go muruen ondoan egoan menditxora! ¡Kalbario'ra! Erasten deutse kurutzea, ta irurari emoten deutse kurutzaldiko miñak sortuteko emon oi-zan edontzi edo baso-bete ardau; baña lapurái utsa, Jesus'i beaztunez nastauta.

¿Deabrua da, ala zeu zara, Jesus Onori, zeure burua zelan atsekabetu asmaten zabiltzana? Ikusi dot zure gorputz guztia, geure gorputzeko loikeriakaitik zaurituta, zatituta; zeure buru agurgarria, geure arokeri ta zikinkerizko gogapenakaitik zulatuta; olan uste neban guztiori zeure Aitari geure pekatuakaitik opetsi (ofrezidu) ziñala. ¡Baña, ez! Agirikoa bakañik eskiñi eutsazun; barukoa be eskiñi nai deutzazu, ta oretxegaitik da edari garatz ori artzea, geure jan-edan lalegiakaz zeure Aitari egin deutzaguzan obenak kitatzeko. Salokeriak (glotoneria) zirikatu nagianean, zeure edari garatz oregaz gomutau nadila.

Jesus'en biloztasuna: Kurutzean josteko

erasten deutsez gogoñkeririk andienaz Jesus Onari irugañen aldiz bere soñekoak, zauri guztiak bañiztaten yakozala. ¿Baña batezbe zelakoa izango zan zure lotsea; Jesus garbi ta lotsoñ ori, ainbeste miña ta miña lagunena aurrean, biñoisik agertu ziñanean? Ai, neure jantzi año ta biñoistasunena ordezkkoa dozu ori, Jauna.

Jesus kurutzean josten dabe: Bitartean ipiñiko ebezan kurutzeak euren zuloetan. Eta Jesus maiteak, begirakune gozo bat zeruko Aitari ta alboko Amari ezañita, igotenda, biotza geuganako maitetasunez beterik, kurutzeko urkamendira. Oratzen deutso beso batetik boñero batek; besteak ipinten deutso eskeñagaz untzea esku-bañuan, eta eskumeaz jasoten dau mañoa. ¿Zer doa egitera gizon ori? Abraham egon zan beste aldi baten bere semeari samatik oratuta, ta añizko izkiñoa (kutxiñoa) jasota. Ikusi eban Jaungoikoak; eta naikotuta, deadañ egin eutsan: «¡Abraham, Geldi!» Aita betikoak ikusten dau jasota bere Seme maite, benetako Isaak esanekoa, kurutzean josiko daben mañoa. ¿Eta itxi egingo dau? ¡Bai! Pozik nago, ene Seme maitea, egingo eutsan Jesus'i bere bañuan,

pozik nago nire maitetasunez kurutzeratu zarealako, Abraham eta Isaak'enak baño neuri barik geyago goratzen nau zure esanekotasunak; baña lafregiak eta andiegiak diragizonen eñuak eskiñiaz bakarik geratzeko: jausi dedila, ba, maño ori, josi daitezala eskuoin oñek, eta bete dedila eskintzen zagostazan oparia (sakrifizioa).

Jaurtiten dau, ba, boñeroak mañoa Jesus'en esku-ganean egoan untzearen burura, zabalitzen dira zaratak inguruetako ibar eta mendietaruntz, eta jasoten dira ikusguren alarau ta deadañak. Andra Maria'k zelako sotiña zarata oñek entzueran. Josten deutse, ba, esku bata ta bestea; gero oñak, okeñtuten dabe untzearen zoñotzunea, ta ara zeru-luñen erdian, zerua luñagaz baketu beañ eban Jesus Ona.

Begiratu Jesus'i: Odolezko lau ituñi daria-koz esku ta oñetako zuloetatik; bere Eleizako paraizua ezkotuteko.

¡A, egokerearen estua! Uñeratzen badau burua kurutzerara, edegiten yakaz arantzakaz egiñiko zauriak; zirkiñik egiten badau, bañiztaten yakoz gorputz guztiko miñak: eta, atsedeen egin barik ezin egonda, gorputza

jausten bayako, bere aztuntasunak uratzen deutsoz oñetako zuloak... Zirkiñik ezin egin, eta egin barik be ezin egon. Emen bat-edo-bat urkatorduan, naita andiak izan bere erúak, guztiai biguntzen yakez eráyak.

Jesus'egaz bakañik erukitasunaren legeak eurak be uts emoten dabe. Kurutzean ain min andietan egoan tokitik, ikusten ebazan «bideanzear joazanak (ba bide-ondoan egoan kurutzea) euren buruai eraginda, esaten eutsela:—Ai, zu, Jaungoikoaren Eleizea banatu ta iru egunean bañiztaten dozun ori: Gorde egizu zeure burua; Jaungoikoaren Semea bazara, jatzi zaitez kurutzetik. —Olantxe abade nagosi, lege-gizon eta zañak be, iri eginda, batak besteari esaten eutsen:—Besteak gorde ditu, ta bere burua ezin dau gorde.—Baita gudariak be, ureratu ta ozpiña (biñagrea) eskiñiaz, destañaz esaten eutsen:—Judea'ren E'regea bazara, gorde egizu zeure burua.—Beragaz kurutzean egozan lapur-etatik batak be, (bere erúak Jesus'enen ondoan zer ikusirik ez-baleukee lez) birau egiten eutsan, esanaz:—Kristo bazara, zeure burua ta geu gorde gagizuz».

¿Eta aurreko gizaldra andiak zer egi-

ten ebala? Ebanjelariak esango ez ba-leu, ziñistu be ez geunke egingo. Ikusi Jesus atsekabe ain andietan, eta ¡bafe! Ez dago zegaitik aritu; ba abade-nagosi, lege-gizon, jakitun eta onenak izan bea' ziranak ainbeste gogo'keri, ta ori erlijio-izenean, egiten eben ezkeru, edozeñek eukan nai ebana esan da egiteko eskubidea.

¡Euki ba-litu bere lagun maiteak, euren berba atsegintsuak entzun, edo beintzat ainbeste irain eta min-artean gozatzeko! ¡Oretarakoxe egozan! Lagunak eurak minduten eben ondio geyago. Batak saldu, ta ipiñi eban arerio ain e'uki bakoen eskuetan; beste batek, berak geyen goratu ebanak, askoren au'ean ukatu eban; eta beste guztiak, arerioen eskuetan itxita, igesari emon eutsen. Au'ean daukaz, bai, San Juan, emakume Santuak eta Andra-Maria; baña onek, kendu bea'ean, geitu baño ez deutsez egiten bere oñazak, batez-be, bere Ama maitearen arpegi atsekabetsua ikusita.

Zeruko Aitak, edo, orduan, poztuko eban, ziñopa (martiriak) be bo'eroari bafe egiteraño atsegintzen ebazan-da.

Atsekabe gitxi eukiko ebazan kurutzean Jesus'ek, bere Aitaren arpegia ikustea lakorik.

Ainbeste miñen erdian, jaso begiak Aita maiteagana; ta Aitak, bañutik bere Semea ain maite ba-eban be, baña gure pekatuak bere ganean, guztiak berak egin ba-litu lez, artu ebazalako, asafe-antzera begiratu ta ez - ikusi egiten eutsan. ¡Zer izango ete-zan Jesus'entzat bere Aita maitea oñetara ikustea! Jesus'ek berak, beste atsekabe guztiak itxita, auxe bakañik agertu euskun, esanaz: ¡ELOI, ELOI! ¿LAMMA SABACTHANI? *Ene Jauna, ene Jauna, ¿zegaitik itxi nozu ni?*

Onegaz esan lei azkeneraño eldu zirala Jesus Onaren atsekabeak; ba lagunak eta arerioak, aberatsak eta ezeukiak, eleizako eta urikoak, gudariak eta bakezkoak, Judea'ñak eta arotzak (erbestekoak), baita luña ta zerua bera be berau minduteko batu zirala dirudi.

¡Baña ez! Andiena geratzen yako ondio. Pozik igaroko ebazan Salbatzale maiteak estutasun guzti onek, baita geyago be, ondio geyago igaro ba-eikean, deabruaren erpeeta-

tik gu atarau, ta betiko atsegintzara eroa-
teaŕen. Baña ¿zelako samintasuna izango
ete-zan bere Biotz guganako maitetasunez
beterikoarentzat, bere ondo-ondoan lapuŕ
deungea il eta inpernura joaten ikustea;
Judas, berak ałagiña goratu ebanaren gal-
dumendia jakitea; eta batezbe norañokoa
izango ete-zan bere Biotzeko miña, luzatu
bere Jaungoikozko begiak alde ta aldi
guztietara, ta ainbeste miloi ta miloi beti-
ko inpernuko su-lezara joaten ikustean;
berak, eurak andik aldentzeko, ainbeste
atsekabe igaro aŕen? «¿Zer atera dot neure
Odola emoteaz?» egingo eban, Dabid Igaŕ-
leak beronen izenean esan ebazan berba-
kaz. Da esatea: «Neuŕi barik neure Odola
izuri dot; ez daukat gorputzean Odolezko
ituŕi egin bako zatirik; Pretorio'tik ona-
giño yaŕaitu daitekete, neure atzean itxi
dituzadan Odolezko oñatz-ostean; lau tanta
baño etxataz geratu Biotzean, eta eurak
emon barik ezin geratu naz, eta geyago
emongo neuke, geyago baneuko. ¡Bai!
¿Baña arimak, ainbeste Odolegaz erosiriko
arima maiteok, nun zaree? ¡Inpernuko su-
tan nik zuek ikusi beaŕ, eta betiko! ¡Al-

peñik geyenontzat nire Odola, alpeñik nire atsekabeak, alpeñik alegiñak!

Onako gogapen, edo berak obeto daki-zan beste batzuetan sartuta, baña guztiak neuñi bako maitetasunezkoak, neuñi bako erukizkoak eta neuñi bako miñezkoak: lausotzen yakoz bere begi, mundu osoaren pozkariak; ainbeste berba gozo atera ebezan ezpanak, baltzituden yakaz; Betiko Aita atsegintzen eban arpegi edeña, zurbiltzen yako; mugabageko maitetasunez beterik eukan biotza, jasoten da: eta ilten bazan, berak nai ebalako ilten zala adierazoteko, batzen ditu bere indarñak, eta deadañ andiaz diño: «¡Aita! nire arimea Zeure eskuetan izten dot». Makuñtzen dau burua, ta ilten da.

Eta bere oñetan jausi beañ nitzake pekatariau be, damuen-damuz ilda. Begiratu, ene arima maitea, auñean daukazun Jaun oñi: gorputza otzitura, zauriz eta odolez beteta; begiak itzal, burua makuñ, aozabalik, agiñak agirian. ¿Nor dozu? Jaungoiko andia, zeru-luñen Egilea, zeure Aita. Tayo ain negarñagian ¿nok ipiñi dau? Zeuk, zeure pekatuak. ¿Au jakin, da

pekatu egin? Ori egiten ba-dozu, ez inpernu bat, bi zo' dozuz. ¡Ara o', ene arimea, zure egikizuna. ¡Jauna! ilda zagoz, baña ikusten nozu, ta damuz eta lotsaz nakutsu. Il nedila neu, neu naz eruduna-ta; baña zu bizi zaitez atsegintza o'etan. Lapu' onari be deitu eutsazun-da, deitu niri be. Andiak dira nire gaiztakeriak, baña zeuk zeure eriotzeaz guztien kitugaña eskintzen ikusita; ¿nok ez dau itxarongo? Eroan nagizu, ba, ni be Zeure e'eneñura, betiraun guztian Zeure erukitasunak goratzen egoteko.

Gudariak lantzeagaz Jesus'i bulaña edegiten deutso. Semearen atsekabeak amaitu dira. Baña Amarentzat zolienak ontxe datoz: «Judea'rak PARASCEVE, *Gert-eguna*, izanik, sapatuan (atseden-egunean) korpuak kurutzean geratu ez zeitezan, (ba sapatu atako eguna andia zan), Pilatus'i eskatu eutsen euren bernak apu'itu ta kentzeko korpuak (kurutzeetatik). Eto'ri ziran, ba gudariak, eta lenengoaren eta beragaz kurutzeratu zan bestearen bernak ausi ebezan. Jesus'egana elduta, ilda ikusi ebenean, ez eutsen bernarik ausi; baña gudarietatik batek lantzeaz alboa edegi eutsan, eta bertatik Odola ta ura urten ziran».

¡Gudari biotz-gogoña! ¿Iñai be ez al-deutsak parkatzen? Erukitu adi, beintzat, alboan daukan Ama erubako, atsekabetsu oregaz. Baña ire biotza eskuan daukan burdiñea baño gogoñagoa ba-dok, ez ilen, ez bizien erukirik ezpa-daukak, jaurtik lantza ori ta igaro egizak batera Ama Semeon Biotzak. Jaurtiten deutso, ba, ta edegiten deutso, esku zabala sartzeko besteko zuloa, Santo Tomas'en gertapenak adierazoten dabenez; eta askok diñoana, lantzearen zorotzuneak beste aldetik urteteragiño. ¡Ez aritu! Guztion pekatuen indaña eroyan gudariak bere besoan; guztiok jaurti deusagu Jesus'i lantzakada ori. Dañdañ egingo eban kurutzeak bere oñean; ez eban gitxiago egingo Andra Maria'ren Biotz samuñak.

¡Ez dagidan ain arin itxi gertapen au, eskututsu (misterioso) da-ta. Jaungoikoak, lo egoan Adan'en albotik atara eban bere emazte, Eba: Ilda egoan Jesus'en albotik sortu zan Jesus'en Emazte, Eleizea be; ori esan nai dabe Odol eta uren urteteak, ba urak Batioa ikuñten dau, ta Odolak Altarako Sakramentu Santua, Sakramentu nagosien biak. Noe'k be zuloa ipiñi eban Kutxa edo Ar-

kearen alboan, uyolean ito barik geratu beař ziran abereak gordeteko: munduko loikerizko uyol atsitutik bere burua gorde nai dabena, sartu dedila ate onetatik bařura. Ořegaitik diño, San Agustin'en eretxiz, Ebanjelariak, *edegi* egin eutsala lantzeak albo, ez uřatu; adierazoteko, bertatik daukagula Jesus'en Biotzaganako sarlekua. Sartu nedin zulo gozatsu onetatik Jesus'en Biotzaren bařura. Ona da, Jauna, esango dot San Pedro'k lez, emen egotea. Berton ipiñi dagidan neure bizilekua: jan, lo, beař, eskari ta beste egikizun guztiak berton eukiko ditudaz; antxe, Biotzera berba egingo deutsat, eta naidodana jadetsiko dot. ¡Jesus'en sayatzeko zauri maitegařia! zelakoa ete-da zugandik bařura sartzen diranen atsegiña! Esaiguzue mustau (probau) dozuenok. Jesus'en zauritik bere bařura sartzen ez dakien Adan'en semenen itsutasuna! ¿Atsedena - tokia eukita, nekeen-nekez etenda zagoze? Ziñistu egizue, zulo estu onetatik Jesus'en bařura sartzen ba-zaree, ez arimak bakařik, gorputzak berak be atsedena eta gozotasun andia aurkituko dau.

Jesus'en sayatsa edegi zenduan lantza

zoriontsua, zu lez izan ba-nitz; ez nintzan, ez, andik urtengo; bai esan betiraun guztian: «auxe izango da nire atsedeen-tokia»; autu dot, eta ementxe biziko naz; mundu, deabru ez aragiaren esetsiak; ez daukazue emen sarlekurik; auxe da Jerusalem, esan nai dau, bake-tokia. Antxiña Eleiz-ondoko leku izentauan zartzen ziranak, arerio guztietatik gordeta egozan. ¡Jesus'en Biotzeko zauria bai dala arerio guztiai iri egiteko toki ziuña! Jaungoikoaren irudira egiñiko arima ori, ¿ze-lan zagoz zeugan? Zeure Senar gozo-gozoa, zeure maitetasunez zaurituta, laztantzen asi yatzu; ¿ta zu beragana joaten nagitu? Maite-tasun lařegiz edegi deutzu bulaña, bere Biotza zuri emoteko. ¡Jesus'en sayatzeko zauria! Zeu zara maitetasunaren berotasunaz arizko geure biotzok bigundu ta urtuta izten deus-kuzuzana; berotu, garitu, urtu egizu nire biotz izostua, ikusi dagidan ze gozoa zarean maite zaituenentzat. Lotu nagizu zeure Seme maitteen abia ofetan, zerura egaz egiteko baño urten ez dagidan.

Jesus kurutzetik eratzi, ta obitzen (enteraten) dabe. Euntariak (Zenturion'ak) Jesus deadar andiaz ilten ikusirik, Jaungoi-

kotzat autortuta; beragaz egozan beste Jesus'en jagolak, luí-ikara ta beste gertapenakaz (1) ikaratuta, ikusten egoan gizaldrea bulaí-joten jatzita, uferatu ziran kurutzera Andra Maria ta Beragaz ebiltzan beste emakume Santuak eta San Juan. Begira egoan Andra-Maria bere Seme kurutzean josiari, begirik beragandik aldendu eziñik. ¿Zer egingo dau? ¿Zaindu, Sesa'k lez, bere Semearen gorputza, egazti ta patariak jan ez egien? ¿Itxaron bere Semearen aragiak usteldu arte, artu azufak eta mendian bertan, besteak lez, banatzeko? Ori baño etofkizun obea daukala, baki.

Ara nun datoñen mendi-bañenean gizon bat; gauza zuri bat dakaí eskuetan: Jose Arimate'ra da. Jesus ilzan toki-ondoan dauko baratza (ortua), ta bertan beretzat arian edegiriko obi (sepultura) bañi bat; eta Jaungoikoak ipiñi deutso buruan, antxe obitu

(1) Beste gertapenak ziran ilunaldia (eclipse), atxak arakalatu, obiak edegi, ilak berbiztu ta askori agertzea, ta Jerusalem'go Eleizan *Santu-Santua* ta *Santuaren* bitartean egoan estalkia goitik-bera erdibitzea, geratzen zala agertuta *Santu-Santua* (abade-nagosa ta bera be urtean bein sartzen zan toki itzala), adierazoteko amaitu zala lege Zara, ta ezegoala zer estaldu.

bea' dabela Jesus. Baya Pilatus'i eskatu, artu izara ta obitzeko bea' ziran beste gauza guztiak, eta erukizko egikizun ede' ori betetera dato'. Bere ostean dato' Nikodemus be, gizon nagosi ta Jesus'en ikaslea, baña ezkutukoa. Lotso'ra da, alan da guzti be Jesus'en eriotzeak inda'rtu dau, ta mi'ra ta aloez egi'niko miritza (unguentua) daka', Jesus'en Gorputza igo'rzteko.

Eltzen dira Kalbario-ganera. Eta Andra-Maria atsekabetsuari euren damua agertuta, Jesus'en Gorputza erasteko baya eskatzen deutse. U'feratzen dabe kurutzera ma'adi (eskilera) bat; Jose'k, igonda, itzal eta maite-tasunez eskuak da'rdai, oratzen deutso burestun (koroyari); ta odolaz iratzita eukazan uleak kendu, batera ta bestera bigun-bigun eraginda atarau, ta mun egiten be azartu barik, emoten deutso Nikodemus'i, Nikodemus'ek San Juan'i, ta San Juan'ek Andra-Maria'ri. Artzen dau belaunikoturik, mun egiten deutso, ta atsekabez beteriko begiak zeruruntz dabezala, estutzen dau bere biotzean. Ateraten ditu Jose'k esku ta o'netako untzeak be; ta guztiak doaz banan-banan Andra-Maria'ren eskuetara. Ez da i'noiz ikusi izan

Andra-Maria'k Odol ede'raz bustiriko Jesus'en gomutagei onek bere Biotzean estutzeran euki eban lako agurte (adoraziño) itzaltsu ta atsekabetsurik.

Azkenez, Andra-Maria, aingeruak eskutuan indartuta, geratzen da belauniko bere Seme maitearen Gorputza altzoan artzeko. Nikodemus'ek, Jose'n laguntasunaz, eskatzen dau buru-aldia ta ipinten dau San Juan'ek betik artzeko eran; kentzen deutsez oñetako untzeak be; artzen dau San Juan'ek itzalik andienaz, eta emoten deutso Amari altzora. ¿Zertzuk izango ete-ziran orduan Andra-Maria'ren biozketak? ¿Ain poz andiaz Belen'en argitaratu neban Semea dot au? ¿Nun dira, ba, orduan agurtzera eto'ri ziran aingeruak? ¿Zelan geratu zara ain ilun, mundu osoaren poza zarean ori? ¿Nire eskuak zure buruan aurkitzen daben burestun (koro) au zer dozu? ¿Eta sayatzeko zulo andi au? ¿Zauri ori egiñaz erantzun deutse gizonak euki deutsezun maitetasunari? Eguzkia bera zeuen edertasunaz iluntzen zenduen begiok, ¿zelan zagoze ain itzal? Ilak berbiztuten zenduezan eskuok ¿ain jausiak zelan zagoze? Ara o'í noraño eldu dan Jaungoikoa-

ren erukia, deabruaren amurua ta gizonen gaiztakeri ta eskeñ-bagetasuna.—¡Ai, Jerusalem, neure erri maite, Jerusalem! ¿zer egin dozu? ¿Zer izango da zugaz?—Ene Seme laz-tana, ¿ez deutzazu berbarik egiten? Ainbeste atsekabetsu poztu dabezan min ori ¿zelan daukazu isilik, biotz-min ain andian dagon zeure Ama poztu barik? Agur, Seme biotze-kuori, zure berba gozorik ez dot geyago entzungo, ez deutzut kenduko sermogintzatik ekañten zenduan izerdirik, ez deutzut ipiñiko mairik, ez dot geyago eukiko Zugaz arako berbaldi atsegintsurik. ¿Nok edo zek poztu nire Biotza emendik aurera? ¡Atsegiña! ¡Agur betiko! Ez zara nire biotzean geyago sartuko.

Onako gogapen eta biozketak buru-biotzetan erabiltzala, garbitzen dau Nikodemus'ek ekañi eban miritza (unguentuaz) Jesus'en gorputza, bañiztaurik zauri bakotxean, edegi eutsenean artu eban miña. Buruko ulea leuntzen deutso; beso ta iztañetan, Judea'ñak oi-ebena, ipinten deutzaz loturak (bendak) eta izten deutzaz begiak eta agoa. Batu gura eutsazan besoak be; baña jegin! ¡Ai! Jaungoikoak nai eban bere Semea, Amaren al-

tzuan, kurutzean egon zan lez, ontxe zeruan dagon lez, egotea, besoak-zabalik, pekatarien alde eskatzeko, pekatariak besarkatzeko. Batzen dau izareaz Gorputz Santua, ta burua izertari (sudarioaz) estaltzen deutso.

Bien bitartean Jose, Nikodemus eta San Juan'ek gertu eben obite (enteru) Santua. Zer gertu asko be ez egoan: abadea San Juan zan, Jose'k eta Nikodemus'ek eroango eben gorputz Santua; laguntzaleak, emakume Santuak eta Andra Maria. Auxe zan bariku Santuko lenengo eleizbirea (prozesiñoa). Ez egoan an eresi (musikarik); aingeruen ereserkiak (himnos) motelak izango ziran.

Eltzen dira ilobira. Illobia atxean egoan edegita. Saferatik, armaña batzuk jatzita, zuloa, korpoaren burua etzateko ariaz. Erasten dira, ba, ta ipinten dabe bertan gorputz Santua. Andra-Mariak jatzita, atonduten (konponduten) deutso osterabe bigun-bigun gorputza; ta Seme maitearen arpegia azkenez ikusteko, kentzen deutso izertaria. Estaltzen dau, ta igoten ditu armañak. Saferako atetik geratzen da belauniko ilobiruntz begira, ta agurtzen (adoraten) dau;

belaunikotzen dira besteak be, ta agurtzen dabe; biraten dau Jose'k sañerako aña, ta isilik eta ilun asten dira guztiak atzeruntz. Irargiaren argitasunaz ikusten dabe kurutztea, belaunikotzen da Andra-Maria, ta agurtzen dau; lagun guztiak be beste ainbeste egiten ebela. Eta asten dira kurutzetakoak egiten, baña atzeruntz: emen, diño, il zan; emen kurutzean josi eben, emen biloztu eben, eta alan eldu ziran Jerusalem'era. Eskeñak egin gizon erukio' arei, ta sartzen da, bere gelan, atsekabe ta samintasunez beteriko biotza Jaungoikoaren aurrean azazkatzen (desahogar).

Erabiliko eban bere gogoan, egun ilun atan ikusi ta igaro eban guztia. Joango zan, gogoz, Pretoriora, ta aurkituko eban bere Seme maitea zatituta, odolustuta; gero arantzazko burestun edo koroya bere buruan, manta' bat soñean, eta kañaberea eskuan daukala, Pilatus'ek erñari agertzen. Lagunduko eutsan gero Kalbario'an gora, ikusiko eban jausita, bere arpegi edeña txistuz, autsez eta odolez beteta, gizon - antzik be barik. Entzungo ebazan kurutzean josteko malukadak; ia-ilean egoala, berba

motelaz azken agurá egin, eta Juan semetzat emoten. Ikusiko eban kurutzean ilda; gogoratu tuko zan zelan bere altzoan euki eban; eta ondio bertan baleuko lez, begiratu, ta aurkitzen dau ¡utsik!

¡A, bakaítasuna! «Negaítez dago gabaz, ziñoan beragaitik Jeremias Igarleak, eta bere negaít - anpuloak bere matraletik bera. Ez dago poztuko dabenik bere maite guztien artean». ¡Onak dagoz Apostoluak poztuteko; igesi dabiltz! Judas, baítiz, bere burua urkatuta, inpernuan dago: ¡atsekabe baíta! Aingeruak-edo elduko yakazan, poztutera; baíta berak egingo eutsen: «Ez alegiñik egin, maiteok, ni poztuteko». Eta esango eutsen Nohemi'k baño obeto: «Ez niri deitu Nohemi», au da, edeíta, Jaungoikoak kendu deust edeítasuna - ta; deitu Mara, nai dau esan, gaítatza, gaítaztasunez bete dabelako nire arimea guztialdabenak.

¡Benetan zara, Andra - Maria, Mara, gaítatza ta itxasoa; gaítaztasunezko itxasoa eginda dagolako zure Biotza! Espata zoítz oítek, ¿zein gizon gogoítek josi deutzuz, Ama, ain Biotz samuítean? Zeuk, ene

seme maite o'ek. ¡Au damugaña! Zazpi espataz iruditzen zaitue; zazpireun milagaz ipiñi bea' zindukeez: pekatu bakotxa espata bat bada, neuk sartu deutzudazanak eurak be, ez dira gitxi. ¿Eta nik osterabe pekatu egin? ¿Lengoakaz naikotu barik, espata bañiak sartu? ¡Ez, ez geyago, Andrea, olakorik! Lengoakaz be, bildu' naz, neure ganera eto'riko ete - yatan, Jaungoikoak norberen ama samintzen dabinari ezañita daukan biraoa.

Baña zu lako Ama eukita ¿nor bildu' tu? ¿Nok itxaron ez? Seme bi zeunkazan, Jesus eta ni. Batak edo besteak il bea' genduan; eta ni betiko eriotzan ez jaurtitea' en, zeure Seme baka' ain maitea eriotzara bialdu dozu. ¿Eta nik zu maitetu ez? Maitetzen zaitut, eta geroago ta maiteago izan nai zaitut. ¿Noiz eroango nozu zerura, zeure arpegi ede'ra ikustera, ez nega'ez oin lez, poz eta atsegiñez beteta baño, neure biotzeko inda' guztiakaz zeu maitetzeko, ta egin deustazuzan on guztiakaitik eske'ak egiteko?



Laugarén Astea

San Iñazio'k, Jesus'en Nekaldi (Pasiñoa) irugañen astean geure aúrean ipiñita, bizitza onean irauteko euki bea' doguzan atseka-beak igaroteko, sendatu nai izan gaitu. Lau-ga'enean be o'etantxe inda'itu nai gaitu, baña Jesus'ek bere ja'aitza'leai emoten deutezan atsegiñak agertuta: orixe da, ba go-ga'ite onetatik atarau bea' dana.

JAUNARI AURKEZTUTEA ta GERT-OTOITZA,
betikoak.

Lenengo aúretikoa jazoa da: Eta emen izango da, zelan Jesus kurutzean il da gero, gorputza Jaungoikotasunaz baturik kuru-

tzean itxita, arimea, bera be Jaungoikotasunaz batuta, jatzi zan inpernura (linbora); ta arima zuzenak andik atarau; obira joan eta berbiztuta, zelan agertu yakan gorputz eta arima bere Ama Onetsiari (bedeinkatuari).

Bigarrena: toki iruditzea. Emen izango da begiratzea obi Santuaren izakerea; baita Andra Maria'ren etxea be, ikusirik alde bakotxa berez; eta alan bere gela, otoitz-gela edo oratorioa ta enparauak.

Irugarrena: Eskatu nai dodana. Eta emen izango da laguntasuna eskatzea, Jesu-Kristo gure Jaunaren argitasun eta pozagaitik poz eta gozotasun andi bat artzeko.

Lenengo, bigarren eta irugarren gogartegyak, Jesus'en Nekaldiko lenengo gogartean euki genduzan iru lenengoak izango dira. (Au da, begiratu lagunak, entzun zer diñoen, ikusi zer egiten daben).

Laugarrena: Zelan, Jesus'en Nekaldian ezkutauta lez egon zan Jaungoikotasuna, ain miraritsu agertzen dan bere berbiztutean, berbiztute onen ekari (frutu) egizko ta santuaren bidez.

Boskarrena: Begiratu Jesus'ek dakarren

poztuteko egitekoa, adizkideak bata-besteak poztuten daben lez.

San Iñazio'k oartuten dau aste onetako:

1.º Goizean jagita batera, ekañi gogora euki bear dan gogarte-geya, pozturik Jesus'ek daukan poz eta gozotasun ain andi-agaitik. 2'g. Gogoratu (egun-bitartean) arimako atsegin, poz eta gozotasuna emongo deuskuen gauzak, barbarako, zerua. 3'g. Artu gogozko egon-aldiak; barbarako, udan otza, ta neguan eguzkia edo beroa, geure Egile ta Erosleagan gozatzeko bestean.

Onetara emoten dau San Iñazio'k, laugarren Asteko gogarteak auferantzean egiteko erea.

LENENGO ATALA

Jesus'en arimea linbora jasten da.

Jesus Onak gure Eroste Santuko bere egikizuna bete eban ezkerro, beste izakera bat artu ebala esan lei: len baño asko be bigunago ta maitetsuago agertzen da; ta, San Iñazio'k egoki esan deuskunez, adizkide bata besteagaz lez. Berbiztu baño lenago, gizar-

tean ezin agertu eikean; baña bien bitartean be geu poztu barik ezin egon, eta gogoratzzen da zelan daukazan ainbeste ta ainbeste bere adizkide maite linboko ilunpe itzaltsuan, bera ikusteko egañirik andienaz, eta añen-bai añen, ainbat lasteñen iluntegi atatik aterateko eskatzen. An eukazan Adan, Noe, Abraham, Isaak, Jakob, Dabid, Daniel eta beste zenbat, bere lagunik maiteenak; an eukazan oraintsu joanda, Simeon eta Ana Igañlak, an bere lengusu Juan Bateatzale donea, an batez be bere Aitatzako Jose doatsua. Arima zuzen arek euren Erosle Mesias ikusteko baño beste guraririk ez euken, onetantxe eukezan ipiñita euren indañ guztiak. Eta anteparako ura, eusten daukan ateari bultzaka dagon antzera, gurariak, bañuan daukanari, urten-nairik indañ egiten ba-deutso; ¿nok esan lau mila urte ta geyagoan Jesus ikusteko bañuan eukezan gurari ain biziak, zelako gogoa biztuko eutsen arima zuzen arei? Euren Eroslea noiz etoñiko ete-zan, auxezan arima aren autu ta jardukia (objeto de cuestión), auxe euren eresi (kanto) ta ereserkia (himno). Eta eguzkia, goizean sortaldean urtenda, geroago ta argi geyago zabal-

duaz, eguerdiraño igoten dan lez, baita euren itxaropen au be, mundutik etozanen bañiakaz geroago ta argiago egiten zan.

Baña ¿nok esan noraño geituko zan euren poz eta atsegiña Simon eta Ana Igañlak, Juan Bateatzale doneak eta batez be Jose deunak emon eutsezan bañiakaz?

Ontxe etoñiko, ontxe-etoriko egozala, ara nun agertzen yaken Jesus'en Arima edeña, ilargia baño neñi barik argiago, ilunbe atako zokondo guztiak argiz beterik izten dabezala. Arima zuzen aren poza, aren gorak, aren abesti (kantuak); a zelako ¡alleluya! edeña, ainbeste eta ainbeste miloik gogorik bizienaz abesturikoa.

Luze egingo yatzu zuri be, o neure arima maitea, munduko ilunpe onetan ainbeste atsekabe, estura ta gatx-artean bizi izatea. Baña ¡itxaron! Jaungoikoak beteten ez daben epe edo plazorik ez dago; laster joango zara argi ta atsegin-tokira, ta Santu guzti aren zoria zeurea izango da.

BIGAREN ATALA

Jesus'en Berbiztutea.

Abesti (kantu) eder-arte, Jesus'en Arimeari lagunduaz, eldu ziran Kalbario'ko obi donera. ¿Norañokoa izango ete-zan arima onen ixu (espanto) ta aritzea (maravila), Jaungoiko Andiaren Gorputza alagiña uratuta, zatituta, itxurgatuta ikusitakoan? ¿Zer esango eban Adan'ek bere pekatuaren egite ta jaraya (consecuencia) ikusirik? ¿Zelako abestiak eta esker egiteak bariztauko ebezan euren Erosle maitearen Gorputz zaurituaren aur-ean? Aingeruak Pretorio'ra joanda, itzalik andienaz dakaitez Jesus'en aragi zatitxoak eta Odolik geyena, ta ezarten dabe bakotxa bere tokian. Sartzen da gero bere Gorputzean Jesus'en Arimea, ta bat-batera jagiten da Gorputz donea; baña ¿zelako argiaz, zelako edertasunaz? Zorionekorik txikienaren gorputza eguzkia baño argiago bada, izanik ontasuna argitasun onen neuria, ¿zelakoa izango ete zan Jesus'en Gorputz deunak izurten eban argi ta edertasuna, bere deuntasuna bada beste deun ta aingeru

guztiena baño neuñi barik andiagoa? ¡Ai zelan argi egiten dabeen bere esku ta oñetako zauriak! ¿Eta Biotzekoak? Arantzazko burestun edo koroyaren orde, bariz, ¡ze burestun edeña! ¿Zer dauko bere ondoan zer ikusi lufeko agintari guztienak?

¡Ara oñ zetan aldatu diran Jesus'en irain, atsekabe ta miñak! Urte batzuetako atsekabeak ariman, ordu batzuetakoak gorputzean; baña gorputz eta ariman ezin esanako atsegin eta gozotasunak betiraun guztian.

Oñ daukazu, ba, zeuk be zeure irudia. Jesus berbiztu zalako, ta bera berbiztu zan antzera, zeu be berbiztuko zara. Orain estu zabiltz, miñak ¡ai! erazoten deutzu. ¡Itxaron! Igaroko dira naye, eta estutasun guzti oñek, eta gero atsegin eta gozotasuna baño ez yatzu geratuko, ta zenbat-eta geyago igaro, andiagoa. Ez kezkatu (inquieta) luf onetako atsekabeakaitik; ¿nekazaria, ereitaldian kezkatzen da beñ asko daukalako? ¡Ez! ¡Bai poztu! Zenbat - eta geyago erein, geyago artuko dabela, bakialako. Ba bizitza onetako neke, min eta ezbeñ guztiak zeruko aziak baño ez dira. Txikiak eta igarokoñak (tran-

sitorio) dira guztiak; euren ekaña (frutua) andia ta betikoa.

¡Oeko zokondoan miñez ezin egonda zagozanori, poztu zaite! ¡Baita zaurituta zagozanori, zu be! ¡Ba-zenki zelako atsegin eta argitasuna eukiko dozun betiraun guztian orain ainbeste min daukazun toki oretan! Atso-aguratxuok, azal guztia tximurtuta, lepoa okeertuta, ezin ibilita zagozenok, zuentzat be bauko pozkaña Jesus berbiztuak. Guzurti asko izan dira gizartean, zañak gazte biurtuko dabezala-ta, iruzur egin dabentak: Jesus'ek dauko zuek gaztetuteko ezaupide, gurari ta indaña: il zaiteze bere laguntasunean, eta berak berbiztuko ditu zuen gorputzak bere adiñean (edadean), irurogetamairu urtekoak, jakitunak diñoen lez. ¡Jesus maitegaña! Auñetik soaz zeure Gorputz edeñ oñi zirt-zañt eragiñaz, zeure atzean gu erakarteko. Santa Teresa, zure eskua ikusi ebalako, zeu ikusi-nairik, maitetasunez zoratuta lez geratu ba-zan, ¿zer izango da zu guztiori, arpegiz-arpegi ikustea, zeuri berba egitea, zeure zauri oñek laztantzea? Nai dabezanarentzat luñeko atsegin, palagu ta edertasunak; Zeu baño besterik ez dot nai niretzat.

Betoz, olan beaí bada, bizitzako atsekabe ta samintasunak, Zeugana uíeago igoteko maíadiak (eskílerak) baño ez dodaz izango-ta. Zeure ondoren, zeure usain edeíaz, eroan nagizu, zeugaz beti egoteko zeruan sartu-arte.


IRUGAÑEN ATALA

Andra Maria'ri agertzea.

Andra Maria egoan bere gelan, Biotza atsekabez beteta, ikusi genduan lez. ¡Ze lo gitxi egingo eban gau aretan! ¡Ze luze egingo yakazan orduak! Itxaroten egoan noiz-etoíriko bere Semea berbiztuta, ta eskatzen aíen-bai-aíen etoíteko, bera poztutera. Eta ara igande (domeka)-goizean, eguna urten zaneko, al-ebanik ariñen, zelan agertzen yakan bere Semea, ikusi dogun lez, argitasun eta edeítasunez beterik. ¡A izango zan Ama-Semeen poza, a begirakune gozoa! ¡Kalbario - bideko ikustaldiaren ze desbardiña! A zelan ordaindu daben Jesus'ek bere Ama, igaro dabezan atsekabeakaitik. ¿Nok esan zelako atsegiñezko ituíak sartuko yakazan

Biotzera Jesus'en bost zauriai mun egi-torduan?

Neu be pöztuten naz, Ama maitea, zeure zoriontasun ofegaitik, eta Eleiz - Amagaz esaten deutzut: «Zeruko Eregiña, poztu zaitte, zeuk eroan zenduana, berak esan eban lez, berbiztu da-ta». Ama - Semeon atsegiñetan zerbait euki dagidala neuk be, zeuen antzera luñeko atsekabeak igaro ezkerro.



Amazortzigañen Gogartea

MAITETASUNA JADESTEKOA

Lenengo, gauza bi oartutea ondo da: Lenengoa, maitetasuna berbetan baño egipenetan geyago ipiñi beař dala. Olan diño esakuneak; ez diño San Iñazio'k ez dala ipiñi beař maitetasuna berbetan be, ta Jaungoikoaren maitetasunari ba-gayagokoz, berbaz be maitetu beař dogu. Diñoana da, berbetan baño egipenetan obeto agertzen dala maitetasuna, berbea merke saltzen dalako. Beste ainbeste esan lei biozketa edo sentimentuakaitik be, arimearen berbak diralako.

Bigařena, batak-besteari emotean, dago maitetasuna, au da, daukana, edo daukanetik, edo aldabenetik maitariak maite-

ari, ta maiteak maitariari. Esaterako: jakituriarik ba-dauko, emon ez daukanari; gorapena edo ondrea ba-da, gorapena; aberastasuna ba-da, aberastasuna; ta alan beste onek besteari.

GERT-OTOITZA, betikoa.

Lenengo aurretikoa toki iruditzea da; ta emen izango da, gogoratzea zelan nagon Jaungoiko gure Jaunaren aurrean, Aingeru ta Santuak neure aldezk eskatzen dakustazala.

Bigarrena, eskatu nai dodana; emen izango da eskatzea artu ditudazan aintbeste ondasunen baruko ezagutzea: osoro autortuta, Jaungoiko andia gauza guztietan maitetu ta otseindu dagidan.

Lenengo atala da gogoratzea artu ditudazan irazate (creación), Eroste (redención) ta neuri bakarrik egiñiko doyak, begiratzen dodala biotz-beroz, zenbat egin daben nigaitik gure Jaungoikoak, eta daukanetik zenbat emon deustan; eta, ganera, berbera emon nai deust, al-dabenez, erabagita daukon bestean. Jayotzan emon yat lagun-

tzat; Sakramentuan, janaritzat; eriotzan, sal-neuri (preziotzat); zeruan, saritzat.

Lenengo atal au oñartean egin diran gogarte geyenen laburpena da. Irazateko doya gogoratu dogu, gizona Jaungoikoak egiña dala, lenengo gogartean gogartetu dogunean. An ikusi dot, Jaungoikoak gorputz eta arimaduna egin nabela, ez aña, ez zugatza edo arbolea, ez aberea. Gorputz-arima orek, bañiz, emon deustaz osorik: ez nau egin, beste asko lez, itsu, gof, mutu, ez efen edo kojua. Onako ermain edo akatzdunik ikusieran, ba, eskeñak egin dagiodazan ainbarik sortu naben Jaungoikoari.

Gogoratu dot bigaeren gogartean zeru, lur eta itxasoetako gauza guztiak be Jaungoikoak neuretzat egin dituzala izenbat eta ze edeñak!

Erosteke grazia ikusteko, bañiz, gogoratu ze ezaña dan pekatua, ta ze itzala beroni dañayon inpernua. Ba antxe egon beañ neban betiko efenen. ¿Nok atara nau? ¡Jaungoikoak! ¿Nora eroateko? ¡Zerura! Igaro dan gogartean, Jesus Berbiztuaren goratasuna ikusita, bere antzera zeruan neuk euki beañ dodana be, zelan-bait mustau edo (probau) neban.

Baña inpernuko atsekabeetatik atara ta zeruko atsegin ezin-esan-alakoetara goratzeko, ¿zer egin dau Jesus'ek? Eskua emonaz bakañik jaso ba-ninduan be, betiraun osoan eskeñak egiten egon beaño neukean, egon beaño neukean lez eskeñik andienak egiten, soka bategaz lezatic atera izango ninduanari. ¿Baña ori bakañik egin al-dau? Begiratu bere gizon-egiteari, jayotzeari, ta batez be gogartetu genduan bere Nekaldi atsekabetsuari. Ara oñ zenbat esan nai daben berba onek: *¡Erostea!* Berba gozo au entzueran, gure Erosle maitearen aúean eskeñ-on eta maitetasunez belauniko jausten ez danak, ez daki berba edeñ onek zer esan nai daben.

Gogoratu, ganera, ene arima maitea, gozotasun eta eskeñ-onez beterik, zenbat on egin deutzuzan Jaungoikoak zeuri bakañik. Zu luñera etoñi ziñan egunean, eun eta beñogetamañ mila inguru etoñiko ziran; eun mila, au da, irutik bi Afrika, Amerika ta Jesus'en ezaupidetik urunduta dagozan beste aldeetan: zu kristiñau-artera ekañi zaitu. Kristiñau artean bertan be, ia erdiak ziñistausle edo erejeak dira, zeruko bidetik aldenduta dagozanak: zu katoliko egin zaitu. Katolikoetan

guztiz dira asko, katolikoek izena baño ez daukenak: zu bañiz ¿nun jayo zara? Euskal-Eria'n, erlijiozaz luñbirako zokondorik onenetarikoan; guraso onak eta Jaungoikozaleak emon deutzuz; pekatu aztunean zengozanean, beste askori lez, asafatuta, erioztea bialdu bearean, gorde egin zaitu gaur arte.

Asko dira Jaungoikoak egiñiko mezedek eta zuk ezagutzen dozuzanak: izan lei ez gitxiago izatea ezagutzen ez dozuzanak. Egin nai izan, eta zeuk galerazo deutzazuko egin ez deutzuzanak bañiz, ¿nok zenbatuko deutzuz? Gure Aita San Iñazio'ren esakunea da: «Gitxi dirala, ta onenean bat bez, ondo ulertzen (entenditzen) dabenik, zenbat emongo leuskion Jaungoikoak, norberak galerazoko ezpa-leuskio. Eta San Prantzisko'rik eta Santo Domingo'rik gauñ dan egunean ezpa-dago, ez dala Jaungoikoak oretarako laguntzen ez dabelako; norbera, eurak lez, gertaten (preparaten) ez dalako baño; esakune garatza itxiontzat, baña Jaungoikoaren guganako ugaritasuna ondo adierazoten dabena. Jaungoikoak emon deutzuzan mezedek andi eta uguri onek go-

mutauta, goratu egizu, ba, Jaungoikoa; eskeñak egiozuz; baña batez be, asieran San Iñazio'k oartu (advertir) dabenez, emonaz agertu ta neuítzen ba-da maitetasuna, neuítu egizu, al - ba - dozu, Jaungoikoak zuri izan deutzuna, ainbeste mezedede egin deutzuzan ezkerro.

Eta onen bestegaz, sartu neure baruan, eta gogoratu dagidan zer dan egoki ta bidetzkoa neure aldetik nik Jaungoiko andiari eskiñi ta emotea (ez eskiñi ta emon ez, askok egiten dabena) au da, neure gauza guztiak, eta eurakaz batera neure burua be. (Ba gauza guztiak, Jaungoikoa euki ezik, zure biotza naikotuten ezpa-dabe; ez da Jaungoikoak be ez dau nai nire gauzarik; nazan guztiau emoten ezpa-nayako. Maitetasuna da Jaungoikoak eskatzen deuskuna, ta maitetasun osoa, beste gauzetara zatitu bakoa; eta osterantzeko gauzak gure eskue-tatik artu nai ba-ditu, maitetasunaz gozatuta ikusten dabezalako artzen ditu; bestela doerik andienak eta goratuenak goíotagañi ditu), *emongo ba-neuskio lez, gogo beroz eskiñiaz:*

«Artu, Jauna, ta zeuretu egidazu nire la-

kemen (libertade) osoa, nire gomutamen, adimen eta guramen osoa, daukadan eta dodan guztia. Zeuk emon zeunstan; zeugana, Jauna, biurtzen dot; Zeurea da dana; agindu gogo osoz. Zeure maitetasun eta grazia emoidazuz, eta naikoa dot».

(300 eguneko parkamenak, egunean bein esanda. *Leon XIII'ak*).

Bigarrena: begiratu zelan dagon Jaungoikoa izaki (criatura) guztietan: bizi bakoetan izatea emoten (baita irautea ta egimena edo egiteko eskubidea be); zugatzetan edo arboletan bizia emoten; abereetan, sentzumena emoten; gizonetan, adimena (entendimiento) emoten; eta olan dago nigan izatea, bizia, sentzumena ta adimena emoten. Baita bere Eleizea (bizilekoa) lez be egin nau, bere anditasunaren antz eta irudira egiñik.

Maitetasunari yagoko ez bakarik, lenengo oarëan ikusi dogun lez, maitariak daukanetik maiteari emotea. Maiteak, ganera, alkañegaz egon-gurea euki oi-dabe. Eta olan dago Jaungoikoa nire bañuan, neugaz batuta, izatea, bizia, sentzumena ta adimena emoten, eta neure egite guztietan lagundu ta indartzen. Ganera, nigan berariz dago Jaun-

goikoa, irudian lez, bere antzera egiña nazalako. Baña batez be ¿zelako egoera goratua ta ezin-esan-alakoa dauko Jaungoikoak bere grazia ta adizkidetasunean dagonagan? Grazian ba-nago, egiz eta bene-benetan daukat neure bañuan Jaungoiko Irubata, Aitea, Semea ta Espiritu Santua; ta gozaro dago, neu maitatzen, neu santutu ta bere antzekotzen. Benetan da santua ta agurgaña grazian dagonaren ez bakañik arimea, baita gorputza be.

¡A, ene gorputza! sako zikin, ustelkoña zara, zeurez. Baña grazian ba-zagoz, gauza santua zara. ¿Eta nik zu loikeriaz, au da, luñeko gauzarik atsituenagaz, zikindu? ¡Ez!; damu dot au len egiña, ez dot jakin, Jauna, zer egin dodan. Itzal eta lotsaz begiratuko deusat bai neure gorputzari, bai besteenari.

¿Zegaitik, baña, Jaungoiko maitari ori, beti nire bañuan egonda, enaz ni geyagotan Zeugaz gomutauko? ¿Zegaitik, ni maitatzen beti nigan zagozan oregaz, enaz sañiago gozaro maitatzen ibiliko? ¡Nire itsu ta burubakoa! esango deutzut, San Agustin'ek lez: «nigandik urun bilatzen zindudazan, neure bañuan zeunkadazan ori». Emendik auñera geyago sartuko naz neure bañuan; ementxe

biziko naz Zeugaz; eta nigan Eleiza baten lez, zagozan ezkerro, berton egingo deutzut Eleizan egiten dana; Zeu agurtu, eskarien izentsu usain gozokoa eskiñi, ta neure griña txararak il eta zatituta eskiñi. Bakotxa bere baruan Jaunagaz ibiltea, au da arazo eztitsu ta ekaitsua (fructuoso). ¿Zegaitik ez gara oretara geyago zaletuko?

Irugarrena, gogoratu zelan dagon Jaungoikoa luñaren ganeko izaki (criatura) guztietan, neuretzat beaŕean (edo beaŕ egingo ba-leu lez); berbarako ortze edo zeruan, bizibakoetan, zugatz, ekaŕi (frutu), abere ta enparauetan, izatea, irautea, bizia, sentzumena, ta alan, emoten.

Ez da Jaungoikoa, artu emokaya ta beste baten bitartez bere maiteari bialtzen deutsana lez: berbera datoŕ geure barura ekaŕten, ikusi dogun lez. Baña ez da ori bakaŕik; emokai oŕek bere eskuz egiñekoak dira; ta olan dago Jaungoikoa bera, izentau doguzan eta beste gauza guztietan, bakotxari izatea, irautea, egitea ta beste edeŕtasun guztiak emoten, eta guztia neuretzat, neure maite-tasunaŕen. Lora bat ikusten dodanean, egin beaŕ dot, ba, ementxe dago Jaungoikoa lora

oni bere izate, edertasun, usain eta enparaua neutzat emoten. Eta olan garia, nai sagaña, nai jan, edan, eta jantzi beař dodazan beste gauza guztietan. ¡Au Jaungoikoagana biotza jaso, eskeřak egin, eta maitetzeko gogapen edeřa!

Olan ba-dabil, ba, Jaungoikoa gauza baktxean beařean neugaitik, neure maitetasunez; neuk be, ba, Jaungoikoagaitik eta bere maitetasunez egin dagidazan neure gauza guztiak, ez iñoren edeřagaitik, ez luřeko beste gauzakaitik.

Laugařena, begiratu zelan jatziten diran goitik on eta emokai guztiak; berbarako nire al-izate neuřtua, goiko andi ta neuři baktik, eta olan zuzentasun, ontasun, Jainko-zaletasun, eřukitasun eta enparauak, eguzkitik eřañoak, eta ituřitik urak jatziten diran lez.

San Iñazio'k onegaz nai dabena da: 1.º Zaindu gure naimena edo borondatea luřeko gauzen maitetasun okeřaz loitu ez daiten. Egiaz diño San Iñazio'k, luřeko gauzak dauken edertasun eta izate guztia, Jaungoikoagandik artu dabela; ba, jakitunak erakusten deuskuenez, Jaungoikoak bakařik

dauko berez, izatez, daukan guztia; ta beste izakiak Jaungoikoagandik, iturri ugaritik lez, artu dabe dauken apurtxoa. Oregaitik, benetan dana, Jaungoikoa da; ta beste izakiak bere ondoan, ezer ezpa-lira lez agertzen dira. Baina Jaungoikoak ez bakarrik emon deutse daukena; ganera, bere eskuz daukaz oñean eta bere eskua aldenduko ba-leu, sokea ebagiten yakon arkontzi edo lanparea baño indar andiagoz, ezereztasuneko ilunpe itzaltsuan jausiko litzakez. ¿Zer izango litzake eñua, eguzkia kendu ezker? ¿Zer ura iturria leortuta? Ba ez litzake geyago izango lurreko gauzarik eder eta gozoena be, Jaungoikoagaitik ezpa-litz.

¿Zegaitik, orduan, ipiñi neure biotza lurreko gauza azal-uts, gerizea baño ez diranetan? Eta batez be ¿zer da nire itsutasuna, onako gauzen edertasun guzuzkoagaitik, Jaungoikoa, edertasun uts-utsa, edertasun guztien betetasuna, beste edertasun guztien jatorria, albo batera itxi, ta ostikopetzen dodanean? ¡Ai zelan samindu bea dan olakoetan Jaungoikoaren Biotza!

¿Noiz - arte izango naz, Jauna, arako abere, aretxetik jausten diran ezkuak, are-

txari begiratu be egin barik, jaten dabezanen antzekoa? ¿Noiz-arte ibiliko naz lu'eko oxintxo'en (pozo) ur apu'í, loi-bila, Zeu ur garbi, ugarizko itu'ri ede'í ori itxita?

2^{en} Esan dabezan berbakaz nai deusku erakutsi San Inazio'k, izaki guztietan Jaungoikoa ikusi ta maitetzen, eurakandik Jaungoikoagana gure adimen eta biotza jaso-ta.

Seme batek Ameriketa'n dauko bere aita, ta beti yabilko eto'rteko esaten, zelakoa dan ikusi nai dabela-ta. Baña aitak «jezetz! erantzuten deutso; zuretzat ondio geyago irabazi bea'í dot; ez yato'rtzu ondo ni ain arin ikustea; o'regaitiño be nire ikus-gura ain andia daukazun ezkerro, ara o'í bidaltzen deutzut neure irudia; naikotu zaitez beragaz, neu, nazan lez, ikusi-arte».

Jaungoikoak be aurkitzen gaitu bere ikusguraz; baña ez yato'rtku ondo ain arin ikustea; geyago irabazi bea'í dogu. Eta bien-bitartean Beragaz aztu ez gaitez, Bera geroago ta maiteago izan dagigun, bidaltzen deuskuz bere antz apu'rtxo bat dauken gauzak, esango ba-leu lez: «¿Nai dozu yakin ze andia nazan? Begiratu ortze (zeru) ta itxasoetara; aizeak agertuko deutzu nire inda'ra; argi,

lora ta edurak nire garbitasuna, ta alan enparauak»,

Orduan, ikusten dodanean gizon on edo jakitun bat, egin bea' dot: «ze onago ta jakitunagoa izan bea' dan nire Aita Jaungoikoa; ikusten dodanean bere edertasunaz teinkakak lez, neure biotza bere ondoren eroaten deustan gauza bat, «igeldi! esan bea' deustat neure arimeari, igeldi! jaso zeure begiak zeruruntz, an daukazu edertasun o'fen iturburua». Gauza guztietan, ba, ikusi bea' dot Jaungoikoa, ta Jaungoikoagan gauza guztiak; diranak Beragan eta Bera diranetan maitetzeko.



Emeretzigarren Gogartea

ALTARAKO SAKRAMENTU SANTUARENA

JAUNARI AURKEZTUTEA ta GERT - OTOITZA
lengoak.

TOKI - IRUDITZEA:

Iruditu dagigun Jesus Ona azken-aparian, ikaslakin, sala andi, apaindu baten, iru lagun-dun jarlekuetan, eta erdian maya. Egin dagigun geu be bertan gagozala.

ESKAKIZUNA:

Egiguzu, Jauna, ezagutu dagigula, Sakramentu Santu au ipintaldian erakutsi eusku-

zun maitetasuna, ta ze txarto erantzuten deusagun gizonok maitetasun ain andiari.

LENENGO ATALA

Jesus'ek Sakramentuan erakutsi deuskun maitetasuna.

Jesus'ek ikaslai oñak garbitu-ta gero, aparitan egozala, artzen dau ogia, ta eskeñak egiten ditu, ta onetsi (bedeinkatu), zatitu ta emoten deutse ikaslai, esanaz: «Artu ta jan egizue; auxe da nire Gorputza, zuekaitik (eriotzara) emoten dana. Au neure gomutakitzat egizue». Bardin edontzi (kaliza) apalostean artuta, eskeñak egin, eta emon eutsen, esanaz: «Edan emendik guztiok; ba auxe da Testamentu Bañiko neure Odola, zuekaitik eta guztiakaitik pekatuen parkamenerako izuriko dana. Au egiten dozuen bakotxean, neure gomutakitzat egizue».

Batak besteari deutsan maitetasunaren ezaupide ta neuria, daukezan ondasunetatik emotea da, San Iñazio'k lengo gogartean irakatsi euskunez.

¿Zer da, ba, Jesus'ek Sakramentu onetan emon deuskuna? Obeto: ¿zer da emon barik itxi deuskuna? ¡Ezer be ez! Ondasun eta edertasun guztiak daukaz Jaungoikoak bere gordaluetan (tesoruetan), eta bakotxa neuñi guztien ganetik: ba guztiak, bat-txo be ukatu barik, emon euskuzan Jesus'ek Sakramentu andi onetan. Emen emoten yaku ez bere altasunaren egitada bat, bere altasun guztial-dabena baño; bardin ontasuna, jakituria, zuzentasuna, erukitasuna ta beste ondasun mueta guztiak. Emen emoten yaku Jesus'en arima edera bere adimen argitsu ta jakituriz orniduz, bere guramen (borondate) zindo, zuzen, Jaungoikoaren maitetasunez beteaz. Emen emoten yaku Jesus'en Gorputz eder guztia, bere begi, esku ta batez be Biotz garbi, samur eta Jaungoikoganakako ta guretzako maitetasunean ereten dagoanaz.

¡Ai gure itsutasuna, gure ziñesmenaren motela! Dagigun geure erian daukagula Jesus'en atzamar bat; ¿zelako poza ta arokeri santua ez geunke eukiko? ¿Zelako inartzeaz (enbidiaz) begiratuko leuskigue beste eri guztiak? ¡Zelan etoriko litzakezan lufaren azkenengo zokondotik, sartu itzalik andie-

naz, eta auzpaz agurtuko leukeen, seda ta ufez estalduriko atzamañ santu a!

Ba ez Jesus'en atzamañ bat, eta berori ila, Jesus'en Gorputz osoa, ta bizi-bizirik, bere gizatasun eta Jaungoikotasun guztiaz, daukagu geure eleizetan. ¡Au da gure zori-ona, au Jesus'en guganako maitetasuna! Egin lei, bai, Jaungoikoak beste mundu bat, au baño asko andiago ta ederagoa: baño ez da guztia dakiana izan a'en, asmau lei gauza oberik; ez guztiz ona izan a'en, nai izan lei gauza oberik; ez guzti-aldabena izan a'en, egin lei gauza oberik, Sakramentu Santu onetan emon euskuna baño, diño San Agustin'ek.

Ezin, orduan, geitu lei Jesus'ek Sakramentu onetan erakusten deuskun maitetasuna, geyago emonaz; baño bai emoteko ereaz.

Maitetasunari yagoko ez bakarik, ikusi dan lez; maite diranak daukezan ondasunetatik alkañi emotea; baita, ganera, alkañegaz egon, eta, al-dala, alkañ bat egitea be. Jesus, maitalari zintsoak, gugaz, gure maitetasun-a'en, mundua mundu dan artean egon nai izan eban ezkerro, egon zeinkean jauregi edeñ, apainduan, aingeruz ingurututa; edo,

luñean ibili zan lez, gizon antzean; eta naikoa izango zan Berak deuskun maitetasunez guztiak añituta geratzeko. Baña ez zan naikoa izan guganako maitetasuna erakusteko: gugaz batuago egin nai izan eban. Eta artu eban gizatasunagaz batzea egoki izan ba-litz, naikoa maitetasun eukan oñetarako be Jesus, Biotz samuñak. Baña ori egoki izan ez zalako, asmau eban beste era bat, al-eban bestean gugaz batzeko: ogi-antzera geratzea.

Ba-ekian oñetarako asko beeratu ta apaldu beañ zala, kurutzean bertan baño be ge-yago; ba kurutzean Jaungoikotasuna esku-tauta ba-egoan, gizatasuna agiri zan. Emen bañiz Jaungoikotasuna ta gizatasuna, guztia geratzen da estalduta ogi apuñ baten irudi-pean. Baña ¿zer deutso geuganako maitetasunez Biotza gañetan daukan Jesus maitalari sutsu oni, onegaz lortuten ba-dau Berak ainbeste gura dabena, gu, bere maiteokin ala-giña estutu ta bat eginda geratzea?

Eta ara oñ Jaungoiko andia, zeru-luñak Bere anditasunez beteten dabezana, ta beste mila zeru ta luñ ba-legoz be, guztiak batera beteko leukezana, osti txiki baten bañuan, baita bere zatirik txikienean be. Eñkaba edo

patriarka goratuak, Igarla argiz beteak, ¿nor nai izan zenduen ikusi? ¿Mesias? Zuek ikusi nai izan, eta ikusi ez zenduena; zuetariko batek urunetik apur bat ikusi, ta pozez beterik geratu zana, axe bera euki dot neure agoan, neure bularéan estutu dot, eta ogia berau jaten dabena bat egiten dan lez, batzakuntzarik estuenean neugaz bat eginda euki dot. «HOC ARDENTER AMANTIUM EST». “*Au garitsu maitetzen diranena da*” diño San Krisostomo’k.

Baña ez gizartean maitetzen diranena; ez dago gizonetan olako maitetasunik, olako batzakuntzarik be ez dagon lez. Luéko maitetasunik zintsoena, benetakoena, garbiena, amak semeari deusana da. Ofegatiño ¿nok ikusi dau amarik bere gorputzeko zatiak bere semerik janaritzen? Bai, bestera, euren gosea kentzeko, eurak sorturiko semetxoak ére ta jaten.

¡Ez olakorik Zuk, neure Aita maitari orek! Emon deuskuzu janari asko bai gorputzerako Zeure eskuz egiñikoak, bai arimarako egiak, atsegiñak eta beste era askotakoak. Baña ikusirik ez daukagula ofegaz naikoa, ez dala ofegaz asetuten deuskuzun

maitetasuna, batu dituzuz Zeure ondasun guztiak, ipiñi deuskuzuz, osalari jakituna lez, ondoen yatořkuzan eran, eta guztiak batera, kopau baten, emon deuskuzuz. Eta ondio asko ezpalitz lez, Zeu zerori zatoz ganera, zabaltzen zatxakuz bařuan, eta izten gaituzuz osatuta, onduta, santututa, esaterako Jaungoikotuta Zeure santutasun eta Jaungoikotasunaz beragaz.

Gauza ain andi ta gure adimenetik gora dagozanak azaltzeko, gure artean gertaten dana ekaři al-balei, esango litzake, Sakramentu onetan egiten dabela Jesus'ek ontxe urte gitxi Burgos'ko gaisotegi edo ospitalean ikusi zana. Gaiso batek zauri txarřak, eřeak egiñikoak, eukazan. Onakoak askotan ezin osatu dira, osasuntsu baten aragi-zatiak zauri-ganean ipiñi barik. Jakiñik au kaputxiño batek, gertu zan ořetarako: ogetalau aragi zati kendu eutsezan, eta iratzi gaisoari. Andik laster gaisoa osatu zan, eta kaputxiñoa ziñisbakoetara joan zan.

Onen antzeko bat egiten dau Jesus'ek be gugaz Sakramentu ongile onetan: gaiso gagoz, loituta, ustelduta, gagoz; ari-mako almen eta gorputzeko sentzun guz-

tietatik dariaku atsa ta ustel-usaña: gogapen (pentsamentu) loyak, gurari loyak, zirkin eta ekandu loyak. ¿Eta zer egiten dau gure Jaun maitegari onek? Gaiso mueta guztiak, ikutuaz beste barik, lufean ebilenean osatuten ebazan gorputzagaz beragaz, dato' gurgana, ikutzen deusku gure almen eta sentzurenetan, leortzen dau pekatuak eurretan itxi eban bustitasun eta esetasuna, osatuten ditu zauriak, eta ipinten gaitu garbituta, sendatuta, Jaungoikotuta.

Jaungoikotuta esan dot, eta auxe izan zan, batezbe, Jesus'en asmua ogi-antzera geratueran. Maitetasunari yagoko, ez bakarrik, esan dan lez, maitariak maiteari daukazan ondasunetatik emotea, ta alkar-egaz egon nai izatea: maiteak, ganera, alkar-antzeko izan nai dabe, ta, al-balei, biak bat egin. Baña pekatari zikiñok ¿ze-lan Jesus garbiaren antzeko izan? Emen agertzen da ondio geyago Jesus'ek Sakramentu onetan erakutsi euskun maitetasuna. Jakiña da jatekoak daukan indara artzen dabenaren izakerea aldatzeko; ta ikusi oida, janari garbi ta sendoak artzen dabezana, garbi ta sendo asten dala, beste zer-edo-

zergaitik ezpa-da. Eta izanik Jesus'en guraririk bizienera gu bere antzeko egitea, olan zeruko Aitak be seme-ordekotzat ezagutu, ta, bera lez, zeruko jaubegei izan gaitetzan ¿zer egin eban? Janaritu bere gizatasun eta Jaungoikotasun oso-osoaz; eta, suak egurari egiten deutzan lez, apurka-apurka gure izakerea kendu ta bere izakerea geurearen tokian sartu.

¿Zelan, barbarako, gordeten dira ain garbi gazterik asko? ¿Zek daukaz eñe-usañik be barik, Babiloni'ko iru mutil gazteak lez, ia guztiak eñeten dabezan loikerizko su galtzaleartean? ¡A, sañi ta ondo gerturik artzen dabe Jesus'en Gorputz garbia ta garbitzalea, ta ara oñ zelan dauken euren gogapenetan (pentsamentuetan) Jesus, gurarietan Jesus, berbetan Jesus, egikunetan Jesus, geratzen dirala Jesus'en antz-antzeko, gizon argala luñaren ganean geratu leikeanez. ¡Ez! Jesus'en antzeko, ta batez be garbiak izateko, ez dago Sakramentu au sañi artzea lakorik. Ondo daki au gure arerioak; oñetxegaitik aldentzen ditu asko Sakramentu garbitzale onetatik. Oñetxegaitik aldenduten dira garbiak izan nai ez dabena, gazteak batezbe. ¡Ai! Jesus'ek ain-

beste maitetasun eta alegiñez ipiñi gure biotzak ereten daukazan loikerizko sua itzali (amatateko) itufi garbi, gozatsua; ta guk ureratu be nai ez; eta, ondio txarago, egin geure baruan, ezin geinkezala garbiak izan, Jaungoikoari erua ezari gura bageunskio lez: gogoñak izan beaiko dau gure epayak (juizioak).

Ez da ondio agoñtu Jesus'ek Sakramentu Santu au emo-eran erakutsi euskun maitetasunezko oxiña (pozoa).

¿*Noiz* emon euskun? Judas bere amabi apostoluetatik batek, arerio ain gogoñai saltzeko ebiñenean; apostoluen burutzat aututa eukanak, ukatu bea ebanean; beste guztiak bere arerioen eskuetan itxi, ta igesari emon bea eutsenean; lege-gizon, Fariseo ta Judea bere eritañ maiteak, Bera zelan galdu asmaten ebiltzanean, nekaldi (Pasiño) ta eriotza ain lotsagaña igaro baño ordu batzuk lenago: PRIUS QUAM PATERETUR. Esango baleu lez: «*Gizon maiteok*; ¿Ni luñetik zelan jaurti asmaten zabilte? ¡Alpeñik! Neuk ipiñiko dot ontxe berton Sakramentu bat, mundua mundu dan artean zeuekin egoteko».

¿*Noiz arte* egongo zara, Jauna, eskeñ

txaírekuon-arteán? ¿Ainbeste urteán ez zara aspertu gure-arteán egoten, batez be guk Zu ain txaíto artuta? ¡Ez! Ez da Jesus'ek deuskun maitetasuna, mundu-zaleena bai-zen ariña, aize-orátza (beletea) lez batera ta bestera dabilena, ez-ikusi apur' bategaitik, gogoaz besterako utsegite txiki bategaitik, atzera egiten dabena. Ez da Jesus damutzen on egin deuskulako: or' egongo da beti gau ta egun; egunez, mundu, dea-bru ta aragiaz darabilgun bufukan guri laguntzeko; gabaz lo gagozaneán, amak seme gaisoaren loa zaintzen daben baño arduratsuago, gu zaintzeko. Or' dago estutasunetan, zabaltzeko; atsekabeetan, atsegintzeko; ez-jakiñean, erakusteko. Or' dago gure orde z bere Aita agur'tu, eskerak egin, gure pekatuakaitik parka-eskatu, ta bea' doguzan laguntasunak jadesteko. Eta egongo da, unetxo baten be aldendu barik, OMNIBUS DIEBUS, geldi-geldi, geure-ondoan, ama seme gaisoaren oe-ondoan baño eza'ri-ago. ¡Bai! luze egiten yako amari il askotan seme gaisoa zaintzea; baña gure-ondoan gu maitetzen egotea, ez yako, ez, luze eritxiko Jesus Onari.

¿Zer egiten dozu, Jaun altsu ořek, gau osoan isil-isilik, bakař-bakařik, oř, argi motel bat, eta bera ez gitxitan itzalita, lagun dozula? —Maitetu zeu, ene semeori; maitetu, ta eten-barik maitetu, gařtsu maitetu.

Bai, Jesus, neuři guztien ganetik maitegařiori, guganako maitetasunak sartu zinduzan presondegi ořetan, guganako maitetasunak zaukaz oř lotuta, ta lotuta eukiko zaitu, une baten be itxi-barik, munduaren azkenengo egunerařo.

¿*Nun egongo da?* Uri andietan bakařik? ¿Eleiza edeř, apainduetan bařo ez? *VOBISCUM SUM*, apostoluen ondorengo guztiakin, katolikoak abadeagaz batuta dagozan alde guztietan. Baseři txikiak ez dabe atzeratuko, ez da uri ezeukiak (pobreak) be. Pozik egongo da gizon-artean egon ezkerro, eleiza txiki, erdi-jausi, ta korporal eta kopoe loyetan egon ařen. Aberats nai beařtsu, jakitun zein ez jakin, on eta txařen artean egongo da, ta pozik egongo da.

Baseřitař batek itandu eutsan konde baten eřian, Valladolid-inguruan, Jesuita euskal-jatoriko santu ta jakitun bati, A. La Puente'ri:

«¿Zelan egon leike Jesu-Kristo Sakramentuan eñi onetan, ain txikia izanda?» Erantzun eutsan jakitunak: «¿Eta zelan dago kondea eñi onetan, txikia izan añen?»—Berea dalako.—Ba berea dalako, ganeratu eutsan jesuiteak, dago Jesus be Sakramentuan eñi onetan, naita izan ain txikia. ¡Bai! sortaldetik sartaldera, ipañetik egora, Jesus'enak gara, Aitak bereztat emonikoak, bere Odolaz erosikoak; eta oñetxegaitik ezin gaitu bakañik itxi. Eta ez dagon lez eñirik eguzkiak zelanbait berotzen ez dabenik; ez dago eñirik geure arimetako eguzki au bakorik be.

¡Munduaren zorigaiztokoa, Sakramentu Santu onegaitik ez-balitz! ¡Ze itzala ze iluna, ze otza, ze ila izango ete-litzake luña, eguzkirik ez-baleko! Ba itzalagoa, ilunagoa, otzagoa ta ilagoa izango litzake gure arimetako mundua, eurak poztu, argitu, berotu ta biztuten dabezan eguzki edeñ onegaitik ezpalitz. ¿Nok orduan gure alde beañ dan bestean eskatu? ¿Nok bigundu, gure eguneroko gaiztakeriakaz eguñero biztuten dogun Jaungoikoaren aseñea? ¡A, zenbat bidañ egongo ete-zan Jaungoikoa bere zuzentasuneko espatea gure

ganean dabela! ¡Zenbat bidañ esango eban Noe'ren aldian lez: «Neuk kenduko dot gizona luñaren ganetik!» Baña alde guztietatik igoten bada zeruko Aitagana gure pekatuen atsa; alde guztietatik igoten da egunero goizean-goizean ostia zuri ori abade jaunaren eskuetan, eguzkia sortaldean lez, Jesus Kurutzean josita Kalborioan jaso zan lez, eta orduan baizen asko atsegintzen dabela; eta beronen usain gozoak, Noe'ren oparia baño neuñi barik gozoagoak, ibituten dau Jaungoikoaren aseña, ta asañezko uriolaren ordez grazia ta erukizko euriak baño ez deuskuz bialtzen.

BIGAÑEN ATALA

Gizonen eskerbagetasuna.

Ikusi dogu eskutu (misterio) bat, Jesus'en guganako maitetasunezkoa. Orain ikusi dagigun beste bat, *gaiztakerizkoa*, MYSTERIUM INIQUITATIS.

Auñetiaz jakin ba-litz Jaungoiko andia, guganako maitetasunañen, geugana etoñi, ta

geugaz bizi bea' zala munduaren amairano, asiko ziran esaten: «Jaungoikoa bizi gugaz? ¿Eta zelan artu bea'ko dogu? ¿Zelan egon bea'ko gara bere au'ean? Eta e'egea dato'ela e'fi batera jakiten danean, asten dan lez bakotxa daukana gertuten, geyago ez daukako lotsatuta: asko be alegin geyagoz, esan lei, gertuko zirala gizonak, euren Jaun andia artzeko; ta bere ondoan, bera maitetzen, beragandik ezin aldenduta egongo zirala.

Ba'na gizona ba'no eske' txae'koagorik ez dago. Mila ta zazpiregun miloi inguru gizonetik, mila miloik, au da, irutik bik, jakin be ez dakie Jesus geure artean dagonik. Beste zazpiregun miloitik iya erdiak zinaustausle edo erejeak dira, Jesus gugaz dagola ukatzen dabena; eta onegina ez ezagutzea txae' ba-da, ukatzea ondio txae'ago da.

Katolikoak, orduan, Jesus'en maitetasunezko egikune a'igari au ezagutu ta autor-tzen dabena, eurak euren eta beste anaye guztien izenean goratuko dabe Jesus Ona, ta eske'rik andienak egingo deutsez. Dakusgun: ¡Ai, nire begiak ikusten dabena da lagunez beterik dagozala kaleak, ibiltokiak eta arimak a'apateko deabruak asmau dabezan

toki guztiak. Sartzen naz eleizan eta banaka batzuk baño ez dakustaz, eta egiten dot: kale oretan, enparantza (plaza) oretan dabilzanak ¿kristiñauak ez dira? ¿Zelan, ba, izten dabe ain bakañik euren maitetasunez gau ta egun altara bañuan dagon Jaun andia? Egon-go dira gizonak autuan eleiz-ondoan, denporea zelan emon ez dakiela: ta unetxo bat ez dabe eukiko euren Jaunari agur egitera sartzeko.

Beste asko sartzen dira. Baña ¿zelan egon? Asko alde guztietara gogoa banatuta, ganora barik, beste edozein tokitan ba-legoz lez; eta urtengo dira euren maitetasunez Biotza ereten daukan Jaunari berbatxo bat be esan barik. Ez gitxi alboetara begira, nor sartu ta nor urteten dan ikusten, bañeka, berbetan. Batzuk gogapen (pentsamentu) loyetan, kentzeko alegin andirik egin barik. Baita aurkitzen dira gogapen eta gurari txarretan, eta noiz-bait berbeta zatarretan be. ¡Urten! ¡Urten txakurrok, eleizatik! Pekatu egin nai dabena, doala nai daben tokira; baña ez dedila etori Jaun andi onen aurera, bere jarleku itzaltsoaren onetaraño, bera atsekabetzen, iraintzen.

Eta izanik lotsabagekeri au ain andia ta lu'eko e'rege bati iñok egingo ba-leuskio, bere buruagaz ordaindu bea'ko leukena, ¿zer esan arako emakume a'ro ta ero, ez bururik, ez lotsarik, ez ziñismenik ez daukenakaitik? Apain-apain eginda sartzen dira eleizan, doaz batera ta bestera begira begirunearen (modestiaren) apu'rik barik, guztiak onduen ikusteko tokian geratu arte. ¿Zer da lotsabagakeri au? ¿Gure Jauna garaitu nairik al-doaz, berari yagokazan gorapen, begi ta biotzak ostuten? ¿Izan lei au baño irain andiagorik? Ondio bai, ta zorigaiztoan sa'ritan gertaten dana.

Pekatu aztunean dagonak, deabru bat lez dauko bere arimea, loituta, atsituta, deabruen bizi-leku eginda. Eta olan egon a'en, ¡ai zenbatek u'feratu altara-au'era, atara miña, ta, Judas'en antzera, ipinten dabe Jesus Ona bere arerio deabruaren erpeetan! ¿Zer egingo ete-dau Jesus ain garbiak eta garbizaleak, an, pekatutzan, basatzen lez?

¿Eldu al-da onegaz azkenera gizonen gaiztakeri ta eske'rbagetasuna? ¡Ez! Amai-bakoa dirudi, Jesus'en maitetasuna lez. Aurkitzen dira gizonak, (idazteak be da' da'

eragiten deutso lumeari) aurkitzen dira gizonak, Jesus Ona ostian artu, luñera jaurti, ostikoaz zapaldu, ta zaldiai emoten deutse-nak be; baita, ziñistu ezindakoa izan aŕen, Jesus'en Gorputz Jaungoikozkoa artu, eroan etxera, ta beragaz jaingeruen aŕigaŕia! ezin esandako zataŕeriak, deabruari berari atzera egitekoak egiten dabezanak be. Eta Jesus Ona antxe, isil-isilik, geldi-geldi. ¿Zelan ez dau, orduan, ateraten, Tabor'en lez, bere baŕuko argitasunaren eŕaŕnu bat, eta ez ditu izten ezer-eztuta gizon gaizto, lotsabagako oŕek? ¡Ez! ez dau olakorik egingo. Egingo ba-leu, edo ez-giñakez elduko Bera artzera, edo bilduŕez elduko giñakez. Eta Berak nai dabena da, gu Beragana eltzea, ta bilduŕ-barik, maitetasunez eltzea.

Aingeruak eta zoriondunak zeruan, eta luŕean gizon onak agurtu ta goratu zaitezela, Jesus neuŕi barik maitegaŕi ori. ¿Ez al-zein-kizan, Sakramentuan geratu-aldian, gizonak egingo eutzuezan gaiztakeri guzti onek? Bai, guztiak eta argi-argi ikusten zenduzan, baŕna: *AQUÆ MULTÆ NON POTUERUNT EXTINGUERE CARITATEM*, gure gaiztakerien urak ezin itzali (amatau) izan eutzuen Zeure Biotzean zeun-

kan guganako maitetasunaren gaña, bai gañ ori geyago ta geyago biztu, gañari, andia danean, urak egiten deutsan lez.

¿Eta nik, Zu, Jesus Onori, maitetu ez, batez be altarako zokondo oretan? ¿Ni etoñi ez sañiago Zu ikustera, itzalez egon ez Zeure aurrean, eta batez be nik Zu sañiago ta obe-toago gertuta artu ez? Maitetzen zaitut Jesus'en Biotz Sakramentukoa; maitetu zaitezela zeruko aingeru ta lurreko gizon guztiak be. ¿Noiz ekañiko dozuz, Jauna, Zeure aurrea ainbeste nire anaye maite, Zugandik al-denduta dabiltzanak? Bitartean euren izenean be maitetu nai zaitut, eta atsegindu eurakan-dik artzen dozuzan atsekabeen orde. Jesus, nire maitetasunez ogi-antzean estaldua, Zeu izango zara nire zerua lurrean, Zeu izango zara nire zoriontasuna zeruan, estalki barik Zeure Arpegi edeña ikusi dagidanean.

A. M. D. G.



Faint, illegible text, likely bleed-through from the reverse side of the page.

A - M - O



AURKIBIDEA

Oñaldeak

Berbaúrea	V
Gogartea (meditaziñoa)	7
Asierea ta Zimendoa	19
Lenengo Gogartea, <i>Gizonaren Jatorria ta Azkena</i>	21
Bigarren Gogartea, <i>Salbaziñoa</i>	31
Irugarren Gogartea, <i>Beste izaki (criatura) guztien azkena</i>	45
Laugarren Gogartea, <i>Iru Pekatuak</i>	59
Boskarren Gogartea, <i>Bakotxa beren Pekatuak</i>	71
Seigarren Gogartea <i>Lengo bien Bariztetea</i>	89
Saspigarren Gogartea, <i>Pekatu Ariñarena</i>	93
Zortzigarren Gogartea, <i>Inpernuko Atsekabeak</i>	101
Bederatzigarren Gogartea, <i>Eriotzea</i>	123
Amargarren Gogartea, <i>Kristiñau on eta txarren Eriotzea</i>	137
Amaikagarren Gogartea, <i>Bakotxa-beren Juizioa</i>	149
Amabigarren Gogartea, <i>Guztion Juizioa</i>	161
Amairugarren Gogartea, <i>Seme Ondatzalearena</i>	177
Bigarren Astea	195
Amalaugarren Gogartea, <i>Jesus'en Gizakundea edo Enkarnaziñoa</i>	197
Amaboskarren Gogartea, <i>Jesus'en Jayotzea</i>	209
Amaseigarren Gogartea, <i>Jesus, Andra-Maria ta Josepe'k Nazaret'en euken Bizikerea.</i>	223
Irugarren Astea	233
Amasaspigarren Gogartea, <i>Jesus'en Nekaldi (Pasiño) Santua.</i>	235
Laugarren Astea	291
Amazortzigarren Gogartea, <i>Maitetasuna Jadestekoa.</i>	301
Emeretzigarren Gogartea, <i>Altarako Sakramentu Santuarena.</i>	315

